

**EUSKAL HERRIKO  
MUGAZ GAINEKO  
PORTUGALDARREN PASA**

**ROSA    ARBURUA    GOIENETXE**

<b>MIGRAZIOEN GARAI LUZEA LABUR BILDUZ</b> .....	<b>3</b>
ASPALDIKO KONTUAK .....	3
KONKISTATZAILEEK SORTURIKO EMIGRAZIOA .....	7
<i>AMERIKARA</i> .....	8
HANDIK-HONAT, HEMENDIK-HARAT .....	14
ISILPEKO EMIGRAZIOA .....	22
<i>FRANCE-ESPAÑA. EUSKAL HERRIKO MUGA</i> .....	22
<i>LAN BILA</i> .....	24
Euskal Herriko muga zeharkatu nahian.....	24
Beste mugak zeharkatu nahian .....	28
<i>ASKATASUNA BILA</i> .....	34
<b>PORTUGALDARREN MIGRAZIOAK</b> .....	<b>41</b>
ASPALDIKO KONTUAK .....	41
XX. MENDEAN.....	43
<i>LEHEN TXANDA</i> .....	44
<i>BIGARREN TXANDA</i> .....	45
Salazar eta Portugaleko gerra Afrikan.....	53
Portugalarrak Frantziara .....	57
Ordainketa.....	64
<b>PORTUGAL-ESPAINIA MUGA O SALTO</b> .....	<b>73</b>
ANGARIADOR .....	79
PASSADOR .....	84
EUSKALDUNEN LINEAK.....	116
<i>DONOSTIATIK</i> .....	117
<i>ELIZONDOTIK</i> .....	125
<i>LEGASATIK</i> .....	141
<i>URRUÑATIK</i> .....	155
<i>IRUNDIK</i> .....	161
<b>EUSKAL HERRIKO MUGA O SALTO</b> .....	<b>194</b>
EUSKAL HERRIKO MUGA .....	194
PORTUGALDARRAK MUGAZ GAIN.....	200
<i>TXINGUDI</i> .....	202
<i>MALERREKA-BERTIZARANA</i> .....	220
<i>BORTZIRIAK</i> .....	227
ETXALARTIK SARARAT .....	227
BERATIK SARARAT.....	254
<i>BAZTAN</i> .....	262
<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>273</b>

# **MIGRAZIOEN GARAI LUZEA LABUR BILDUZ**

## ***ASPALDIKO KONTUAK***

Adituek diotenez, gure planeta, gure Amalurra, duela 4.500 miloi urtetik esistitzen da. Urteak dira!!!!

Gizakia berriz, duela 5 miloi urteko biziduna dugu. Lurraren sorreraren datarekin konparatuz, gizakiaren historiaren bilakaera laburra da. Laburra izanik migrantea ere bada.

Antzinako hominidoak, Australopithecusak, afrikarrak ziren. Orain dela 5 miloi urte edo, Afrikaren klima beroko eremuetan bizi omen ziren.

Gure espeziea, Homo sapiens, orain dela 200.000 urte Afrikan bizi zen. Brenna Hann ikerlariak eta Unibertsitateko kideak Proceedings of the National Academy of Sciences aldizkari ospetsuan, gure aitatxi amatxiak Afrikako Hegoaldeko boskimanoak zirela diote. Khoisan hizkuntzan elkar komunikatzen omen ziren.

Bidaiariak ere baziren . Leku batetik bestera janari bila igarotzen zuten bere bizitza. Hala, Afrika kontinenteko mugak gaindituz emigratzaile bihurtu ziren.

Afrikako leku gutti batzuek aparte, gaur egungo lurralde guztietako biztanleria iraganeko emigrazio prozesu baten bati esker sortu da.

Gizakiok edo migranteak gara edo garai baten gertaturiko migrazio bilakaera baten ondorioaren emaitza bihurtu gara.

Hau dela eta, migrazioa gaur egungo kontua dela pentsatzeak oker galanta dakar. Are gehiago, migrazioen aurkako jarrerak edukitzea, gizakiaren funtsaren aurka egitea da.

Lehen gizakiak bidaiari amorratuak ziren, etengabe joaten ziren leku batetik bestera. Helburua : bizirik irauteko behar beharrezkoa zuten janaria, ehiza aurkitzea.

Espedizio horiek zirela eta, sorlekuetatik gero eta gehiago urruntzen ziren

Lehen migrazio handia gizakia Afrikatik atera eta Asiaruntz abiatu zenean gertatu zen. Dmanisi-n Homo ergaster gizakiaren aztarnak aurkitu dira . Adituek aztarna hauen adina 1.850.000-1.600.000 urte bitarteetan datatzen dute.

Ez ziren denak batera atera noski! Une desberdinetan gertaturiko fenomeno izan zen.

Eguraldi giro goxoagoak lagundu zien bidaia luze honetan.

“La salida de los humanos del continente africano se produjo hace alrededor de un millón y medio de años... algunos fósiles de Asia han sido fechados en antigüedades cercanas a los dos millones de años, pero en todos estos casos sus dataciones, su procedencia estratigráfica a su asignación taxonómica no está clara.” ( Claves de la evolución humana. MEC.)



Hala , Europara ere iritsi zen ere. Homo Antecessoren aztarnak orain dela 800.000 urtetakoak, Atapuerkan aurkitu dira.

Beranduago, askoz ere beranduago, orain dela 15.000 urte, gizakia ehizatzen zituen animalien atzetik zihoala, Amerikara iritsi zen. Ez zuen ez Cristobal Colonek Amerika “deskubritu”, garai hauetako pertsonak baizik!!!

Siberia eta Alaskaren lurak elkarturik zeuden beraz, alde batetik bestera oinez pasatzerik bazegoen.

Stephen Oppenheimer Oxfordeko irakaslea, 2006. urtean “The Origins of the British” liburua argitaratu zuen. Bere ikerketen arabera, azken glaziazioa gertatu zenean, Euskal Herria, Akitanian eta Kantabrian hainbat pertsona beste lurraldetan egiten zuen hotzatik babestu zen.

1992. urtean Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea den Anton Uriartek, Euskal Herria azken glaziazio garaian babes leku bihurtu zenaren zergatiak azaldu zituen.

Klima goxatu zenean, orain dela 15.000 bat urte, euskaldunak ipar alderantz emigratu zuten. Gaur eguneko Frantziara eta Britania Handira.

Oppenheime irakasleak, genetika azterketak eginez eta konparatuz, britainiarren geneen herena germaniarrak direla dio baina baita %75a azken glaziazioaren ondoren Euskal Herritik emigratu zuten gure euskaldun arbasoena.

Urteak eta mendeak aurrera joanez, duela 11.000 urte inguru nekazaritza eta abeltzaintza sortzearen ondorioz nekazariak lantzen zituzten lurren inguruetan bizi behar izaten zuten. Historiaurreko Neolito garaian gaude.

Hazi ziren lehen elikagaiak Ekialde Hurbilean, Europan garia, Asian arroza eta Amerikan berriz artoa izan ziren.

Lehen zibilizazioen sorrera gertatuko da.

Gizakia beraz, ehiztari izatetik nekazari izatera pasa zen. Honekin batera demografia handitu zen migrazio berriak suertatuz.

Kristo aurreko 2.200 urte inguruan herrialde hauetako hainbat pertsona kontinentearen lurraldeetan zehar ibili ziren. Hegoalderantz jo zuten migrazioek Greziako zibilizazioaren lehen urratsak ezarri zituzten. Erdi eta Mendebaldean geratu zirenak aldiz, zelten eta germanioen tribuen oinarriak.

Kristo aurretik 1000. urte haietan, grekoek eta feniziarrek Mediterraneo itsasoa behin eta berriro zeharkatzen zuten Afrikaren iparraldean, gaur egungo Italian eta Iberiar Penintsularen kostaldeetan beraien koloniak ezarriz.

Drakkars itsasontziei esker, bikingoak itsasoz eta ibaiz Irlanda, Britainia Handia, Kanadako kostaldeak, Galizia, Sebila... lurraldeetako ibiltariak izan ziren.



Denbora luzez,alde batetik bestera ibiliak gara.

## **KONKISTATZAILEEK SORTURIKO EMIGRAZIOA**

Denboran zehar beste salto bat eginez, XV. mendearen hasieratik Portugalek Indiarako bide berria bilatu zuen Afrika inguratuz. Pixkanaka egin zuten aurrera. Lehendabizi Madeira (1418) eta Azore (1431) uharteekin topo egin eta bere erresumako lurraldeak zirelakoan aurrera egin zuten. Ondoren, hegoalderantz abiatu, Afrikako itsasertzetik joan, 1431n Bojador lurmuturra igaro eta 1460. urtean Gineako Golkora iritsi ziren.

1488an Bartolomeu Dias-ek Afrika hegoaldeko muturrean dagoen Esperantza Onaren lurmuturra igarotzea lortu zuen.

Indiako Ozeanorako igarobidea irekita zegoen.

1498an Vasco de Gama Indiara heldu zen.

Portugaldarrak bide berriko zenbait lekutan kokatu ziren, ontzien hornidura eta merkataritzaren kontrola bermatzeko. Inperio handia sortu zuten.

Portugal potentzia indartsu bilakatu zen.

## **AMERIKARA**

1492. urtean Cristobal Colon Amerikara iritsi zen. Honekin batera europarrentzat berria zen kontinentera mendeetan zehar migrazio izugarria gertatu zen.

Aurrerapen teknologikoei esker itsasoz bestalde aurkitutako lur eremu zabal haietara pertsona ugari bizi hobe bat aurkitzeko itxaropenez joan zen.



Espaniarrak Amerikara iritsi aurretik, kultura asko zeuden kontinente honetan. Besteak beste maien, inken eta azteken zibilizazio aberatsak.



Espainiarrak konkistatutako herrietakoak baino gutxiago ziren, baina indigenak harrিতa geratzen ziren beraiek ezagutzen ez zituzten zaldiz, armadurarekin, sua ateratzen zuten katramilekin etortzen baitziren.

Konkista erraztu zuen beste arrazoi bat bertako antzinako sinesmenei eta tradizioei jarraituz, ozeanotik jainkoak iritsiko zirela uste zutela izan zen.

Amerikako konkistak izan zuen ondorio negatiboenetako bat Colonaurreko kulturen suntsiketa izan zen, eta Amerikako indiar askoren heriotza eta esklabotza.

Heriotza kopuruari buruz eta haien zergatiei buruz kaleratzen diren idatziak ez datoz bat. Historialari batzuek diotenez, espainiarrak sarraski handia egin zuten; beste batzuk diotenez europarrek eramandako gaixotasunen ondorioz gertatu ziren heriotza gehienak.

Bartolomé de las Casas espainiar fraide domingotarra izan zen indiarrei tratu ona eman beharra gehien defendatu zuenetako bat.

Europako hainbat lurraldetako konkistatzaileek, Afrika, Asia eta Amerika eremuetan, indarkeria sarritan erabiliz beraien koloniak ezarri zituzten.

Portugal eta Gaztela izan ziren itsasoz bestaldeko bi inperio handi sortu zituztenak.

Europa emigranteen sorlekua bihurtu zen, Amerika aldiz inmigranteen jasotzailea.

Europak gosetea, biztanleri ugartitasuna, gudak, gaixotasunak... jasaten zuelarik, Amerika itzaropenezko lurraldea bihurtu zen.

Euskaldunak ez ziren egoera honetatik at gelditu. Hala 1493. urtean egindako espedizioan, Luis de Arriaga bizkaitarra bertan zegoela badakigu. 1502an Cristobal Colonek eginiko azken bidaian, euskaldunak ere bazeuden.

Cecilia Arrozarenak (2003) egindako ikerketei esker dokumentu hau irakur dezakegu :

“ Antes de emprender el tornaviaje de Tierra Firme a la Española, de 140 habían muerto ya 26, seis de estos vascos. Entre los vascos de la expedición se conocen los nombres del contraestre Martín de Fuenterrabía, el tonelero Martín de Arrieta, los calafates Domingo Vizcaíno y Domingo de Arana, el carpintero Machín, los marineros Pedro de Maya y Martín de Atín, los grumetes Diego de Portugaleta, Juan de Zamudio, Miguel de Lariaga, Bartolomé de Alza, Pascual de Ausurraga, Antonio de Chavarria y Antonio de Arce. También eran vascos el paje Cheneto y el trompeta Gonzalo de Salazar.”

Eta hemendik aurrera, euskaldunak , Europako beste askoren antzera, hasi ziren Indiara, Amerikara joaten.

1492-1600. urte bitarte , 100.000 pertsona Espainiatik Amerikara joan zela kalkulatzen da.

Erdi eta Hego Amerika izan ziren aukeratutako lehen lurraldeak. Rubio Manék dioenez, 1689. urtean, Iberiar Penintsulatik 1.068 pertsona joan ziren Mexikora. Hauetatik 162 Baskoniatik eta 56 Nafarroatik.

Eta Amerikaruntzko euskaldunen emigrazioak jarraitu zuen.

Douglass antropologoak (1975) ibilbide hau laburbilduko digu :

“ Desde el primer viaje de Colón a las Indias en 1492, Latinoamérica ha servido para la emigración y las actividades de los vascos. En los siglos XVII y XVIII hubo un importante agrupamiento de vascos en el norte de México, en los distritos mineros de los Andes Centrales y en los centros portuarios y comerciales claves, como la Habana, Veracruz, Panamá y Santiago de Chile. Al mismo tiempo , los vascos se rodigaron generosamente entre los conquistadores, los misioneros y los marinos; los vascos, ya fuera individualmente o en pequeños grupos, se hallaban por doquier a lo largo y a lo ancho del mundo colonial hispánico. Ene l siglo XVIII, se produjo un notable movimiento de emigración vasca a Venezuela y a Chile. En el siglo XIX las repúblicas del Río de Plata constituyeron, con mucho, el más popular de los destinos en el Nuevo Mundo para los emigrantes vascos.”


XVI-XVII. mendeetan Afrikatik Amerikara bortxazko eta beharturiko migrazio zitala gertatu zen : esklaboena.

Hamar eta hoge miloi pertsona, gizakiak onartu behar ez lituzketen kondizioetan , beraien lurraldeetan bahitu eta Amerikara lan zakarra egin zezaten eramanak izan ziren.

Lotsarazten gaituen migrazioa izan zen.

Martín de Arostegui y Larrea arantzarra Real Compañía de Comercio de la Habanako lehendakaria izan zen (1740-1765). Honen semea, esklabotza kontuetan aritu zela dio Cecilia Arrozarenak (2003) :

“ Martín de Arostegui (semea) , se instaló en La Habana a mediados de ls setenta como representante de la Compañía de Asiento de Negros, la primera sociedad peninsular organizada para ejercer el comercio de esclavos a gran escala.”



Esklaboen kontrabandoa ez zen Amerikan bakarrik gertatu, Euskal Herrian ere horrelakorik izan zen. Bai. Bidasoa bi aldeko euskaldunak esklaboen kontrabandoan aritutakoak dira.

Azpiazuk dioenez,

“tanto a un lado como al otro del Bidasoa, el comercio de esclavos era muy activo.”

Esklavo merkataritza handia zen, hauen kontrabandoa ere.

Gipuzkoako Artxibo Orokorrean badago dokumenturik (4-11-168) , non esklavo beltz baten zortez zera idazten den :

“Andando su merced paseando fuera de esta dicha tierra entre ella y la ermita de Santa Elena, había encontrado con un hombre natural francés que venía para esta dicha tierra de hacia el dicho reino con un esclavo

negro de Guinea de buena disposición, raído el rostro con tres rayas grandes en cada carrillo y en la frente, y porque el dicho esclavo negro es de los robados por ingleses enemigos de nuestra fe católica a católicos cristianos de estos reinos de España, y vendidos por los dichos infieles y por ello ser como es mercadería de contrabando y de los prohibidos por leyes, era perdido el dicho esclavo y por tal lo descaminó y prendió, y así bien mandó prender e prendió al dicho hombre que lo traía...”

Esklaboak Ginearrak izaten ziren askotan. Itsasontziz Amerikara zeramatzatenean piratek edo kortsarioek erasotu eta lapurtuak izaten ziren. Frantziako La Rochelera eramán ondoren hango merkatuan saltzen ziren. Espainiako Gaztela eta Andaluzia esklabo erosleak izanez, Bidasoa aldetik kontrabandoz pasaz bertaratzen zituzten.

Azpiazu dugu esklabo kontrabando mota honen aditua. Berak dioenez,

“... tráfico de esclavos en el que intervenían naturales de ambos lados de la frontera y altos cargos de la administración de la Corona. Más culpables estos últimos que los vecinos utilizados para llevar a cabo sus intereses, todos hacían caso omiso de la ley, burlando la reglamentación que prohibía el paso de esclavos. Muchos de éstos eran pasados fraudulentamente desde poblaciones como Ziburu o Urruña para ser posteriormente vendidos en ciudades de Castilla o en Sevilla.... No vayamos a culpar a los foráneos de ser los únicos promotores de estos movimientos de comercio ilegal y paso fraudulento de esclavos, puesto que los propios vascos formaban en ocasiones importantes redes de paso de esclavos.”

## ***HANDIK-HONAT, HEMENDIK-HARAT***

XVIII. mendeko erdialdean munduko biztanleria 750 milioitakoa zela dio Antonio Fernándezek (1978), 200 urte geroago 3.000 milioikoa.


Bi mende hauetan zehar planetaren biztanleria aurreko 10.000 urtetan baino gehiago hazi zen !!!

Europan, 1800. urtean 187 milioi pertsona bizi ziren. 1900.ean berriz, 401 milioi.

Bestalde eta honekin batera, XIX eta XX. mendeko erdi alde arte, Historiak izan duen emigrazio harat-honatarik handiena gertatu zen :

Espainiari dagokionez, 1830. urtetik aurrera, Levante ingurutik Afrikako iparralderantz jende asko joan zen. Algerian XIX. mendeko erdialdean bizi ziren europarren erdia Espainiatik joandakoa zen.

Europan bertan, Hego aldetik (Italia, Espainia, Greziatik) Iparralderantz (Frantzia, Britainia Handia, Alemaniara), Ekialdetik (Errusia, Poloniatik) Mendebalderantz (Alemaniara) jende mugimendu handia izan zen.



Bigarren Mundu Gerraren ondoren eta 1970. urte bitartean, Martín eta Millerren esanetan (1980) Europako Hegoaldetik eta Afrikako Iparraldetik Europa Batasuneko kideak ziren lurraldeetara 12 miloi emigrante joan zen. Espainiatik 1960-70. hamarkadan Carmen Ródenas-ek dioenez 2 milioi pertsona Europara , Alemaniara batez ere, lana bila “provisionalmente” joan zen.

Mendebaldeko Europa segun eta zein garaitan emigrazio edo immigraziorako lurraldeak izanen ditugu.



Baina emigrazioarik handiena Amerikara jo zuena izan zen. Europarrentzat Amerika izanen da emigrazioarako lurralde nagusia.

1.800. urtean hasi eta 1940.urte bitarte haietan, 55 milioi europarrek Amerikara joateko bidea hartu zuten. Hauetatik 36 milioi bertan geldituz :

15 milioi ingeles-irlandar

10 italiar

6 espainol eta portugaldar

5 bertze (austriarrak, hungariarrak, txekiarrak, grekoak, alemanak...)

Carmen Ródenas-en esanetan (1994), 1.882. urtetik 1915. urte bitarte, milioi bat espainiarrek Argentina, Brasil, Cuba eta Uruguaira jo zuten.

García Cortazarrek (2005) gehiengoak Galiziakoak eta Kanarikoak zirela dio.





Jende anitzek, milioika, sorlekuak utzi eta ezezaguna zitzaien lurraldeetan bizimodu berri bat hasi zuten.

Europako zenbait lekutan biztanleriaren beherakada nabarmena gertatu zen. Honetaz konturaturik eta prozesu honi aurre egin nahian, hainbat erakundek beldurrez beteriko mezuak kaleratu zituzten.

Nafarroako Foru Aldundiak eta Elizak berak, Iruñeko apezpikua tartean zegoelarik, ildo horretatik jo zuten. Horrela, Severo Andriani apezpikuak zera zioen :

“ Los desgraciados que os precedieron en tal loca aventura fueron hacinados en buques, cual si fueran cargamento de comercio... Llegados en fin en medio de tantos riesgos a las costas de América, donde querían hallar el término de sus padecimientos... como se encontrasen sin recursos con que pagar el precio del transporte, se vieron precisados a contratar sus servicios con especuladores hambrientos por tiempo determinado, la diversidad del clima, las rudas faenas a las que se les sometió, es escaso alimento, un trabajo continuado acabaron con la existencia de muchos antes

de terminado el tiempo de su empeño, y los que lograron sobrevivir a tanta desgracia, sólo fue para arrastrar una existencia mísera.”

Nafarroako Foru Aldundiak berriz :

“ De la fatal manía que se apodera de muchos en la expatriación para la América; expatriación considerada en otros tiempos como la mayor desgracia después de la muerte, y hoy en la manera con que verifica, como un acto deshonroso al noble orgullo del carácter natural de los navarros.”

Erakundez gain, egunkariak ere berri hauek ere jasotzen zituzten. Hala, 1881eko Ekainak 27an, “Los Lunes de El Imparcial” egunkarian zera irakurtzerik zegoen :

“ ... la emigración es un sueño, un delirio, una fiebre que la medicina puede estudiar. Sus síntomas son ver en sueños un país dotado por el sol, rico en una vegetación virgen y enmarañada, donde se cuenta por miles de duros y se gana una fortuna en el tiempo en que aquí se gana, cuando se gana, una peseta. La patria aparece a sus ojos como la amante desdeñada . Ese país de oro, como la novia de una noche de mayo...”

Norberak bere betebeharrak asetuak dituenean bertzeei mugak jartzea zein erraza den!!!

Gai izanen ote zen Severo Andriani Apezpikua Lesakako Francisco Barjiarena eta Felipe de Echegarayri aurrez aurre errateko berak idatzitako hitz haiek ? (“Los desgraciados que os precedieron...)

Lehenengo lesakarrak Amerikara joateko lizentzia eskatzerakoan zera idatzi zuten :

“ ... le es difícil asistir a la contribución de las enunciadas cargas y de paso mismo al necesario alimento de ambos y sus dichos hijos por el corto lucro de su jornal y no hallar labor continuamente por ser el país estéril como montaña... y para ebadirsen de tanto aogo, an resuelto los constituyentes que dicho Juan Francisco parta de esta villa ...”

Bigarrenari dagokionez :

“ con cortos medios por causa que la situación del país, como montaña de este reino de Navarra la Alta, es estéril, y que por más que trabaje en sus labores... apenas puede utilizar para su manutención y familia y de un hijo del primer matrimonio, que tiene cinco años...”

1860. urte bitarte Espainiatik Amerikarantz 200.000 pertsonatik gora joan zirela kalkulaten da.

Datu gehiagorekin jarraituz ( Gabaccia 1992, Klein 1995, Adelman 1995), 1857-1926 bitartean Europatik Argentinara 5´7 miloi pertsona joan zen. 1820tik 1970ra Brasilera 5´6, 1831tik 1924bitarte, Kanadara 6´6 eta 1820tik 1924 bitartean Estatu Batuetara 36 milioi.

Beste ikerlari batzuen esanetan, 1800. urtean hasi eta 1930. urte bitartean Europatik Amerikara joandako pertsonen kopurua 40 milioitik gorakoa izan zen.

Azken bi datuak ez dira kontrakoak, biak osagarriak baizik.

Irakur daitekeenez, Estatu Batuak dugu emigrante gehien jaso duen eremua.

XX. mende hasieran Estatu Batuetara urtero 1.300.000 emigrante iristen zen.

1860. urtetik 1969. arte, Espainiatik Amerikara 2.500.000 pertsona joan zela diote. Urte hauetan, 1904tik 1913 bitartean, 1.000.000 goiti izan zirelarik.

Argentina, Brasil eta Uruguai 1940. urte arte, bere lurraldetako biztanleria 12 milioi emigrantez gehitu zuen. Hauetako asko italiar, espainiar eta portugaldarrak ziren.

Europar asko ! Kontinente honetako zenbait tokitan biztanleriak beherakada nabarmena jasan zuen.

Zenbaki gehiegi seguruenik baina ondorio garbia : denbora luzez Europatik Amerikara emigrazio handia gertatu da.

XX. mende arte, euskaldunen emigrazio gehiena, Hegoameriketakoa izan zen. Mende honetan, Ipar Amerika izanen da helburu nagusia.



1848. urtean, Kalifornian urrea aurkitu zenaren berria zabaldu zen eta honekin batera munduko toki desberdinetatik milaka pertsona bertaratu.

Hauetako gutti batzuk Ipar Euskal Herrikoak zirela, Baionakoak, San Franciscoko Daily-Kaliforniako aldizkariak 1821. urteko abuztuaren 11ean plazaratu zuen.

Euskaldun gazteak beranduago, artzain lanetan aritzeko emigratuko zuten.

“... Argentina’n egondu zen denbora batzuk, eta etorri zen berriz Igantzi’ra. Egondu zen emen denbora batzuk eta berriz yoan zen Ameriketara, bañan oraingo aldi California’ra eta Nevada’ra . Emen egondu zen beti ardi zain mendian, batzuetan nagusi batekin eta bertzeetan bertzeekin. Mendian egoten ziren bi lagun eta bi zakur, eta bi milla ardi gizon bakotxak.”

1882ko otsailaren 4an jaio eta gazte gazterik Amerikara emigratutako Paulo Yancitaz Pepito Yanci, bere semea, ari zaigu.

## **ISILPEKO EMIGRAZIOA**

“El valle del Bidasoa es un lugar recóndito, un útero de la tierra, frondoso, profundo, donde el silencio convive con el salto del salmón sobre las aguas herméticas de un río que ha visto pasar a tantos prófugos. Los fantasmas del portugués y otros muertos sin nombre, fusilados o ahogados al pretender salvar la línea del río que atraviesa este mundo inerte y olvidado, rondan por las riberas como las nieblas del mar Cantábrico.”

Anjel Rekalde.

## **FRANCE-ESPAÑA. EUSKAL HERRIKO MUGA.**

“... los Montes Pirineos que habían dividido antiguamente las Galias de las Españas, habían dividido antiguamente las Galias de las Españas, harían también en adelante la división de estos dos mismos Reinos...”

Hala dio, 1659. urtean Hondarribikoa zen Faisan uhartean Frantziako Mazarin kardinalak eta Espainiako Luis de Harok sinaturiko dokumentuak. Pirinioek bi nazioen arteko banaketaren testigu izanen dira.

Idatzi historiko hau sinatu eta ia berrehun urte geroago, 272 mugarri mugaz-muga jarri ziren .

Istiluak istilu, zein eremu ziren Espainiakoak, zeintzuk Frantziakoak markatuta zeuden. Marraz eta harriz markatuta. Ez sentimenduz.

Marrarekin batera Mazarin eta Luis de Harok garai hartan imajinatzerik ez luketen kontrabandoaren hasiera izanen zen.

Estatu arteko mugak askotan, gehienetan, erabat artifizialak direnez, bertako pertsonak ez diote errespetu gehiegirik. Errespetu morala esan nahi dut. Gure artean hori gertatzen da. Mugan bizi garenok alde batean eta bestean administrazio kontuak, politikak eta hainbat kontu diferente direla badakigu baina senide artekoak, kulturak, hizkuntza amankomunak oraindik behintzat batzen gaitu. Eta garai batean kontrabandoak ere bai.

Mazarin eta Luis de Harok ditxosozko sinadura harekin, Euskal Herriari zauria eragitearekin batera, muga bi aldeko biztanleriari aukera ekonomiko ezin hobe eskaini zien.



## LAN BILA

### *Euskal Herriko muga zeharkatu nahian*

Lehen Mundu Gerraren hasierarekin batera, espainolak Frantziarantz joateko joera izan zuten.

Isilpeko emigrazioa izan zen. Carmen Ródenas-en ustez (1994), Frantziak guda ondoren behar-beharrezkoak zituen langileak esku zabalik hartzen zituen. Baina langile hauek nahiz eta lan kontratuak izan, klandestinoki, isilpean joaten ziren.



Emilio Navasek (1977) 1917. urtean paperik gabe hainbat langile Frantziarantz joan nahian zebiltzala idatzi zuen. Urte bat beranduago, 1918an, salaketa ez, atxiloketa gertatu zen:

“Fueron detenidos 28 obreros que intentaron pasar a Francia clandestinamente. Hechos semejantes se repetían en la frontera, a donde aquéllos llegaban sin la documentación precisa e ignorantes de los riesgos que habían de correr por este motivo. Ahora podemos decir que la historia se repite con mucha frecuencia. “

“... la historia se repite con mucha frecuencia” esaterakoan 60. hamarkada inguruan gertatuko zenaren iragarpena zela dirudi.

1917an salaketa, 1918an atxiloketa eta hurrengo urtean, hilketak.

1919ko urtarrilaren 30ean, Hondarribiko itsasertzak zorigaitzeko gertaeraren lekuko izan ziren.

Egunkarien erredakzioetara zera iritsi zen :

“ Irún 30, 1 mañana. Dicen de Fuenterrabía que esta madrugada naufragó una lancha que conducía 20 obreros españoles que, clandestinamente, intentaban pasar a Francia.

Hasta ahora han sido extraídos diez cadáveres.

Según parece, dichos obreros embarcaron en las inmediaciones del faro de Fuenterrabía.”

“ Irún 30, 4 tarde. Según las últimas noticias, han sido recogidos 12 cadáveres; los ocho obreros restantes consiguieron salvarse a nado.

El barquero se supone ha pasado a Francia. Parece ser que anoche llegaron 31 obreros, alojándose en casa del reclutador Briz, dirigiéndose después por el monte hasta el final de la playa de Fuenterrabía, donde 20 de ellos embarcaron en un bote con objeto de pasar clandestinamente a Hendaya, mientras los 11 restantes esperaban el regreso de la embarcación.

Cuando ésta se había alejado unos cien metros, zozobró.

El primer naufrago que ganó tierra avisó a los carabineros del puesto más próximo , y entre éstos y los pescadores que acudieron de Fuenterrabía, consiguieron extraer los cadáveres, y éstos son : los hermanos José y Vicente Cortés Servent , de treinta y uno y veinte años; José García Riera, de cincuenta y dos; Diego Cano, de veintisiete; Isidoro Vera , de veintisiete; José Alcaraz, de diez y siete; José Pérez , de quince Vicente Martínez, de cuarenta; Manuel Linares , de veintisiete; Antonio Galiana, de diez y seis; Jaime Ezquerdo, de treinta y cinco y Vicente Santamaria, de quince, todos ellos naturales de la provincia de Alicante.

El padre de Santamaria, que iba en la embarcación , logró salvarse.

Después de ocurrido el trágico accidente, la Guardia civil detuvo a Libiano Briz, dueño de la posada de Irún, donde, al llegar, se habían refugiado los obreros. También ha sido detenido Francisco Berro, que los acompañó hasta el lugar del embarque.

En las ropas de uno de los ahogados se ha encontrado un contrato de trabajo para todos ellos, para cortar una dehesa en el departamento de Burdeos.

Los doce cadáveres han sido conducidos al depósito del cementerio de Fuenterrabía.”

Hau zen hotz-hotzean luzatutako berria.

1919ko otsailaren 2an El Bidasoa aldizkariko lehen orrialdean beste berrien artean, zera irakur zitekeen :

“ La tragedia de Fuenterrabía.

Unos cuantos jornaleros españoles, no sabemos si estimulados por las promesas halagadoras de los embaucadores, o realmente impulsados por la necesidad de vivir que no lograban satisfacer en su patria, han intentado pasar la frontera para encontrar en otros horizontes desconocidos un alivio a su desgracia, y cuando así buscaban la que ellos llamarían su tierra de promisión, han hallado la muerte en el mar, y en una noche horriblemente fría ...

No es nuevo en España este afán de emigrar a otros países, prueba inequívoca de que no es completo, ni siquiera relativo el bienestar general, pero esa desbandada se acentuó y extendió considerablemente con motivo de la actual guerra que tantas muertes causó, y que por consecuencia hizo necesarios nuevos brazos que vinieran a reempalzar a los perdidos.

Y entonces es cuando vimos llegar a nuestra ciudad grupos de hombres, para nosotros extraños, por sus semblantes y sus indumentos, y entonces los reclutadores redoblaron sus trabajos, y los posaderos habilitaron sus viviendas, y empezó el tráfico clandestino que ha continuado sin cesar y que continuará sin interrupción porque el mal está muy arraigado y es difícil cortarlo de raíz en un momento dado.

Algo se conseguiría acabando con los reclutadores, pero ni las leyes son categóricas en este sentido, ni los obreros dejarán de solicitar el auxilio de aquellos aun sabiendo como saben, que han de entregar en sus manos los últimos restos de su peculio.

Algo podría evitarse también estrechando más la vigilancia y obligando a los obreros que llegan sin la documentación necesaria, a volver a sus regiones. Y podría completarse la labor cerrando de una vez para siempre esas posadas que sirven de refugio a los emigrantes, y que son verdaderos focos, porque en ellas duermen confundidos hombres y mujeres y chicos, verdaderos montones de carne humana, que constituyen un peligro serio para la salud de todos.

El problema ciertamente es muy complejo y su resolución delicada pero necesaria, y en tanto llega el día en que lo veamos satisfactoriamente resuelto, lloremos la triste suerte de esos compatriotas que han hallado una muerte trágica en el momento que abandonaban su patria

### ***Beste mugak zeharkatu nahian***

Albiste hau irakurtzerakoan ,”paterak” direla eta askotan jaso izan ditugun berri txarrak burutara etorri zaizkizuela ziur nago. Jada eta zoritxarrez ez gaitu harritzen adibidez, El Mundo egunkariak 2007ko irailaren 8an zekarren berriak :

“Ahogados a sólo 10 metros de su sueño.

Diez marroquíes fallecen en Gran Canaria al saltar al mar tras confundir unas rocas con tierra firme.....”

Kanarietako Gobernuko Lehendakariak, Paulino Riverok, zera zioen :

“incalificable tragedia ocurrida constata las insuficientes medidas y acciones emprendidas para reconducir un fenómeno de esta dimensión, desde el Estado y desde la Unión Europea.”

Baita “es imprescindible una ofensiva diplomática ante la UE porque Europa no puede seguir mirando hacia otro lado. La tragedia de hoy pone de relieve una vez más, la enorme vulnerabilidad de nuestras aguas.”



Imagen de los tripulantes de “La Elvira” a su llegada a Puerto de Garupano, Venezuela, en Mayo 1949

**Apresados en Venezuela  
160 inmigrantes ilegales Canarios**

Ba, bai. Bi albiste, bi urte 1919 eta 2007, eta gaur egun ere bideratu gabeko eta askotan hilak dituen isilpeko emigrazioa .

Fernández de la Vega Espainiako Lehendakari ordeak 2006-2008 rako Africa plana kaleratu zuenean “Africa no puede permitirse el lujo de que una media anual de 70.000 personas cualificadas abandonen el continente con destino a países desarrollados. Por propia experiencia sabemos que no hay país, no hay continente que lo resista. Hay que darle la vuelta a la situación.”

Nire ustez,” la vuelta a la situación” eman nahi izan da ez europarrek, espainolak barne, Afrikak” no puede permitirse el lujo” urtero 70.000 pertsonak emigratzeaz kezkatuak daudelako, Europak lanak dituelako emigrazio hau bideratzeko baizik.

Interesgarria iruditu zait irakurri berri dudana “Clandestinos” izeneko liburua. Bertan eta besteak beste, Aldalurrek dio(2010) tuaregak direla pertsonen pasatzeaz arduratzen direnak . Garai batean esklaboak tratatzen aritzen omen ziren eta gaur egun pasatzaile lanetan. Isilpean emigratu nahi dutenei “aventuriers” deitzen diete. Ongi dagokie izena, bidaia luzean abentura eta desbentura nahiko bizitzeko aukera izanen baitute.

Aventurierrak egin dezaketena bide bat, Malitik Algeriara doana da.

Aldalurren hitzetan,

“Los aventuriers están dispuestos a todo. Tienen la determinación de luchar hasta el último instante y una suerte de fe que les permite aceptar cualquier frustración con una pasmosa serenidad... emigran porque confían en encontrar algo mejor en otros países... una mezcla de orgullo, esperanza

e imposibilidad de volver con las manos vacías hace que persistan en esta lucha con una tenacidad impresionante.”



Urteetan atzera eginez, 1960-1990 urte bitartean ,Nazio Batuen Garapenerako Programan idazten denez (1992),

“Por lo menos 35 millones de personas han establecido su residencia en el Norte en las últimas 3 décadas. Alrededor de 6 millones ilegalmente. A los que se añade más o menos 1’5 cada año.”

Berriro ere isilpeko emigrazioaren mamua!

1957-74 urte bitartean , Victor Pereira-ren esanetan Portugaldik milioi bat pertsonak emigratu zuen, Frantziara batez ere.

Lan bila joan ziren. Hauetako asko, gehienak, isilpeko emigrazioaren protagonista bihurtuko dira.

Urte inguru hauetan milaka mexikar Estatu Batuetan isilpean sartu nahiean ibili zen.

Etxalarko Goxpalek, kontrabandoan aritu ondoren Amerikara emigratu zuen. Han mexikar hauei mojudos deitzen zieten dio. Mojudos hemengo Bidasoa antzeko Rio Grande ibaia zeharkatu behar zutelako Estatu Batuetara pasatzeko. Hamaika aldiz Goxpal kontrabandoarekin Bidasoa ongi mojudo pasatu ondoren , beste pertsona batzuen bustitzeaz jakin zuen.

1960. urtean muga honetako zaintzaileek hogeita bi mila mexikar baino gehiago harrapatu zituzten. 1987. urtean kopurua laurogei milatik gorakoa izan zen.

Mexikarrak gelditu zituzten, baita pasatzaileak ere.

1960. urtean atzerritarrek pasatzeaz arduratzen ziren hirurehun eta hogeita hamar kontrabandista atxilotu zituzten. 1967. urtean, mila berrehun eta hemeretzi.

1962. urtean, Britainia Handiko gobernuak “Commonwealth Immigrants Act” dokumentua sinatu zuen. Lan bila zihoazen atzerritarren sarrera zorrotz kontrolatu nahi zen. Sinadura honekin batera, pertsonen kontrabandua areagotu zela ez dago dudarik.

Green-ek dioenez (1969),

“... fueron pocos los que predijeron que esa ley daría origen a los sindicatos de contrabando humano internacional más complejos y quizá más lucrativos de la década 1961-70.”



“ Si las leyes británicas de inmigración se vuelven aún más rigurosas.... Entonces los contrabandistas tendrán mayor oportunidad de hacer negocio.”

Legedia martxan jarri zenean, Antilla, Pakistan eta Indiatik urtero lanaren bila ,ehun bat mila pertsona sartzen ziren legalki edo ez Britainia Handian. Askotan Frantziako iparraldetik itsasontziz, txalupaz, bertaratzen ziren. Eta Frantziara dexente Euskal Herritik pasaz. Bai, hala dio Otilia kontrabandista-mugalariak. Berak indiarrek eta pakistandarrak pasa izan ditu. Lehenbizi portugesak, gero, “negros. Bueno, no eran del todo negros. Marrokis tambien pero gente de la India y de por allí. Venían a España y luego había que pasarlos para Francia. Y fueron muchos no creas.” Etxalarko Baxtan honetan ere aritu zen. “Beltzak” pasatzen alegia.

Munduko beste mutur batean, Hong Kong-en , urte hauetan beste hainbeste gertatu zen. Txinatik milaka pertsona lana bila , bertaratu zen. Suge trafikoa deritzana martxan jarri zen. Itsasontziz pasatzen zutenei sugearen buru deitzen zieten. Izen hauekin Ekialdeko kulturaren gertatzen zela , garbi dago.

1962. urtean Txinan gosetea izan zen. Orduan, ehun eta berrogei eta bi mila txinatar isilpean Hong Kong-en sartu ziren. Zenbaki hauek eskuratzerik dugu beranduago bertan gelditzeko baimena jaso zutelako.

## **ASKATASUNA BILA.**

Emigratzeko beste arrazoi bat politikoa eta askatasuna galtzearen beldurra izan daiteke. Bizitza arriskuan jarri baino lehen jende anitzek emigratzearen erabakia hartu izan du .

Hau askotan, guda inguruetan edo matxinaden ondorioz gerta daiteke.

Muga ondoan bizi garenei ez zaizkigu arrotz egiten guda osteetan beste aldera joan behar izanaren istorioak entzutea.

Alde batekoak beste aldean lagunak eta familiakoak edukitzea normala eta naturala da. Beraz, istilu politikoak izaterakoan muga, marra gaindituz beste aldean aterten bat irekita izanen dugunaren ziurtasuna dugu. Eta pasaporte eskura izan beharraren kontzientzia barneratua ere. Badaezpada ere.

XX. mendean, arazo politikoak zirela eta, muga isilpeko pertsonen pasatzearen testigu izan da.

1936. urteko gudaren eztandarekin batera Espainiako gobernu legitimoaren alde zeudenen bizia arriskuan zegoen.

Milaka espetxeratu izan ziren. Bizkaian 12.000, 3.500 Nafarroan, 1.600 Gipuzkoan eta 800 bat Araban.

Fusilatuak kantidadea ! Gure eremu hauetan Lesakako harrobia eta inguruan dauden Bidasoako ertzak, fusilatuen hilobi bihurtu ziren.

Asko izan ziren egoera latzari aurre egiteko asmoz, bestalderat ihes egin zutenak. Batzuk nazionalistak edo-eta errepublikazalek ziren, besteak soldaduskaren eta honek zekarren gerrara joatearen ihesean zebiltzanak.

Muga ondoko gazteek muga alde batetik bestera erraz pasatzen zuten. Euskal Herriko beste ingurutik zetozenak aldiz, mugalarien beharrea suertatzen ziren. Hauek, kontrabandistak, ongi aski ezagutzen zituzten bide eta estrategiak, oraingo honetan pertsonak pasatzeko erabili zituzten.



Urruñan jaiotako gizon bat Espainiako gudan errepublikazalerekin batera aritu zen. Tenientea omen zen. Lesakako Beraun hartu omen zuen eta Etxalarko Monokobordatik Sara aldera pasatzeko asmoa zuen. Saratarrak gero beste nonbaitera eramateko agindua zuten. Ilargi ederra omen zen. Aita ez zen mugalari bakarra. Oso gaztea zen, hamasei bat urte. Teniente

honek pistola bat erakutsi zionean inpresionatuta gelditu zela dio. Pastilla txiki batzuk ere erakutsi zizkion esanez “lehenbizi pistolakin defenditu behar da eta dena galdua bada, haien eskutan gelditzen bazera pilula bat hartu eta aban sartu eta segidan fini zara!” noski hamasei urteko nerabea ba... inpresionatuta!

Teniente aurretik joan omen zen pistola eskuan zeramala. Badaezpada ere!!

Beranduago, aitak errepublikano bat Bereaun, Meriyuan hartu zuen Sarara pasatzeko. Mendiz zihoazela gizon hau erabat beldurtu omen zen eta ezin bere burua kontrolatu. Negarrez, bere buruari emanda ... ez zuela Frantziako aldera pasatu nahi adierazi zuen, alemanak bertan zeudela eta nahiago zuela Espainiako aldean gertatuko zitzaionaren zain egon. Histeria atake antzeko bat izan zuen eta atzera egin beharrean suertatu ziren. Honetan zeudela, guardia zibilak (eltzetzuak) agertu ziren alto! botaz. Aita lasterka hasi bezain pronto gizon hura erabat geldirik gelditu zela konturatu zen. Beranduegi. Harrapatu zuten.

Etxalarko Eugenio Sanzberro mugalari trebea zen. Nazionalista anitz Sara aldera pasatu zituen. Kartzelan egona . Bertan tratu txarrak jasoa . Ihes egitea lortua . Eta bere andreak pasadizo hauekin txuri beltzak ikusia .

Bestaldean, Saran esaterako, baziren hainbat baserri gerratik ihesean etorritakoak eskuzabal onartzen zituztenak. Hauetako bat, gehien jasotakoa seguruen, Andoitzeko borda. Bertan beti lapikoan familiako kideek behar zuten baino janari gehiago egiten omen zen. Norbait etortzen bazen edo.... Badaezpada ere.

Berako Karmen garaian Urruñako Oletan bizi zen eta bere etxera ere hamaika beratarrek izan zuten atea irekia garai latz haietan :

“ Guk Espainiako gerra denboran jende aunitz kontzen genuen itxian. Errefuxiatu aunitz. Desertoriak ziren . beratar aunitz, ezagunak zirenak eta gerratik ihes joan zirenak. Hor da guaindik Carmen Manzizior gure itxian egondakua. Sebastiana, Carmenen ama, Fernanda Gaintzakua ere. Itxe ttiki hartan 14-15 lagun izaten genittun. Errekan arropa garbituz... Saran ere , Jean Pierren itxian, Andoitzen bordan... gauza bera... baztandarrak eta Etxalarkuak ere harat. Dena jendez betia! “

Bigarren Mundu Gerrak eztanda egin zuenean, Euskal Herriko mugak berriro ere pertsonen harat-honatak ezagutu zuen. Orain, alderantzizko bideak, Frantziatik Espainiakoak, hartuko zuen indarra.

Emigratu beharrean suertatu ziren pertsona zenbait “ezagunak” ziren, besteak judu anonimoak, besteak erresistentzian ari eta harrapatu baino lehen ihes egitearen beharrean zirenak.

Alemaniatik ihes zetozen juduak, Espainia aldera pasa nahi zuten hemendik Afrika iparraldera joateko asmoz. Pirinioak zeharkatu beharrean suertatzen ziren.

Urruñako Benitak, Dantxarinea eta Arnegiko inguruetatik asko pasatu zirela dio. Azken muga honek garrantzi berezia zuela gehituz.

Biriatutik pasatzeko modua ere bazegoen. Inguru hartan zenbait mugalari judu pasatzera dedikatu ziren. Hauetako norbait, gertaera beltz baten protagonista izan zen eta honengatik, espetxeratua ere.

Biriatuko Juan Marik gertaturikoa ongi esplikatu zidan : Bere aitatxi eguneroko martxan, artzain lanak egitera mendira joan zen. Zortzigarren mugarri inguruan usain txarra nabaritzuz eta ardiren bat hilik egonen zela pentsatuz, bertaratu eta non ikusi dituen bi pertsona hilik! Andre bat eta gizon bat omen ziren. Juduak zirela beranduago jakin zuten. Poliziari esan eta ikerlanak egin ondoren bi mugalarien bitartez muga pasatu nahi zuten. Erasotuak izan ziren eta bitxi guztiak kendu ondoren erailak. Biriatuko kanposatuan hilobiratu zituzten eta hiltzaileak espetxeratu.

Baina istorioa ez zen honetan bukatu. Bikotearen alabak gurasoen berririk ez zuenez, ikerketak egin zituen. Bere amak harri bitxi bat non zeukan bazekien . Ikerketen ondorioz Biriatun gertatutakoaz jabetu eta bertaratu zen. Gorpuak lur azpitik atera eta baita harri bitxia aurkitu ere.

Erresistentziakoak ere gure muga gure mugalarien medioz zeharkatu beharrean suertatu ziren. Sareak antolatu ziren horretarako. Ezagunena Comète sarea. Frantzia iparraldean arriskuan suertatzen ziren ingeles eta amerikar soldaduak Espainiara pasa, gero Gibraltarreraino eramateko bide luzearen antolaketa egin zen. Euskal Herriko Ipar eta Hegoalde arteko muga gaindituz, biderik arriskutsuena gainditua zegoen.

Gehienetan Paris-Ziburu-Urruña-Bidasoa zeharkatu-Irungo Erlaitz menditik-Oiartzun-Donostia-Gibraltar bidea egiten zuten.

Honetarako oso mugalari konkretuak izaten ziren. Florentino Goikoetxea eta Manuel Iturriotz esaterako. Dedé emakume belgikarra zen buru egiten zuena.

Sarea nahiko itxia eta antolatua zen. Otiliak esan zidanez ETAko kideak pasatzerakoan antzeko itxitasun bat gertatzen zen. Mugalariak gutxi eta beti berdinak.

XXI. mendean emigrazio politikoak jarraitzen du. Azkena, nabariena, herrialde arabiarretan gertatzen ari diren protesten inguruan sortu da.

Tunisia eta Libiaren arteko muga giza krisiaren atarian dagoela 2011. urteko martxoaren 2ko Berria egunkarian irakur daiteke. Azken hamar egunotan, Libiatik 140.000 lagunek ihes egin dute. Hauetatik 75.000k Tunisiarantz jo dute ; beste 65.000 lagunek Egiptorantz. Zenbait tokietan kaosa nagusi dela ere irakur dezakegu. Oraindik milaka pertsona omen daude hesia, muga igarotzeko zain daudenak.

## De Cristóval

### Emigrantes e consequências

Ao despedir-se de nós o mês de Fevereiro, começaram também a despedir-se da nossa terra, os homens válidos ao trabalho, com destino a França, esperançados de melhorar, cada qual, a sua situação económica.

Caminham mas o pensamento está sempre em Portugal, porque Portugal é dizer seus pais, esposas, filhos e amigos.

Não quero fazer comentários de quão dolorosa é a palavra «Emigrar», sem recordar a canção espanhola «El emigrante», porque tudo quanto há de poético e cheio de nostalgia, nos diz: «Volvi la cara llorando».

Certo é que estamos ligados a esse espanhol que canta, quer seja músico ou emigrante.

Partem com o coração oprimido pela mesma dôr, como se tudo fosse catastrófico em volta deles e martelando sempre seus cérebros. Ah! se eu pudesse ganhar mais algo; se meu trabalho fosse mais remunerado... não iria para França, estaria no meu Portugal e não ouviria a palavra «Salle étranger», que tantas vezes infelizmente se ouve.

Depois de dar o fruto do seu trabalho ao país acolhedor, mais outra dôr se acerca do emigrante. Ele sabe que vai trabalhar noutro país, que o vai enriquecer, construindo casas, hospitais, centrais eléctricas, pontes, estradas e tantas coisas ele ajuda a elevar, pensando sempre, decerto, que no ano próximo já terá na sua aldeia a electricidade ou a estrada para levar o médico ao doente; a água potável ao povoado ou a sua escola para as crianças.

O emigrante sabe que vai enriquecer outro país, trabalhando na construção de novos edificios escolares modernos, onde os alunos têm todo o conforto e higiene, e deplora, que haja um cantinho do mundo, e esse é na freguesia na Cristóval, onde estão a leccionar quarenta e quatro criancinhas juntas, em modestos bancos, numa escola que mais daria para pombal do que para tal fim.

Eis a razão porque o sotrimento não desampara os humildes emigrantes.

*António Manuel Domingues.*

1964-III-15



## **PORTUGALDARREN MIGRAZIOAK**

### ***ASPALDIKO KONTUAK***

Badago, izan ere, portugaldarren barruko azalean emigrante izatearen izaera. Aspaldidanik izan dira portugaldarrak emigrante. Familietan, emigratu duen kideren bat izan da.

Emigrazio kontuak oso barneratuak dituzte. Beraiena den fenomeno bat dela esan dezakegu.

Aurreko kapituluan azaldu zenez, espainiarrekin batera portugaldarrak izan ziren XV. mendaz geroztik beraien lurak gaindituz, itsasoratu eta beste kontinenterantz abiatu zirenak.

Hala, 1415ean Portugalek beste lurralde batzuetan zehar bere zabaltze prozesuari ekin zion. Portugal Inperioaren hastapenak dira Portugal itsasoari begira izateak lagundu zuen prozesu honetan, baita aurrerapen teknikoek ere, demografia tasa jasan ezinak, pobreziak eta zergatik ez, abentura edo-eta “beste” bizimodu baten bila joatearen zirrara puntuak.

Espainia eta Portugal munduan zehar lurralde desberdinen jabe egiten ari ziren. Prozesu honetan elkarri oztoporik ez jartzearren ekainaren 7an Gaztela eta Aragoiko errege-erregina katolikoek eta João II.a Portugalgo erregeak adostu zuten Tordesillaseko Hitzarmena, eta haren arabera

ordurarteko lurralde konkistatuak banatu eta muga-lerro bat zehaztu zuten Ozeano Atlantikoan.

1497. urtean Vasco de Gama espedizioa Lisboako portutik itsasoz atera zen, munduko itzulua osatu asmoz.

“Aurkikuntzen” ondorioz, Portugalek eta Gaztelak itsasoz haraindiko bi inperio handi sortu zituzten. Esan bezala, beraien artean arazorik ez sortzeko, bi herrialdeek esploratzeko eremuak Tordesillaseko Itunean (1494) banatzea erabaki zuten. Bertan Portugalek Afrikako, Asiako eta Amerikako Brasileko lurraldeak esploratu eta ondasunak bereganatuko zituen eta Gaztelak berriz bere boterea, Amerikako lurralde gehienetan zabalduko zuen.

Europaren nagusitasuna hasi zen mundu osoan. Europako herrialdeak lehiatzen hasi ziren, “aurkitu” berri ziren beste kontinenteetan, ahalik eta agindupeko lur gehien lortzeko, lurralde haietako aberastasunei merkataritzaren eta ustiapenaren bidez etekina ateratzeko. Ezin ahaztu, etekin hauek lortzearren, bertako biztanleen zapalketa eta askotan jasan zuten sufrimendua.

Lehia eta zapalketa horrek bost mende iraun zuen.

XV. mende hartan, Portugaletik hainbat esploratzaile, marinel, soldadu, administrari, kolono, langile... definitu gabeko etorkizun baten bila abiatu ziren.

XVI. mendean, India eta Brasil izan ziren abiapuntu nagusi. Garciaren esanetan (2.000), 1497. urtetik 1.612. bitarte, India aldera 4.000 portugaldar joan ziren.

Mende honen erdialde aldean, portugaldarrek Brasileruntz joateko joera izan zuten.

1.576. urtean bertan, Brasilen 57.000 portugaldar bizi zirela dio Garciak. Hurrengo 20 urtetan, kopurua 4 aldiz gehitu omen zen.

## **XX. MENDEAN.**

**“... entre 1900 e 1988 emigraran de Portugal, aproximadamente, 3´5 milhoes de pessoas, 25% das quais o fizeram ilegalmente . O maior número de saídas registous-se depois de 1950 correspondendo a emigração registrada entre 1950 e 1988 a 61% do total verificado ao longo de todo o período. O fluxo migratório foi particularmente intenso entre 1966 e 1973, altura em que se verificaram 48% do total das saídas. “**

**Baganha (1994)**

Mende honetan portugaldarren emigrazioa dela eta, bi momentu garrantzitsu gertatu ziren. Lehenengoa 20. hamarkada inguruetan eta bigarrena 60. hamarkadan.

## LEHEN TXANDA

Emigrazioak Brasilerantz jarraituko du. Ez da aurreko mendeetan gertaturiko emigrazio inperialista izango, orain langileen, lana egiteko asmotan doazen pertsonaz osatutako taldearena baizik.

Nahiz eta Amerikara joateko joerak jarraitu, Europak hartuko du mende honetan benetako protagonismoa.

Lehen Munduko Gerran Portugal, Frantzia eta Britainia Handiarekin batera arituko da. Hau dela eta Portugaletik Frantziarantz soldaduak eta langileak ere joan ziren.

1916. urteko urriaren 28ko akordioan, Portugalek zin egin zuen 10.000 langile bidaliko zituela Frantziara.

1.918. urtean, 13.800 langile bertaratu ziren eta hauetako 7.300ek agindutako lanak bukatu ondoren, Portugalera igorriak izan ziren.

Langileez gain, 30.000 portugaldar soldadu Pas de Calais-era joan ziren hauetako 7.000 hilik gertatu zirelarik.

1.918. urteko uztailak 14an, Frantziako Lehendakariak, Raymond Poincaré-k, Portugaleko Lehendakariari zera idatzi zion :

“L’amitié du Portugal est très chère à la France. Les braves soldats de votre République ont été acclamés par le peuple de Paris, le nom des Portugais a été donné à une rue de la cité...”

Izugarria !!! 7.000 pertsona gudan hil ziren eta Lehendakari batek (gizon bat besterik ez!) beste Lehendakari bati (beste gizon bat, besterik ez!), eskerrak eman eta soldaduen ohorez kale bati Portugal izena jarri ? Eta kitto????

Eta hildako familiei????

Kolovich-ek (1996) dioenez, 1.921. urtetik 1.931. urte arte, Frantzian zeuden portugaldarrak 11.000 izatetik 50.000 bat izatera pasa zen.

1926. urteko maiatzean, Portugalen militarren kolpea gertatu zen . Gomes da Costa jeneralak estatu kolpea eman zuen eta ia 50 urte iraun zuen diktaduraren garaiari hasiera eman zion. Ondorioz jende dexente lurraldetik Brasil eta Frantziarantz ihes joan zen.

Emigrazio hau politika kontuak zirela eta gertatu zen eta zenbait kasuetan Frantziara joatea beste lurralde batzuetara iristeko , Brasilerara askotan, pasadizoa besterik ez zen izan.

## **BIGARREN TXANDA**

Oscar Carmona militarrek Gomez da Costa jenerala ordezkatu zuen boterean, 1951 arte kargua mantenduz. Bitartean, António de Oliveira Salazar 1968. urte bitarte gobernuburu bilakatu zelarik .

Diktadura garaian , 1960. hamarkadaren inguruan portugaldarren emigrazio handia gertatu zen. Portugaleko zonalde erdiak biztanleriaren %20an jaitsi zenaren datuak Volovitch-ek (1996) eskuratzen digu .

Urteak zehaztuz, emigrazio gehiena 1956. urtetik hasi eta 1974. urte bitartean gertatu zela esan daiteke.

Denboraldi honetan, milaka portugaldarrek Europako lurraldeetara emigratu zuten. Hauetako gehienak, 900.000 nonbait, Frantziara.

1964. urteko urtarrileko 28an, 64-99 dekretua idatzi zen. Bertan Frantziak eta Portugalek sinatu zuten migrazioari eta langileri portugaldarrei buruzko akordioa.

Baina dekretu hau azaldu baino lehen portugaldarren emigrazioa hiru erara egiten zen :

- lan kontratu pertsonalen bitartez. Nagusi frantses batek portugaldar zehatz bati egiten zion lan kontratua. Antzekoa gertatzen zen urte hauetan ere Amerikara joan ziren euskaldunen artean. Amerikatik izen-abizenekin zetozen lan kontratuak. Hango nagusiak euskaldun zehatz bati egiten zion lan kontratua. Bi kasuetan, portugaldarrena eta euskaldunena, ahoz-ahoko metodoak balio zuen . Emigrazioa jasotzen zuen lurraldean lana egiten zuen pertsonak familiako baten edo herriko lagunen baten izena aipatuko zuen, langile berri honen zintzotasunaz kargu eginez.
  
- turista pasaportea lortuz. Ez zen erraza hau lortzea. Portugalen emakume bat ezagutu nuen pasaporte honetaz baliaturik Frantziara joan zena. Berak esan zidanez, bere lagun minaren anaiak administrazioan egiten zuen lan eta mutil honen bitartez lortu zuen. Behin Frantzian egonda, pasaporte hau eskuz esku ibili zen beste

emakume askok muga pasa zezaten. Kontuak kontatzen portugesez hasi zen baina nik frantsesez hobeto ulertuko niola eta, hizkuntza honetan zera esan zidan :

“ Il y avait un frère à une amie à moi. Et je savais que mon amie était partie avec un passeport turiste. Valivilité 5 ans. Moi j'étais à Lisbonne et quand mes frères et soeurs m'on écrit en me disant qu'ils gagnaient beaucoup d'argent et tout cela.... Je voulais partir.

Alors je suis allée à Guarda et un mois après j'avais mon passeport. Et je suis partie avec la famille à Paris. Là bas je connu mon mari... C'était une fleche!!! Paris... mon mari....!!!!

Le passeport était valable 5 ans. Mais il fallait connaître quelqu'un d'assez haut placé pour ça. Moi toute seule, jeune fille, 18 ans.... Que j'arrive à Guarda, que je remplisse les papiers pour avoir le passeport.... M'auraient dit.... Non!!!

( baina bere lagunaren anaiak bazuen lagun bat Erregistro Zibilean lana egiten zuena eta hari esker pasaporte eskuratu zuen )

En 65 il y avait passeport turiste. Je suis passée par quelqu'un d'important.!!!

Je suis allée par Irun, oui. Mais comme turiste. “

«NOTÍCIAS DE MELGAÇO» 3

---

## Viagens MELGAÇO-PARIS

---

António Piña Anton,  
Concessionário das Carreiras Internacionais entre  
Espanha e França

e

João Hilário Gonçalves.

seu representante em Portugal, comunicam que houve  
uma pequena alteração nos dias de saída,  
passando a efectuar-se

**Todas as Terças e Quintas-feiras**

★ A Viagem mais cómoda pelo caminho mais económico!... ★

Para informações:

Melgaço: - João Hilário Gonçalves - Telef. 42308

Arcos de Valdevez: - Salvador Alves Pereira - Telef. 45116

Paris: - Hotel Moncey - Rue Blanche - Tel. Trinite 8220 e 8221

*Turista pasaportea lortu ez gero, Frantzira joateko bidai agentziak bazeuden.*

Arriskua ere bazegoen. 1961. urteko Martxoaren 23 Diario Vasco egunkarian portugaldar batzuen atxiloketaz idatzi zuten :

“ En Behobie (Francia) han sido detenidos dos súbditos portugueses de 41 y 18 años, que dotados de falsos pasaportes intentaban penetrar en Francia en un autocar turista.”



- Gehienak isilpean, ilegal. 1960. urte arte, legalki emigratu zutenak, ilegalki egin zutenak baino gehiago izan ziren . 1947. urtean sorturiko Junta de Emigração-k eskaturiko pasaporteak banatzen zituen, baina 1960. urtetik aurrera pasaporteak eskuratzeko bete behar ziren baldintzak oso gutxi betetzerik zutenenez, pasaportea ezin jaso . Gelditzen zen alternatiba, emigrazio ilegala izan zen.

Baganhak (1994) dioenez,

“ Nos anos 60, em que o volume dos clandestinos constituiu, aproximadamente, um terço do fluxo... na década seguinte altura em que o número de clandestinos foi superior ao legal...”

Pereirak berriz (2010) , 1957-74 urte bitarte haietan milioi bat portugaldarrek lurraldea utziz Europarantz jo zutela dio. Hauetatik

“ 900.000 portugais sont venus en France, dont 550.000 de manière irrégulière .”

Zaila da zenbakiz gertaturiko emigrazio sakona islatzea. Zaila ere kopuru handi bat ilegala izan zelako, beraz arrasto idatzirik ez. Kalkuluak bakarrik.

Baganhak Boletim Anual da SECP erabiliz, 1960-69 bitartean Portugaldik 521.576 pertsonak emigratu zutela dio. Hurrengo hamarkadan (70-79) 330.400 . Biak batuz 851.976 pertsona.

Baganharen hitzak kontuan hartzen baditugu, “ o volume dos clandestinos constituiu...um terço...”, 255.592 portugaldarrek 1960-1979 bitartean a salto mugak zeharkatu zituzten.

Nire ikerketaren denbora muga 1960. hamarkada da. Baganhak garai honetako emigranteen kopurua miloi erdi pasa dela dio eta hauetako herena, 156.472 ilegala.

Gutxiegi iruditzen zait.

Bestalde, eta ikertzaile berarekin jarraituz, Frantziaruntzeko portugaldarren emigrazioa aztertzeko ONiko Statistiques de l'immigration-ek eskuratutako datuak erabili zituen. Hauen arabera, Frantziara 1960-70 bitarte 603.732 portugaldar joan zirela ziurtatzen da. Herena ilegal sartu baziren, 201.244 izanen ziren.

Gutxiegi nire ustez.

Zaila da beraz, egia non dagoen esaten. Baganhak 200.000 mila inguru kalkulatu duen bitartean, Pereirak 500.000 pasa izan zirela a salto muga gainditu zutenak dio.

Aldea dago.

Nire ikerketak hasi bezain pronto lekukoak, garaiko ia edozein pertsonen mingainetatik “hagitz aunitz pasa ziren”, “pilaka”, “buf! Izugarri!”, “bideak larrutzen ziren!”, “usoak bezala”, “ez dakit zenbat miñon urtetan aunitz”, .... Entzun izan ditut.

Eta ikerketak aurrera joan ahala Pereiraren datuekin bat egitea errazago zait Baganharekin baino. Miloi erdi portugaldar gure mugatik isilpean, pasaportetik gabe pasatu direla pentsatzea, ez zait erokeria iruditzen.

Baina zeintzuk ziren ba pasaportea lortzeko bete beharreko ziren baldintza zail hauek?

- beraien identitatea frogatu behar zuten
- osasun fisiko eta mental ona zutenaren agiria behar zuten
- ezkondata ziren emakumeek eta 21 urte baino gutxiko pertsonak senarraren edo gurasoen baimena behar zuten
- moralitate oneko pertsona zenaren agiria azaldu behar zuten
- lanbide gaitasunaren agerpena behar zen
- eskolatua zenaren dokumentazioa eskuratu behar zen.

Emigratu nahi zuten askok, gehienak , eskaturiko baldintza hauetakoren bat ez zuten betetzen.

Norberaren identitatea frogatu ondoren, osasun fisiko eta mental ona zutela azaltzea ez zen zaila izaten, baina moralitate jarrera positiboak zituztela nola baloratu? Agintarien eta apaizen esku gelditzen zen. Herri txikitako pertsonak ziren gehienbat agiriak lortu nahi zituztenak . Apaiza, familiak, estatuko langileria... denak elkar ezagutzen zutenek moralitate kontuak guztiz subjektiboak izaten ziren. Beraz, agiri positibo bat lortzeko, askotan dirua izaten zen erabilitako bitartekoa. Non gelditzen zen agintearen moralitatea?

Bestalde, lanbidearen gaitasuna frogatzeko agiri bat lortu behar zen eta diplomarik ez bazuten, diru bidez lortzerik zegoela ziurtatzen didate.

Eta azkenik, eskolatua zenaren agiria. Hau izaten zen eskuratzeko baldintzarik zailena.

1957. urteko datuen arabera, Portugaleko biztanleriaren % 40,4 a eskolatu gabea zen. Eskolatu gabea, hau da eskolara joaten ez zena. Joaten zirenen artean, ez zen eskolaratze erregular bat izaten. Segun eta etxean nolako lanak izan hala joanen ziren edo ez eskolara.

Beno, ez zaigu egoera hain arrotza egiten. Nafarroan 1900. urtean gizonezkoen artean %40ak ez zuen eskolarik. Emakumeen artean gehiago ziren eskola gabekoak, %56. Espainiako guda zibila ondorengo mutil eta neska gehienak gehiago edo gutxiago eskolara agertzen ziren. Agertu diot, askotan eskolaratze erregularra ez baitzen izaten.

Aparteko kasuak gertatzen ziren, esaterako Nafarroako Arantzan. Esteban Irigoien apaiza bertara erretore lanak egitera joan zenean, herriaren analfabetismo nabarmenak guztiz hunkitu zuen. Bertako haurrak ez omen ziren eskolara joaten eta gutxi batzuk izan ezik, ez omen zekiten bere izenez sinatzen ere. Eskola ematera joaten ziren irakasleak ezer gutxi irauten omen zuten, inolako formalidaderik ez omen zegoen eskola kontuetan.

Pasaportea eskuratzea zaila zela argi dago. Baldintzak betetzea ez zegoen edozeinen esku. Bestalde, pasaportea egiteko aurkezturiko baldintzak onartzea edo ez erabakitzeak administrazioak sekulako denbora igarotzen zuen. Ez omen zen arraro suertatzen 6 hilabetetik urte betera itxaron behar izatea pasaporte santu hura jasoko ote zuten edo ez jakiteko. Zenbait kasuetan, langile portugaldarrak bere izenean jasotako lan kontratua izaten zuten, lantokira, Frantzian zegoen lantokira joan besterik ez lanean hasteko.

Frantziara joateko pasaportea behar izaten zuten baina esan bezala edo eskatutako baldintza guztiak ezin bete edo bete arren paperak jasotzeak denbora luzea eskatzen zuen. Lan kontratuari itxaroten egotea ezin zitzaion eskatu, beraz askotan, gehienetan, paperik, pasaportetik gabe, isilpean joatea erabakitzen zuten. Ironiaz, “untxi pasaportea” erabiliz, a salto, hau da salto batez muga pasaturik emigratzen zutela esaten dute.

## **Salazar eta Portugaleko gerra Afrikan.**

Jatorriz abizen euskalduna zuen diktadorearen agintean bizi ziren milaka portugaldarrek Euskal Herriko mugak isilpean euskaldun mugalarien medioz zeharkatu zuten.

Ba, jatorriz euskaldun abizena zuen , **António de Oliveira Salazar** ([Santa Comba Dão](#), [Viseu](#), [1889ko apirilaren 28a](#) — [Lisboa](#), [1970eko uztailaren 27a](#)) politikari eta diktadore [portugaldarra](#) izan zen, [Coimbrako Unibertsitatean](#) irakasle ere ibili izan zena. [1932tik 1968](#) arteko agintaldia nagusikeriaz burutu zuen.

Salazarren politikaren aurka zeudenak exiliatu behar izan zuten baina politika kontuengatik ihes egin eta atzerrian bizitu ziren pertsona hauek ez zuten miseria ekonomikotik ihes egin zutenekin harremanik apenas izaten.

[Espainiako Gerra Zibilean](#) modu aktiboan [Francisco Francoren](#) alde egin zuen, baina [Bigarren Mundu Gerran](#) jarrera neutralari eusten saiatu zen.

Salazarren aginpe garaian Afrikan kolonizatu ziren lurraldeen matxidanak gertatu ziren.

Portugaleko agintarientzat, Afrikan dauden Ginea, Angola eta Mozambique probintzi portugaldarrak ziren.

Aldez aurretik esan dugu XV. mende inguru haietan portugaldarren kolonizazioak nolakoak izan ziren.

Ba garai haietatik zetorren Ginea, Angola eta Mozambikeren jabe zirela pentsatzea.

Baina lurralde hauetako biztanle askok ez zuten berdin pentsatzen eta gatazkak sortu ziren. Portugal aldetik afrikar lurraldeak atxiki nahiak eta bestetik Portugaldik berezitu nahiak, elkar topo egin zuten. Bi nahiak kontrakoak zirenez, guda ere hasi zen.

Guda bat mantentzea garesti izaten da. Pertsonen sufrimendua da jasan eta ordain ezina baina Portugaleko agintariei ekonomikoki izandako galerak ziren inporta zitzaienak. Eta galerak izugarriak izan ziren. Estatuaren aurrekontuetako %40a Afrikan zuten gerra gastuetarako erabiltzen zen.

Portugalek Europako beste nazioei gero eta diru-laguntza gehiago eskatzen zirenez, gero eta zor handiagotan sartu zen.

1961. urtetik 1965. urte bitartean Portugalen kanpo zorra %50ean gehitu zen.

Portugal, garai hartan ez zen lurralde aberatsa eta guztiz pobretu zen guda hauek zirela medio.

Pertsonen sufrimenduak aipatu ditut. Familia askotan, mutil gazteren bat Afrikan zegoen lurralde ezezagun batera gatazka gordinera joan behar izatea ez zen ontzat jotzen. Gudara joateko, mutil, gizon gazteak behar zituen estatu portugaldarrak.

Hortara behartzeko soldaduska denbora lau urte bitarte luzatu eta soldadu izateko adina 16 urtetan finkatzea pentsatu zuten. Lanerako sasoian dagoen mutil batentzat, gudan pasatzeko lau urte haiek luzeak ziren. Luzeak eta inolako zentzurik gabekoak. Bestalde 16 urteko seme bat Afrikara joatea guda batean parte hartzeko... disparatea!

Hainbat familia portugaldar desesperatuak izan ziren. Eta desesperazioaren aurreko erabakia nola-hala emigratzea izan zen. Pasaporte legalki ezin lortu . Gelditzen zen irteera bakarra, isilpeko emigrazioa izan zen.

Joao Lajeosa-n bizi zen mutil bati soldaduska egiteko tenorea iritsi zitzaion. Ez zen nolana hiko soldaduska hau, gerrara joatea behartuta zegoen. Desesperazio hartan Navasfríasen bizi zen pasatzaile batekin harremanetan jarri nahi zuten familiakoek :

“Me acuerdo de un chico de Lajeosa, que tendrá ahora 70 años, era hijo único, y su madre venía todos los días llorando a mi casa ¡que me lo van a matar, por favor llevarlo, que lo van a matar! Y mi madre que no podía hacer nada. Pues al final se fue el padre con él. Para no dejarlo sólo se fue con él. Incluso seguiran viviendo por allí.”

Joaren antzera gudatik ihes egin nahian 100.000tik gora gaztek emigratu zuela kalkulatu du Assoulinek (1996).

Portugaleko armadak, gudak iraun zuen urteetan (1961-1974) 150.000 gazteek ez zuela soldaduska egin salatu zuen.

Salazar eta bere gobernuak ez zuen bere gain hartzen gertatzen ari zen emigrazioa. Beraien ustez, klandestinoki egiten zenez, ez zen bere ardura. Emigratzea demoniatu eta manipulatu egin zen.

Gobernuaren mezua emigratzaileak traidoreak zirela izan zen. Traidoreak Afrikan zeuden Portugalgo lurraldeak ez defendatzeagatik. Traidoreak gudara ez joateagatik. Traidoreak gosete eta miseriatik ihes egiteagatik.

Traidoretzat jotzen ziren bai baina traidoreen dibisak gustura jasotzen ziren gero.

Salazarrek isilpeko emigrazioa benetan gelditu nahi izan bazuen, bitarteko zorrotzak edo jada zeuden legeak zorrozki betearazteko zituen, baina ez zen horrela izan. Itxura besterik ez zen izan.

Azken finean, berari, bere gobernuari ere ongi zetorkion antzerki hura guztia.

1962ko otsailak 6an Portugaleko Barne Ministroak poliziei dokumentu bateko zati bat luzatzen die isilpeko emigrazioa bukatu behar zela esanez. Baina ez zen efektiboa izan eta hilabete batzuk pasa ondoren, berriro insistitu zuen. Kasurik ez.

1972. urtean Barne Ministroa zen Gonçalves Rapazote-k Espainiako poliziak, Portugalgoak baino emigratzaile ilegal gehiago atxilotzen zuela salatu zuen. Zergatik hau?

Alde batetik testigantzen bitartez lortutako informazioak pasatzaileek polizien ikus eza erosten zutela diote.

Bestalde, Pereiraren esanetan (2005) “ el fenómeno clandestino constituía en la práctica un instrumento manejado por una parte de los dirigentes portugueses con vistas a proteger la supervivencia del régimen dictatorial.”

Hau hala bazen, sistemaren maltzurutasun beltza erakusten du.


Hamaika dokumentu dago non emigranteei leporatzen zaien patriotismo eza eta bide errazena hartzea. Estatuak isilpeko emigrazioa demoniatu eta kriminalizatzen zuen baina egoerari ateak ixteko bitarteko handirik ez zuen jartzen. Alde batetik sekulakoak esan eta bestetik ateak irekiak utzi. Lehen esandakoa, itxura besterik ez zen.



Emigrazioaren aurka azaltzen ziren, ezin bestelakorik egin talde kontserbadoreak lasaitzeko noski . Baina emigrazioa, emigranteak dibisak, Portugalek hainbeste behar zituen dibisak eskuratzeko erabiliak izan ziren. Manipulazio zital hutsa.

1974 ko Apirilaren 25ean Revolucao dos cravos (krabelinen iraultza) gertatu zen, ia 50 urteko diktadura bertan behera utziz. Urte honen inguruan, lehentxoago ere, Frantziaruntzeko emigrazioaren beherakada eman zen.

### **Portugaldarrak Frantziara**



*Noticias de Melgaço egunkaria. 1965eko Ekainaren 20ean.*

Bi arrazoi nagusi daude emigrazio honetan : Alde batetik militarra , bestetik ekonomikoa. Askotan biak elkarturik ere gertatzen ziren.

Lehenengoari buruzko aipamenak eginak ditugunez, bigarrenari ekingo diogu.

Portugal eta Frantzia dira protagonistak nagusiki . Portugalen miseria, gosea, langabezia zirenean nagusi, Frantziak langileak behar zituen.

Portugaldarrak baino lehen, italiarrak eta espainolak joanak izan ziren. Baina poliki-poliki pertsona hauen emigrazioa gutxituz joan zen eta nonbaitetik langileria lortu behar zuen Frantziak.

Portugaldarrak maitatuak ziren , langileak ziren neurrian . Nagusiei ez zieten arazorik ematen, alderantziz, lan asko eta kexarik gabe egiten zuela diote. Sindikatuek egoera honetaz bai kexatzen direla :

“Les Portugais sont pour nous une très mauvaise clientèle. Ils s’estiment contents de leur sort et le syndicalisme n’a jamais marché avec les gens satisfaits.”

Le Monde egunkarian (1963-V-25) zera idatzi zen :

“ Il n’y a jamais d’histoire avec eux, entend-on un peu partout. Ils sont venus pour travailler et gagner le plus d’argent possible qu’ils envoient régulièrement chez eux. Le reste ne l’intéresse pas.”

Nire ustez, beldurrak ere bazuen bere eragina. Asko kostatu zitzaien portugaldar hauei Frantziara iritsi, lana lortu eta miseriatik ateratzea. Jabearen aurrean kexatzea ez zegoen beraien asmotan. Nahiz eta Frantzian egoera txarrak bizitu, beti izaten zuten etorkizun hobe baten itxaropena.

Beraz, portugaldar langileria Frantzian estimatua izaten zen. Langile hauek lortzeko nagusi frantsesak Lan ministerioan langile eskaera bat egiten zuten. Bertan lan mota eta langilearen nazionalitatearen aipamenak idazten zituen. Nazionalitateaz gain, gehienetan zein langile izan nahiko zuten idazten zen. Hau da, izen abizenekin. Nominatiboa alegia.

Eskaerak Office National d'Immigration zelakoan bideratzen ziren .

Zenbait urtetan Frantziak eta Portugalek lan akordiorik ez zutenez, Portugaleko Junta d'emigração-k hartzen zuen ardura.

Eskaerak gainezka suertatu ziren. 460 izan ziren 1954an, 6.716 1961ean eta hurrengo urtean 12.916.

Baina zenbaki hauek emigrazio eta lan kontratu mota bat besterik ez dute azaltzen.

Aipatutako 12.916 eskaera haietatik , 6.900 soilik Juntatik egin ziren. Hauek bai, lan kontratu legalekin Frantziara joan ziren . Besteak muga gainditu eta gero legalizatu zuten lan kontratua.

Kontrako zerbait gertatu zen 1967ko azaroaren 3an António Manuel Baptista Junta da emigração-ko lehendakariak Alfredo Santos Junior Barne Ministroari dokumentu bat idatzi eta beranduago erabaki zenarekin. Frantziako Office National d'Immigrationetik 1.200 langileentzako lan

eskaria luzatzen zela adierazten zen. 1.200 lan eskaintza hauetatik 300 nekazaritzan aritzeko ziren.

Hor ibili ziren eztabaidetan... 1967. urteko maiatzaren 30ean nekazari langileei eta beste motatako langileei emigratzeko arauak zirela eta Frantziako eskariari ezezkoaren erantzuna ematea erabaki zen.

Aurrera jarraituz, 1968.urtean, 62an baino 10 aldiz portugaldar gehiago zeuden Frantzian, 500.000 alegia.

1969. urtean 120.000 portugaldar (langile eta familia kideak) Frantzian bizitzen hasi ziren. Hurrengo urtean kopuru berdintsua izan zen.

Hamar urtez, Frantzia 50.000 portugaldar izatetik, 700.000 baino gehiago izatera pasa zen.

Victor Pereiraren esanetan, kopurua 900.000 koa izan zen. Hauetako gehienak, isilpeko emigrazioa erabiliz bertaratuak.

1971. urtetik aurrera kopurua nabarmen jaitsiz joan zen.

Ilegalitatea, isilpeko emigrazioa normaltasuna bihurtu zen. Ilegala zenez, zigortua zela esan dezakegu. Baina joko, joko zikin bat besterik ez zen. Kaltetuak miseriatik edo-eta gerratik ihes egin nahi zuten portugaldarrak.

Agintariak Portugalek jasaten ari zen ekonomia ahulari ez zioten aurre egiten. Bestalde, Afrikan zituzten koloniek independentzia lortu nahi zuten eta agintarien ustetan, egoera honi aurre egin behar zitzaion. Hala guda etengabe batean hasi eta jarraitu zuten. Jende gaztea bertaratu zuten. Egoera honetatik ere ihes egin nahian, Frantzia izan zitekeen irtenbidea.

Beraz 60. hamarkada inguruan, Portugaldik emigratzeko baziren gutxienez bi zergati : behar ekonomikoak eta bete behar militarrei uko egiteak.

Garai haietan, Frantzian lana aurkitzea ez zen zaila : nekazaritzan, oihan ustiaketan, Michelinen, igeltsero lanetan, “travaux publics”-en,...

Le paria aldizkarian (1970ko Maiatzean), M. Vaz-ek “ Citroën a les dents longues, beaucoup de camarades portugais qui passent la frontière sans papiers ont peut-être ramassés par la police française ou espagnole et d'être renvoyés au Portugal. Il se trouve que la police même d'Hendaye leur donne l'adresse de Citroën pour qu'ils y aillent directement. Quand ils arrivent à Paris, Citroën les prend et les met au boulot sans leur faire passer la visite médicale.” idatzi zuen.

Langile portugaldarren kopurua handia zenez, eta hauetako gehienak Frantziara iristeko egoera ilegalak erabiltzen zituztenez, Frantziako Ministere Interieureko Roger Frey-k 1967. urteko otsailaren 14an eskutitz interesgarri bat sinatu zuen non besteak beste “ ne pas prendre de poursuites pour entrée clandestine” idazten duen.

Portugaldar klandestino bat aurkituz gero, “les clandestins portugais découverts la frontière ou à l'intérieur du territoire doivent être dirigés sur le service de la main d'oeuvre étrangère de votre département en vue placement”. Hau da, aurkitutako klandestinoak ez dira Portugalera bueltan igorriko, hurrengo pausua atzerriko lan bulegora joatea izanen da. Ez hori bakarrik, baizik eta “ ils seront invités à poursuivre leur voyage vers le lieu de destination projeté.”

Frantziako agintariak eta ekonomiaz arduratzen zirenak , portugaldarren lana interesatzen zitzairen eta bertara zitezten ahaleginak egiten zituztela frogatzeko, eskutitza honen testigantza dugu.

Portugaldarren ilegalitatea berdin zitzairen. Frantzian langile hauek nola sartu zireneko historia atzean gelditzen zen . Ez aldiz pasatzaileen historia. Hauen aurka bai joko zutela : “ Il vous appartient d’entreprendre des poursuites à l’encontre des passeurs ou des transporteurs clandestins portugais. Envisager notamment l’application des sanctions prévues par la loi du 14 avril 1952 sur la coordination et l’hermonisation des transports ferroviaires et routiers.”

Españako lurra Portugal eta Frantzia artean zeuden . Portugaldar ilegalak Españako aginteak atxilotzen bazituzten, nire ustez Salazarrek egin beharreko lanak espainiarrek betetzen ari zituzten. Salazarrek ez ba zuen bere lurraldetik jendea ateratzea nahi, ez al zen bere lana bertan edukitzeko bitartekoak jartzea ? Españari portugaldarrak bere lurraldetik pasatzea edo ez bost axolako zitzaiola pentsatzen dut. Beno bost axola ez. Hauek atxilotu ez gero lana besterik ez zegoen : lan administratiboa eta mantenu lana .

Eta azken finean, atxilotu nahi zituztenak pasatzaileak ziren.

Hala, Españako gobernuak portugaldarrei hilabete bat lurraldean egoteko baimen txartela 1966etik aurrera ematen zieten. Modu honetan pasatzaileen beharrik ez zutela izanen pentsatzen zen. Baina lineek martxan jarraitu zuten.

Frantziako egunkari batean zera irakur zitekeen :

“ Les autorités espagnoles ont décidé d’appliquer des mesures pour tenter de mettre fin à l’exploitation humaine dont sont victimes de

malheureux travailleurs portugais qui ayant réussi à entrer en Espagne et voulant passer en France sont une proie pour les filières de passeurs leur faisant payer très cher un passage clandestin en France, justifiant les prix élevés par d'immaginaires difficultés voire dangers.

Nous avons relaté récemment l'arrestation de dix passeurs d'une chaîne qui exigeaient de 25 à 40.000 anciens francs pour un passage.

Les autorités espagnoles indignées par ce manque de scrupules et cette exploitation et sachant que du côté français l'interception de portugais par les gendarmes et polices se borne à l'établissement d'une fiche d'identité puis dirigent les clandestins vers un centre de main-d'oeuvre, viennent de mettre en application des facilités pour les portugais arrivant en Espagne. Ces portugais entrés clandestinement en Espagne se verront décerner un permis de séjour de un mois....”

Artikuluan egoera oso garbi azaltzen da : Españako agintariak portugaldarren egoeraz kezkatuta daude. Kezkatuta pasatzaile maltzurren esku daude eta. Bestalde, Españako gobernuak Frantziakoak portugaldarrak esku zabalik jasotzen dituela jakinik.... Zertarako eta zergatik zorrotz jokatu portugaldarren aurka ? ez du zentzurik. Beraz, gehienez hilabete bat Españako lurraldeetan egoteko baimena eskuratzea pentsatzen dute.

Eta lehen egindako lan errepresiboak, zertarako ? Salazarren gobernuak egoera manipulatu Españako gobernuak nolabait erabili zuela uste dut.

Frantziak langileak behar zituen. Portugalen ez zegoen lanik. Espainia eta Euskal Herriko mugak tartean.

Portugalgo agintariak emigratzeari uko egiten zioten baina langile hauek dibisak sorlekura bidaltzen hasi zirenean gustura egokitzen ziren egoera

hartara. Frantziatik Portugalera igorritako diru kopurua handia izan zen. Eta honen aurrean gobernuak ez zuen deus esaten.

Diru honi esker, familia asko, pertsona asko hasi zen Portugalen duintasunez bizitzen. Eta hau horrela izanik, Portugalgo agintariak publikoki ez erran arren, egoeraz ongi asko jabetzen ziren. Bai noski!

Beraz, ongi Portugalentzat, ongi Frantziarentzat. Ongi gure protagonistentzat?

### **Ordainketa**

1960. hamarkadaren zehar emigratu nahi zutenek diru kopuru desberdina ordaindu zuten. Eta ez zen izan urteak aurrera joan ahala garestiago . Ez.

Arrisku posiblearen baitan zegoen jarrita tarifa. Dena den, nire testigantzak ez datoz bat bidaiaren zenbatekoa izan zen esaterakoan.

Portugalen langile batek urte batez irabazten zuena erabiliko zen ordainketa egiteko.

Urte batez irabazitako soldata, bizi berri baten ametsa lortzeko erabiliko zen. Ezarpen bat zen, inbertsioa. Tarifak mugak pasatzea, garraiobideak eta behar ziren janariak betetzen zuen. Behin Frantziara iritsiz gero, lana zeukatenez, diru itzulketa egiterik bazuten.

Portugalen , hileko 150 franko irabazten zenean , Frantzian hileko 600-800 arte biltzerik izaten zuten. Gutxi botata, Portugalen baino lau aldiz gehiago hilabeteko.

Frantzian gastuak ere baziren, baina gero irakur daitekeen testigantzaren arabera, zuhur biziz, portugaldar batek bere etxera bertan irabaziko lukeen baino doblea bidaltzerik bazuen. Tentagarria. Asko zen.



Lana gogorra izan zitekeen, bizi baldintza txarrak baina... bere familia duintasunez mantentzeko gai zirenaren froga hilabetero bidaltzen zuten dirua zela eta gauzatzen zen.

Aipaturiko lekuko batetaz ari dira :

“Il ne pensera désormais qu’à une seule chose, travailler, travailler, gagner de l’argent, encore de l’argent. Amasser goulument ces billets tout-puissants pour lesquels i la fait tant de kilomètres. Il gagnera 600 francs par mois, ile n gardera 250 pour lui et envera ler este à Vila Viçosa. Là bas, 350 francs, cela fait plus de 2.000 escudos, c’est beaucoup.”

Baina askotan familiek ez zuten eskura bidaia ordaintzeko behar zen dirua. Zer egin ? Edo ondasunak saldu edo kreditu bat eskatu.

Ribeiroren aitak 16 urteko semeak emigratu zezan “coutada”, belagia saldu zuen.

Kreditua eskatzen zutenek ezin banketxetara joan eta pertsona pribatuengana jotzen zuten. Noski, nola joanen zen isilpean emigratu nahi zuen pertsona banketxe batera kreditua eskatzera ? Ezinezkoa.

Horregatik , herrixketan bazeuden hainbat pertsona dirua utzi eta gero, emigratzaileek Frantzian lanean hasi ondoren, interesekin itzultzeko mailegua egiten zutenak.

Bidaian arazoak edukitzea gerta zitekeen , harrapatuak eta Portugalerat igorriak adibidez. Kasu hauetan dirua ezin zuten bueltatu. Zer egin ? Berrito diru mailegua eskatuz, berriro ere bidaia egiteko prozesua hastea zen askotan izandako erabakia.

Oraingo honetan beldurra eta ziurtasun ezak gaindiezina hartzeko arriskua izaten zuen.

Dirua engadoren etxean edo konfiantzako familia baten etxean uzten zen. Honekin batera emigratuko zuenaren argazki baten erdia. Beste erdia berarekin , berak eramango zuen. Helmugara iristerakoan bertaratu zuenari emango zion berak zeramatzan argazki erdia eta kontrako bidaia eginez, Portugalera iritsiko zen. Han, bi erdiak bat egiten zuten frogatuz, dirua emango zitzaion argazki erdiaren eramaileari. Honen gain gero bere kontuak egitea : behar izan zituen pasatzaileei ordaindu, janariak ordaindu, garraioak ordaindu....

Sistema hau gehiegikeriak gertatu eta Portugalen salatu ondoren erabiltzen hasi zen. Entzunak eta egiak izan ziren hainbat ezbehar : dirua ordaindu eta gero abandonaturik suertatutakoak, tratu txarrak jasanak, bi orduko bidea oinez egin behar zela esan eta bi eguneko bide latzak igaroak...

Horrelakorik gertatuz gero, ez ordaintzearen aukera bazegoen.

Hala egin zuen aipaturiko Ribeiroren aitak. Honek, esan bezala, ondasunak salduz lortu zuen semeak emigratzeko behar zuen dirua .

Baina agindutakoa eta errealitatea bat ez zetorrenez, Ribeirok ez ordaintzea erabaki zuen. Nahiz eta esandakoa eta gertaturikoa bat ez etortzearen zergatiak esplikatu, Ribeiroren erabakia ez zen aldatu.

Eta noski, horrelakoetan arazoak izaten ziren.

Euskal Herriko mendiak zeharkatzerakoan ezusteak izan zirela dirudi.

Bide luzea, neketsua, ez adostutakoa... Mugalariak batzuetan ez zuten esaten esan beharreko guztia. Noski, hauek, mugalariak, argi eta garbi esanez gero oinez egin beharreko bide luzearen zehaztasunak... atzera

egingo zutenaren beldur ere izaten ziren. Beraz, isilik. Eta kasu hauetan kexak izaten ziren.

Mugalaria ordaintzen zuen euskaldun kontrabandista Portugalerat itzuli ondoren, dirurik ez zuela eskuratuko jakiten bazuen... mugalariaren kontrako haserrealdia izango zuen.

Ribeirok ordainduko ez zuela esan eta, linearen euskaldun nagusiak nola ordaindu katearen partaideak eta gastuak?

Horrelakoak gertatzen ziren.

Horregatik ez zitzaien interesatzen euskaldunei portugaldarrek kexarik izatea. Portugaldarrak ez ziren oso exigenteak izaten .

Baziren hainbat portugaldar, Euskal Herriko muga pasatzeko bakarrik ordaintzen zutenak. Hau da, Euskal Herriraino bere kabuz, trenez askotan etorri eta gero isilpean beste aldera pasatu eta trenez berriro ere helmugara joan nahi zutenak.

Coimbrako Antonio Vicentek horrela egin zuen.

1968ko urtean, 24 urte zituela Coimbratik Guardara trenez joan zen. Handik mugaraino taxi batez. Pasadore batekin Portugal-España muga gainditu ondoren , egun osoa ezkutaturik pasa zuen. Gauez, Ciudad Rodrigon trenean sartu eta Iruna ailegatu zen. Berriro ere mugalari baten medioz muga gainditu eta Hendaiara pasa zen.

Hemendik aurrera bide erraza zeukan. “En Hendaya había personas que tenían contrato de trabajo para trabajar en Francia. Se podía entrar.”

Sartreko olan lanean aritu zen.

Bidaia eta mugalariak zenbat kostatu zitzaion galdetzerakoan ez dela batere oroitzen dio. Garesti izan zela bai baina zehatz-mehatz zenbat, erabat ahaztuta dauka nonbait. Eta hau askori gertatzen zaie. Askok garesti

zela baina azken finean ongi erabilitako diruak zirela diote. Inbertsio ona dirudienez.



*Antonio eta lagun bat Vilar Formosoko ferian.*

Sud-Ouest egunkarian azken bidaia honen prezioak, gehiegizko prezioak, azaltzen ditu :

“ Les portugais payent jusqu’à 200.000 anciens francs un passage clandestin de la frontière franco-espagnole et leur acheminement jusqu’à Paris ou les grandes villes industrialisées de l’est de la France.”

200.000 anciens francs , 2000 franko berri ziren. Garai hartan frankoa 18-20 pezetetan bazegoen , 36.000-40.000 pezetako balioa izan zezakeen Euskal Herriko muga pasatzeak. Gaur egungo, 200- 240 euro. Dena gutxi gora behera.

1960. urtean Renault 4x4 batek 80.000 pezetan balio zuen.

1956. urtean eraikuntzan aritzen zen Irungo langile batek 50 pezeta irabazten zuen eguneko.

Zenbakiz , matematika zenbakiz, hauxe. Baina diru kontua ezin da erraz baloratu. Ez da zenbakia bakarrik kontuan hartu behar, diruak garai hartan zuen balioa baizik.

Jean de Labrit kazetariak 80.000-100.000 anciens francs muga pasatzeagatik ordaintzen zela dio. Hau da, 800-1000 franko berri, 15.000 pezeta, 90 bat euro.

Zenbakiak ez datoz bat. Lehenengo kazetariak doblea ordaintzen zela dio. Nire ustez, gehiegikerien ondorioz gerta zitekeen gehiegi kobratu izana. Mugara iristen ziren portugaldarrak helmugara, Parisera seguruen , iristeko antsietate ulergarriak eramanda, dirua izanez gero, eskatutako prezioa ordaintzeko prest zeuden.

Christian Rudel kazetariak, mugetako eremuetan gertaturiko gehiegikeriak salatu zituen :

“Quoi qu’il en soit, voici les Portugais en France, mais abandonnés. Ils s’en vont à l’aventure. Par petits groupes, apeurés, inquiets, méfiants. Ce qui ne les empêche pas de tomber dans les griffes du premier escroc venu. On cite toujours le cas de ce chauffeur de taxi qui demandait 25.000 anciens francs (30 euro) à ses victimes pour les amener d’Hendaye à Biarritz –la- Nègresse et acheter un billet. Sachant que le prix du billet pour Paris est de 8.000 anciens francs environ, on peut aussitôt déduire le

bénéfice par tête. Et tel autre qui demandait 50.000 anciens francs (60 euro) par tête pour le trajet Biarritz-Paris.”

Leok, 1960. urtean Fuentes de Oñorora bere Versailles kotxearekin joan, bertan 8 portugese sartu eta Parisera bidaia egitearen truke, 8.000 pezeta kobratzen zuen portugaldar bakoitzeko. Bidaia, janaria eta mugalariaren soldata (2.000 pezeta bakoitzeko) berak ordaindu behar zuen.

Beranduago “nafarrak” hasi zirela honetan eta 2.000 pezetara erdiitxi zela prezioa dio. Eta bai, hala izan zen. Baina ez nafarrak hasteagatik. 1965. urtean Espainia igarotzeko “salvo-conducto” lortzerik zegoelako baizik. Arriskua txikitu zenez, prezioa ere bai.

Leok arrazoia duela Legasako Migelek frogatu zidan, berak portugese bakoitzeko 6.000 pezeta kobratzen zuela esanez.

Kobratu gabe ere gelditu zen gizon hau. Lau bidaia kobratzeko, galduak dituela esan zuen. Lau bidai haietan 72 pertsona ekarriak izan ziren baina diruaren usaiarik ez.

Migelek muga zeharkatzeko mugalarien esku uzten zituen, hauei portugaldar bakoitzeko 1800-2000 pezeta ordainduz.

Portugalen jakin nuenez, 1960. urtean, 9.000 eskudo uzten ziren “depositoan” konfidantzako etxeetan. Hiru urte beranduago, 1963an, zenbait lineak prezioa 6.000 arte jeitsi zuten. Dirudienez, euskaldun gehiago gerturatu zen herrialde hartara azken urte hauetan. Orduan, 6.000tik hasi eta 9.000 bitarte ordaintzen zen.

Esan dugunez, 1965. urtean, Espainiako gobernuak azken finean bere lurraldetik portugaldarrak pasatzeak kalterik ez baina harrapatuz gero

Portugalerat itzularazteak dirua eta arazoak zekarrela konturaturik, salvo-conducto ematea erabaki zuen. Ez zen Espainiako gobernuaren arazoa Portugalgo biztanleria ihesi Frantziara joateko ateratzen bazen ..

Erraztasun horren ondorioz, 1969. urtean linea osoa egiteko 5.000-7.000 eskudo ordaintzen zela ziurtatu zidaten.

1963. urteko maiatzean , Le Monde egunkariak portugaldarren emigrazioaz hainbat idatzi plazaratu zuen. 26 eta 27koetan, beste ordainketa mota baten berri kaleratu zen.



Urte honetan eta nire lekukoek ere esan zidatenez, bidaia osoa egiteagatik 6.000 eskudo ordaintzen zen.

Emigratu nahi zuten portugaldarrentzat kopuru hau handia zenez, zatika bazuten ordaintzerik . Hala, 500-1.000 eskudo Portugaldik atera baino lehen ordaintzen zuten eta gero, Frantzian lanean hasi ondoren, hilero bere familiakoei dirua bidaliko zien, hauek zorra ordaindu zezaten.

Era hau konplikatua izan zitekeen. Hitzean oinarritzen zenez, inolako paper sinaturik gabe, ordainketa bere osotasunean egiten zela sinestea nahiko zaila egiten zaigu.

Garai batean portugaldarren artean hitzak balio osoa zuela ezin ahaztu. Euskaldunen artean hitza ematea eta betetzea legea zen.



## **PORTUGAL-ESPAINIA MUGA O SALTO**

Hainbat portugaldarrek sorlekua utzi eta mugak gaindituz Frantziara iritsi nahi zuten. Zerbitzu hau eskainiko zuten pertsonak bazeuden.

Negozio bat zen. Dirua irabazteko modu bat. Kontrabandista izandakoek jada erabilitako jakinduria, portugaldarrak muga gaindi zezaten erabiliko zuten.

Euskaldun kontrabandistak , Portuges kontrabandistak eta Español kontrabandistak aritu ziren zeregin hauetan.

Batzutan kate luzea izaten zen, pertsona askoz osaturiko katea. Baina beste batzutan nahiko pertsona gutxiz osaturikoa : Portugalen kontaktoak egiten zuen pertsona ( angariador ), muga pasatzen zuena ( pasador ) , España zeharkatuz emigratzaile ohiak Euskal Herriko mugara gerturatuko zituen euskalduna, Euskal Herriko muga pasatzen lagunduko zuen mugalaria eta azkenik helmugara ( Paris, Alemania, Lyon...) eramango zituen pertsona.

Bost epeko bidaia tipikoa horrela izan zitekeen. Baina batzuetan angariadorra eta pasadorea pertsona bera izan zitekeen, edo España-Portugal mugara gerturatzen zen euskaldunak helmugaraino eramango zituen edo euskaldun honek mugalari lanak egiterik zuen ...

Jean-Claude Guillebaud kazetariak bidai hauek osatzeko hiru zati nabarmentzen ditu :

“L’organisation des filières est en général toujours la même. Elles comportent trois tronçons. Au Portugal, l’engajador portugais sert de rabatteur, de “voyageur de commerce”. C’est lui qui enregistre les candidatures et le plus souvent d’ailleurs, c’est lui qui les suscite...”

Le deuxième tronçon est espagnol et c'est un second passeur qui fait franchir au convoi les quelques 600 kilomètres en territoire ibérique. Puis c'est un français qui termine la filière.”

Portugaldarren eramaileak zeintzuk ziren galdetuz, Guillebaud-en erantzuna , “ principalement des basques” zirela dio.

Erantzun honekin ados nago. Askotan euskaldunak izaten ziren Portugal inguruko “raya”-ra hurbildu eta handik Frantziaraino portugaldarrak eramango zituztenak. Garaiko portugaldarren isilpeko emigrazioan, euskaldunak, euskaldun kontrabandistak, zerikusi handia eta zuzena izan zuten. Ez ziren soilik espainolak izan lan hauetan aritutakoak, euskaldunak ere fuerte aritu ziren.

Ezin dugu esan sareak zirenik. Sarea izatearen kontzeptua oso antolatuta den sistema batena da eta harrigarria izanik, milaka pertsonen emigrazio klandestino prozesua ezin dezakegu esan modu antolatu-itxi batez egiten zenik.

Egiten ziren bideak bai Portugal barruan, bai España zeharkatzeko, bai mugak a salto egiteko, baita helmugara iristeko ere aldakorrak ziren. Helburua Portugaldik atera eta Frantziara iristea zela argi dago baina bitarte horretan bide desberdinak, estrategia desberdinak eta “sobre la marcha” gauzak aldatzen ziren. Eta aldaketa horiek egiteko erabakiak azkar hartuz sekulako erraztasuna azaltzen zuten.

Bide luze honetan zehar, jateko eta lo egiteko tokiak, etxeak, bordak, baserriak... mugalari-kontrabandista-pasador bakoitzak zituen. Baina hauek ere aldakorrak izan zitezkeen. Egia da bakoitzak “bereak” bazituela baina ez eskusiboki eta ez bakarrak. Esaterako, baserri batean mugalari desberdinetako portugaldarrak iristea ohikoa zen.

Erabilitako garraioak ere segun eta izango ziren. Hasieran kotxe handiez baliatzen ziren : Simca “Versalles”, Pato eta Tiburon izengoitiz

ezagututako Citroënak, Studebaker , Peugeot 403... Hauek indar handiko autoak izanik, maletero handia ere bazuten . Han pare bat portugaldar hala nola sartzen ziren.

Gero autobusez ekarri izan ohi zituzten baita doble fondo zuten kamioietan ere .

Autobusak pasaporteak, paperak zituzten emigrante ohiak Frantziara garraiatzeko erabili ziren. Bezeroak eskuratzeko, Portugalgo egunkarietan iragarkiak jartzen ziren. Gutxi batzuk pasaporteak lortzerik zutenez , autobusez legalki zihoazela itxura eginez, Frantziara iristen saiatzen ziren. Melgaçoeko egunkari batean iragarki hau argi eta garbi irakur zitekeen :

#### Vai para França?

Utilize os luxuosos Autocarros da Empresa de Ponte Bargas, de Joaquim Pigarra.

Melgaço-Paris... 550S00

Con saídas em : Janeiro, dias 14 e 28

Fevereiro, dias 16 e 25

Março, dias 11 e 25

Veinte e cinco viagens de Melgaço a Paris no período de un ano, são o sinónimo de Experiencia e Confiança.

Para informações e marcação de lugares dirija-se a

João Hilário Gonçalves

Telef. 8- Melgaço.

Ohar garrantzitsu bat : Ponte Barjas Españako aldean dago, Melgaço berriz Portugalekoan.

Melgaçoko gizon batek modu honetaz joango zela erabaki eta bere txartela erosi zuen. Guardia Civilak autobusa gelditu zuen, zorte txarra! eta ilegalki zihoazenak, ia guztiak, Portugal alderat igorri zituzten. Bigarren aldiz, modu berdinez, Frantzia aldera joatearen erabakia hartuz, eta orain zorte hobea izanez, helburua lortu zuen.

Oroitu ere aurreko atalean idatzirikoa : Diario Vasco egunkarian 1961. urteko martxoaren 23an irakur zitekeena : 18 eta 41 urtetako bi portugaldar atxilotuak izan zirela pasaporte faltsuekin Frantziako eremuetara joateko asmotan zeudela . Bi hauek ere zorte txarrekoak !

Autobus garraioen publizitatea egunkarietan irakur zezaketen. Kuriosoa egiten zait. Gobernuak alde batetik isilpeko emigrazioaren aurka jotzen zuen, edo itxura behintzat egiten zuen, eta bestalde egunkarietan , publikoak eta legalak ziren egunkarietan, Frantziara joateko garraio eskaintzak egiten zituzten . Printzipioz eskaintza hauek pasaportea zuten pertsonentzat egiten zirela egia da baina tartean paperik gabeko pertsonak joaten zirela denek zekitela ziur nago.

1965eko egunkarian iragarki hau argitaratu zen :

## Viagens MELGAÇO-PARIS

António Piña Anton,

Concessionário das Carreiras Internacionais entre  
Espanha e França

e

João Hilário Gonçalves,

seu representante em Portugal, comunicam que houve  
uma pequena alteração nos dias de saída,  
passando a efectuar-se

**Todas as Terças e Quintas-feiras**

★ A Viagem mais cómoda pelo caminho mais económico!... ★

Para informações:

Melgaço: - João Hilário Gonçalves - Telef. 42308

Arcos de Valdevez: - Salvador Alves Pereira - Telef. 45116

Paris: - Hotel Moncey - Rue Blanche - Tel. Trinite 8220 e 8221

Bidaia kamioiez egiten zutela ere , esan dugu. Garraiobide hau erabiliz, Verinen ezagutu nuen 80 urteko gizon bat aritzen zen. Portugalgo Chaves hirian astero ospatzen zen feriara joanez angariador desberdinek zenbat portugaldar bildu zuen jakiten zuen. Bere kargu zituen pasadoreak muga pasa eta Verindik Sanabriara joateko erabiltzen zen nazional 525 etik abiatuz , baina portura iritsi baino lehen ezkerretara dagoen iturri ondora eramanez, bertako zuhaiztietan gordetzen zituzten. Han atsedena hartu,

kontserban zeuden sardinak eta ogia eskainiz jan, iturriko ura edan eta gero, gauez, kamioietan sartu eta Iruneraino eramaten zituzten. Irundik “ a destino” berriz, Irungo taxieiz.

Kamioiak, MAN markakoak, Orensen alokatzen zituen . Gizon hau ez zen garraioen jabe. Barruan , gutxienez 60 portugaldar sartzen zituzten, 90 gehienez. Azken kasu honetan eta halabeharrez, kamioian zutik joaten ziren. Pentsa! Horrelako bidaia luzea, Verin-Irun, eta nazional errepidetik zutik joan behar. !

Kamioi hauek gordelekuren bat ote zuten galdetuz , hasieran saiatzen zirela kamioi bukaeran egurra edo jartzen baina ez zela eroso eta ... gero kamioi gainetik toldoa jarri eta joaten zirela zioen.

Gizon hau kamioiaren aurretik, gia modura joaten zen. A Gudiñan askotan Guardia Civilak kontrolak jartzen zituzten eta saihestu behar zen. Egoera hauetan, itzuli eta Lugotik zehar joaten ziren.

Urtetan lan hauetan aritutako gizona da. Bere kalkuluen arabera, kamioiez hilabetero 2.000 portugaldar Irunera eraman zituen .

Guardia Civilak harrapatuak izan ziren. Orduan portugaldarrak etxeratu, baina berriro eta modu berdinez bidaiari ekin ziotela dio. Berriro ordainduz, noski.!

Jean-Claude Guillebaud kazetariak, erabilitako garraioaz honela dio :

“Les moyens employés sont des plus variés : camions à double fond, bétailières, véhicules divers plus ou moins aménagés. “

Kamioi zisternetan ere ekartzen zituzten. Modu honetan eginez, bertan itoak gertatu ziren. Hala esan didate lekuko batek baina gehiagok, Otilia barne. Izugarria !

Trena erabili izan zen bai Españatik Irun edo Hendaia bitarte, baita gero Euskal Herriko muga pasa ondoren helmugaraino iristeko . Askotan Hendaia, Donibane Lohitzune edo Miarritzekoan billetea Paris bitarte erosten zuten beraiek . Besteetan pasarte mugalariek erosten zieten.

Gaur egun hain zaila egiten zaigun inprobisazio ahalmena kontrabandista hauek oso garatua zuten eta emaitza ezin hobeak lortu zituzten. Kontutan hartzen badugu bi muga isilpean gainditzeko helburua gutxienez 500.000 pertsonak lortu zutela , erabilitako sistema guztiz arrakastatsua izan zela esaterik daukagu.

## **ANGARIADOR**

Bidaia luzea Portugalen hasiko zen . Bertan hainbat angariador gizon edo emakume zeuden. Emigratu nahi zutenek hauengana joko zuten . Nor ziren ahoz ahoko informazioari esker jakiten zen. Edozein herrixkan bitarteko lanak egiten zuen norbait egoten zen.

Tabernak, dendak eta telefono publikoak zeuden tokiak guztiz aproposak ziren eginkizun honetarako . Nagusiak askotan angariador modura aritzen ziren. Hara nola, Iruritako pasatzaile batek Orenseko “hiru aizpe” aipatu zizkidan : Artemia, Elena eta Felisa. Hauek Portugalgo muga ondoan denda zuten eta bitartekari lanak egiten zituzten.



*Hiru ahizpen denda eta etxebizitza. Portugaldarrak goiko atetik sartzen ziren.*

Alde batetik portugaldarrak beraiengana joko zuten emigratzeko, bestalde ahizpa hauek antolatuko zuten bai Portugal-España muga gainditzeko gora-beherak.

Hiru ahizpa hauekin Otilia ere aritua da. Baina berak duen oroipena ez du oso ona. Oraindik 80.000 pezeta zor omen diote. Auskalo.

Otiliaren lehenengo angariador emakumea zen. Lagun egin ziren. Aldea do Obispoko Olina zen. Baditu Otiliak Olinarekin batera pasarte graziosoak lanetik aparte gertatutakoak ! Neska gazteen kontuak. Lan arriskutsuetan aritzen zireneko neska gazteen kontuak.

Olina ez zen Otiliaren angariador bakarra izan. Beste batzuekin aritutakoa zen. Hala izaten zen. Kontaktua ez zen pertsona bakarra izaten. Eta ez leialtasun faltaz. Ez du zerikusirik. Ez zen faltxikia egitea, angariador bat baino gehiagorekin aritzea. Ez eta pasatzaile-mugalari bat baino gehiagorekin aritzea. Esklusibitaderik ez zegoen. Horregatik besteak beste ezin da “Sarez” solastu. Intersareak izaten ziren. Konexio askotako estrukturak.

Urruñako Ernestine Lisboako gizon elegante batetaz mintza zen. Honek angariador lanak eginez, pasatzailea ere kontratatzen zuen. Honek




batzuetan Badajoztik, besteetan Caceres aldetik pasa eta Urruña-Hendaiaraino Ernestine eta bere senarrak ekartzen zituzten.

Leok aldiz, Villar Formoson halako agentzi bat bazegoela esan zidan . Bere kontaktua Antonio deituriko gizon bat. Emigratu nahi zuen portugaldarra bertaratzen zen eta han dirua utziz noiz eta nola joan jakiten zuen . Esandako egunean eta orduan , mugalariarekin mugaz bestalde eginen zuen. Españako aldean, Versailles kotxeetan sartuz, gaeuz joaten ziren.

Baina Portugaleko Quadraçais herrian emakume batek horrelako harat – honatak egiten zituela esan zidan. Eta bertaratu nintzen batean, hango emigrante izandako pertsona batzuei honetaz galdetuz, baietz, Alçira zuela izena emakume hark eta bere historia kontatu zidaten.

Garai hartan galtzak janzen zituen emakume kontrabandista bakarra zen . Kafe pasatzen hasi omen zen, oinez askotan , zaldiz ere. “Por la sierra” , pistola alboan zuela joaten zen. Seme-alabak izan zituen, baina bera bezalakorik bakar bat ere ez omen zen atera. Hauetako bat kontrabando lanetan ari zela izana omen zuen. Bai, emigratu nahi zuten portugaldarrak bere etxera joanez tratuak egiten ziren eta berak edo bere langileek pasatzen zituztela Espainiako aldera ziurtatu zidaten. Zaharturik hil omen zen Alçira emakume aparta.



*Garai bateko "emigrazio agentzia". Alçiraren etxea.*

Saratar batek, bidaia Verinetik egiten zuen . Kontaktua, angariador, gallego zuen. Denda baten nagusia zen eta hantxe egiten ziren tratuak. Atzeko aldean , biltegian, portugaldarrak noiz etorriko eramailea zain egoten ziren. Verineraino nola etortzen zireneko kondaira Francis Cornu kazetariak horrela laburtzen du :

“ La plupart des émigrants viennent des provinces au nord du Douro, les plus pauvres, le Minho et le Tras-os-Montes notamment. C’est là que les trains vers l’Espagne font leur plein de voyageurs. Pour partir l’an dernier j’ai fait comme tour le monde. Je me suis adressé à un passeur que des compatriotes à Paris m’avaient recommandé. Je me suis retrouvé dans un groupe d’un vingtaine de personnes. Nous avons pris le train jusqu’à Chaves, à 5 kilomètres de la frontière nord du Portugal. C’est là que tous les clandestins descendent. Nous avons attendus la nuit dans une grange, puis après cinq heures de marche à travers la montagne, nous sommes arrivés sans incident à Verin en Espagne.”

Iristeko moduetako bat da hau . Aurrerantzean irakur daitekeenez, baziren beste modalitate desberdinak ere.

Lekukoen testigantzen arabera, denda, taberna, fondak eta lokutorioak toki aproposak ziren jende bilketa egiteko. Bertan elkartzen ziren muga pasa baino lehen eta Guardia Civila edo Guardiñak suertatzen baziren, leku publikoak zirenez, zerbait edaten edo erosten edo telefonoz solastu behar zutenaren aitzakia izaten zen.

Toki hauetan Portugaleko leku desberdinetako jendeak juntatzen ziren. Biltzen zituenak geografikoki elkarrengandik gertu ez zeuden eremuetakoak elkartzen zituzten. Portugal erdi edo Mendebaldetik etortzen baziren, denda , ostatu hauetan jan, lo egin eta mugalarien zain egoten ziren.

Emigratzaile ohien biltzaileak ferietan ere egiten zuten lan.

Penodono eskualdean hamabostean behin feriak izaten ziren. Trancoso-n astero. Bietara bai pertsona biltzaileak baita bilduak izan nahi zutenak ere bertaratzen ziren eta adostu beharrekoak adostu.

Ahozko kontratuak egiten ziren. Aziendak, janariak edo-eta edozein produktuen salerosketa egiten zen modura, egiten zen emigratzeko bidaiaren konponketa.

Feria hauetan ez zen pertsonaz hitz egiten, portugesak carneiros-etan bihurtzen ziren askotan. Hainbeste carneiros, horrelako orduan, halako tokian...

Feriantek, ferietan lana egiten zutenak, hainbat leku desberdinetara iristen zirenez, emigrante taldeak erraz osatzen zituzten. Esan bezala, toki desberdinetakoak ziren portugaldarrak mugalariaren esku utziko zituzten , honek Espainiara pasa zitzan.

Tabernari, dendari, feriante izateaz gain, herrietako beste zenbaitek angariador lanak egiten zituzten. Frantziara joan nahi zuten ezagun bilketa egiten zuten. Nekazariak, zurginak, artisauak... izan zitezkeen. Diru gutxiren truk horrelako lanetan aritzen ziren pertsona xumeak ziren.

Talde honetan , pertsona xumeetan alegia, emakumeak ditugu. Hauek erlijioa, familia eta zentzutasunarekin lotuta zeudenez, ez ziren susmagarriak.

Emakume zintzoak izanez, ez zutela inolako arriskurik suposatzen pentsatzen zen. Eta egia. Zintzoak izaten jarraitzen zuten nahiz eta angariador lanak bete.

Berriro Olina , Alçira eta hiru ahizpak esaterako aipatu beharrean gaude.

## **PASSADOR**

Berdin deitzen zaie espainolez eta portugesez. Pasadores , batzuk s batez idazten dute, besteek 2 s-ez. Lana berdina, Portugal-Españako muga isilpean, a salto gaintzen laguntzea.

Gehienak Portugaldik atera eta Valverde del Fresno, Puerto Perales, Peña Parda, Hoyos, Zarza la Mayor, Valencia-Alcántara, Albuquerque, Fuentes de Oñoro eta iparraldeko Verin, Vigo, Sanabria... aldera pasatzen zituzten. Hemendik euskaldunak hartu eta Euskal Herrirantz abiatzen ziren.

Quadraçaiseko Juliok dioenez :

“Se quedaban (Quadraçaisen) una noche o dos y luego se los pasaban para allá, para España.”

Portugal osotik etortzen zirela dio. Batzuetan pinareetan 200-300 pertsona erdi gordeta izaten ziren. Besteetan 100, besteetan 500. segun. Gero etxeetan gordetzen zituzten eta gauez, “por la sierra” beste aldera pasatzen zituzten :

“ Había 10 o 12 pasadores aquí y de aquí los llevaban para España. Que había un equipo que trabajaban con los de aquí. Los llevaban a los españoles, los españoles (euskaldunak?) los llevaban hasta la frontera francesa y luego desde allí ya los llevaban en coche, camiones, tren... como podían por toda Francia.”

Migelek Fuentes de Oñoron, Kalla zuen pasatzailea, Valencia Alcantaran Jose Beleño eta surtidorean lanean aritzen zen Angel , Valverden Alberto, Meridan Antonio ...

Galizia aldetik Miño ibaia pasatzeko baziren gure Bidasoaren kapritxoak ezagutzen zituzten antzeko pertsonak erreka hura zeharkatzeko.

Portugaleko mugetara hurbildu nintzeneko batean, pasador baten alaba ezagutzeko aukera izan nuen eta berak, bere ikuspegitik kontatu zizkidan nola bizi izan zuen aitaren lanbide hura. Esan beharra dago ez dela batere harro hartaz, oso ikuspegi ezkorra du honetaz guztiaz eta horregatik ere iruditzen zait interesgarria. Nire hausnarketak ez dira horrelakoak, alderantzizkoak baizik. Ongi egin ez ziren jokaera dexente izan ziren eta hauen aitzinean begiak ezin itxi . Hori ere hala da.

Pereiraren artikulu batean (2010), pasatzaileak “n’étaient en réalité ni des héros désireux de libérer les portugais de la dictature, ni des escrocs sans scrupules” dio. Eta ni ados izanik zerbait gehiago erantsiko nuke. Nire ustez heroi moduan jokatu zuten zenbait izan ziren baita maltzurkeriaz jokatu zutenak ere. Ez ziren guztiak onean arituak ez guztiak maleziaz.

Gehienak, nire ustez, dirua lortzeko kontrabando berezi baten aurrean suertatu ziren eta beste hainbat produktuekin jokatu izan zen modura, orain pertsonak pasatzea suertatu zen.

Ez zen lehendabiziko aldia Euskal Herritik pertsonak isilpean pasatu zirela. XX. mende hartan bertan, Munduko bi guda inguruetan, Españako Guda Zibilaren urte latzetan ere , Iparraldetik Hego aldera edo alderantzizko ibilbidea egin zuten pertsonen ihesak ezagutu ditu gure paraje honek.

Guillebaud kazetariarentzat pertsonak pasatzen aritutako kontrabandistentzat ez ditu hitz goxoak erabiltzen. Bere ustez, ez dira fidagarriak ez moralak ere :

“L’organisation des filières est aux mains de ces turands spécialisés que rien n’arrete : ceux qui passaient du “Juif” pendant l’occupation, du “Fellagah” et de l’”Activiste” pendant la guerre d’Algérie, et qui, demain, au besoin , passeraient des armes etc, etc..... Basques sans foi ni loi...”

Bere burua heroitzat daukan pasatzaile bat, Arcos de Valdevez-eko Joao Fernandes da. Honen esanetan, garai haietan egindakoaz harro sentitzen da “car j’ai retiré beaucoup de personnes de la misère et j’ai évité à de nombreux jeunes d’aller mourir dans les colonies.”

Berdintsu solasten da Pedro, Irungo mugalaria “Portuguesak aski inportantiak ziren niretzat. Nere esku ziren. Diru gabe, dena saldua beraien tokian... sosa bakarrik gatik ez dira gauzak egin. Pertsona bezala jokatu behar da. Noizbait peligruan, bakarrik ikusi izan ditut portugesak eta kobratu gabe eraman. Porkesi. Bai. Gertatu zait ere baserri inguruan harrautuak eta nondik joan behar ziren esana.”

Pedrok eta Joaoren antzera askok hitz egiten dute. Kontrakoak esaten dituztenak ere asko badira. Hauen artean geroago mintzatuko den Encarna baita Mononbordan bizitutako Kontxita. Baserri haren benetako izena Añatarbe da, baina inguruko guztiak Mononbordaz ezagutzen dute. Bertan, urtetan, portugaldar anitzek Sarara edo Ezpeletara pasa baino lehen, atsedenaldea hartzen zuten. Oso nekatuak iristen ziren. Nekatuar, gosetuak eta atsekabetuak. Kontxitak behin eta berriro zenbait pasatzaileen tratu txarrak azaldu zizkidan. Nahigabetua solastu zitzaidan :



*Añatarbe-*

*Mononborda.*


“ Pasatzaileak Mononbordan uzten zituzten gero saratarrak bila joan arte.

Itxia (Mononborda) dena portuges betia izaten genun! Emakumiak eta haurrak eta... etortzen ziren, ezin segituz... denak kentzen zizkioten, denak kentzen zizkioten...

Pasatzaileak badira aberastu direnak, bai. Saran bada bat oraino bizi dena. Ezin segituz portugesak, leher eginda eta makilaikin jo eta... Martxau! Erraten zuen. Zenbat aldiz!!! Bizi da hura. Orain berari erran behar

Martxau!!! Hori ez da ongi. Haik animaliak bezala zenbaitek tratatu zituzten. Anitzek eh!

Gaixuak!!! Guk nahiko genuke horrela egitea? Hoiek izan dira animaliak bezala tratatuak.! “



*Kontxita eta Xanti*

Migelek portugaldar neska bat bortxatu zutela esan zidan. Berri honen aurrean inpresionatua gelditu nintzenez, beste lekukoekin solasterakoan kasu honetaz galdetu izan dut. Etxalarko Maitterek gertaera honetaz zerbait entzuna zuela esan zidan. Nik esandakoa ez zitzaion arrotza egin .

Etxalarkoa den Xantiri esan eta berdin. Berak zerbait aditua bazuen eta Etxalarren bertan portugaldarren neskez aprobe txatu nahi izaten zuen gazte batetaz hitz egin zidan :

“Bizio izugarria zuen hetarat (neske haietaz ari da). Attak bidaltzen zuen astuarekin jatekua eramaterat (bordara) eta hantxe saiatzen zen.... Azkenin portugesak bildu zuten eta paliza izugarria eman ere!!! Amerikarat joan zen.



Bai gertatzen ziren (bortxatuak). Bidian bazuztelik, taldian joaten ziren baina batzuk aintzinian bertziak gibeltikan eta ez zuten jakiten non zoazin... erraza izaten ahal zen neskak baztertu eta...”

Honetaz Almandozko erretoreari galdetuz, zalantzan jartzen zuen, eta portugaldarren inguruan egiak ez ziren gauza aunitz erran zirela dio.

Otiliari ere afera honetaz galdetu nion eta honek ez zuela horrelakorik entzuna esan zidan. Euskaldun gizonak ez direla horrelakoak esaten zuen. Auskalo.

Migelek ere, Malerreka aldean pasatzaile bati portugaldarren batek labankada sartu ziola esan zidan eta ongi merezia zuela gehitu. Nonbait portugaldarrak gaizki tratatzen omen zituen eta hala suertatuko norbait denboraldi baten ondoren Frantziatik bueltatu zen eta mendekua hartu.

Garbi azaltzen dira hainbat pasatzaile eta lekuko zera hau kontatzerakoan : ez zen portugaldarra errudun, pasatzaile maltzurra baizik.

Garbi dio Kontxitak : “ Ederki egina!! Jendia, jendia da, ez da animalia!!! Etorri zitzaion buelta (pasatzaileari)”

Nirekin solastu duten pasatzaileek ez dute kontzientzi arazorik. Beraien esanetan lana ahal zuten bezain ongi egin zuten. Egia da, bere buruaren kontra ez dutela solastuko, baina nire ustez portuges pasan aritutakoen artean nirekin solastu direnak , ez dute uste ezer okerrik egin dutenik eta horregatik bere esperientzia eskaini didate.

Dena den, gure inguru hauetan (Txingudi, Bortziri, Malerreka, Baztan eta parean dauden Iparraldeko eremuetan) , 60 urtetik gorakoei portuges pasatzeari buruz galdetuz gero, laster egoera beltzaz solasten hasten dira :

abandonatuak, itoak, maltzurkeriak... Baita laguntza eskainitakoari buruzko aipamen luzeak : bertako biztanleen borondate ona, janaria, arropa...eskainia, muga pasatzen lagundu izana...

Frantziako prentsan portugaldarren emigrazioari buruzko berriak azaldu ziren. Hauen artean emigratzaileek jasandako zoritxarrak salatu ziren. Gertaturiko zoritxarren artean pasatzaileen erruak azpimarratu zituzten. Pasatzaileen maltzurkeriez irakur daiteke. Kontrabandista hauek Scrocs-etaz behin eta berriro joak izan ziren. Christian Rudel -ek, La Croix egunkarian zera idatzi zuen :

“il faut bien admettre que les chaînes avec leur côté immoral, sordide, négrier et esclavagiste, ont encore devant elles un “bel avenir”.”

Lineek zuten alde beltza azpimarratzeko erabiltzen dituen hitzak ( immoral, sordide, négrier, esclavagiste ) gogorrak dira.

Baina bizitzan ez da guztia txuri edo beltz, ez dira denak ez hères ez scrocs.

Harira bueltatuz, Portugal – Espainiako muga aldeko kontuetara itzuliz, Encarnari, Antonio pasadorearen alabari emango diogu hitza.

“Venían de SS y cuando llegaba mi padre con los portugueses a Torre Don Miguel pues allí había un contacto, tenían la telefónica, se procuraba implicar a alguien que tuviera medios, en este caso para poder llamar por teléfono y tener la certeza de que no contara nada.

Tenían un olivar donde tenían una casa y llevaban a la gente, en la parte española. Pasaban por la sierra andando con alguien que los acompañaban.

La gente ésta de la central del teléfono les llevaban la comida y mi padre compraba mantas.

Venían éstos de SS, venían de noche, los recogían y los llevaban. La cuestión era llegar hasta SS . Allí debían de tener algún contacto, algún policía o algo que hiciera la vista gorda. Aquello no era normal, que no cogieran a nadie, a ninguno. Hubo algún tropiezo pero echar el alto la policía, no.

Y allí venía otro, francés. Al francés no llegué a conocer y éste los llevaba a Paris. Si la familia estaba en Lyon, se desplazaban al sitio donde eran. Tenían que ver a un familiar, y hasta entonces no daban por hecho que habían llegado a Francia.

Esta en juego la forma de pago. Que era muy primaria pero tenía su chispa porque todos tenían que traer una fotografía tipo pasaporte o tipo carnet en el pueblo. Una parte se quedaba con la mayor parte del dinero en el pueblo de donde era el que pasaba, en casa de alguien de mucha confianza, en el pueblo portugués. Se cortaba la fotografía con tijera en tres trozos. Uno se quedaba en el pueblo de origen, otra parte del dinero la traían hasta mi casa y quedaba con otra parte de la fotografía. Y el tercer trozo la llevaban ellos. Cuando habían visto a la familia y nunca antes, le daban ese trozo al francés, el francés de la que venía a buscar el otro viaje se la daba a los que vivían en SS que venían para acá con ello y se confrontaba con el trozo de foto que estaba en mi casa y con esos dos trozos, mi padre iba a Portugal y cogía el dinero con el tercer trozo... Cada viaje se pagaba con el anterior. Siempre estaban con las fotos para arriba y para abajo y tenían que coincidir...

Había varias partes que pagar : una parte de Portugal, otra estaba por si ocurría algún problema, que quedaba en mi casa... También había 4 partes a pagar : el que reclutaba en Portugal, a mi padre, a los de SS y al francés.

Mi padre ya luego no los acompañaba. El manejaba el tema pero ya no pasaba. Pagaba a la gente que pasaba con contrabando de café al carrego, para que pasaran a los portugueses. Conocían muy bien la ruta. Les pagaba un jornal pero si con el café cobraban 200 ó 300 pesetas, mi padre les daba 500 ó 600 y además iban descargaus. A mi padre le llovían, la gente que quería, posibles pasadores. Mi padre así ya no se arriesgaba a ir con ellos. Quedaban en tal sitio... Eran grupos de 8-10. Al principio eran hombres, cuando se establecieron allí, tenían trabajo y tal, el tema era cómo llevar a las mujeres. Aprovechaban para ir con algún otro familiar. Una mujer sólo sin conocer no. Con niños pequeños también han pasado. Y han pasado a salto con los crios.

Había tanta gente que quería pasar que mi padre a veces decía, que no puedo, que no puedo pasar a todos!!!

Yo sospecho que hubieran policías que estuvieran implicados y que sólo podían pasar cuando estos estuvieran de servicio.

Mi casa, que tenía un bar de tapadera un reguero de gente...

Si tenías un bar siempre había la posibilidad de decir que habían venido a buscar vino o algo. La gente como loca para irse, ¡ es que le van a llamar a filas, es que le van a llamar para Angola...! Por el amor de Dios!!

Quadraçais quedaba lejos de Navasfrías. Para mi estaba lejos. A mi madre le daba mucho miedo los que venían de Quadraçais porque eran

grandísimos ellos, y casi todos decía mi madre que traían pistola y entonces teníamos pavor. Los que venían de Quadraçais teníamos un miedo....!!!!



Aquí las mujeres ayudaban, hacían la comida... Pero no mucho más. El tema era de los hombres. Si pasaba algo, les aplicaban la ley de vagos y maleantes, les quitaban todo.

Las mujeres de los contrabandistas tampoco querían que tu colaboraras, porque con el trabajo venía el homenaje y tu no tenías que estar en los homenajes. Ellos no querían.

El dinero nunca lo tuvimos en el banco. Los prestaban a los del pueblo. Y esta gente les daban unos intereses al año y ... El dinero se movía.

A un hermano de mi padre, le pillaron. Se tiró 2 ó 3 años en la cárcel . Primero los portugueses dijeron que fue mi padre pero no fue así, porque fue en Nochebuena y mi padre por esas fechas no solía querer pasar. Fue su

hermano y los cogieron. Primero cogieron a mi padre pero cuando lo presentaron a los portugueses que cogieron, dijeron que no era él. Claro, es que era su hermano. Se parecen mucho. En Nochebuena se lo llevaron. Bueno, no teníamos mucha relación.

Se veía muchísimo dinero. En mi casa no ví más que dinero. Nunca ví paz ni tranquilidad. Ví lo poco que vale el dinero. Yo no quiero meterme en nada y tablas no me faltan. Pero ni se me ocurre. En mi casa no ví más que dinero. Montones de dinero. Me acuerdo que mi padre me decía, toma para que aprendas a contar! Y me soltaba un fajo de billetes de 1000 pesetas, en los años 60.

- Bueno y con el dinero que había y.... ¿qué pasó? – galdetu nion

- Vicios, cogieron vicios. No trajo prosperidad, el dinero trajo prostíbulos. No se notó la prosperidad....Puerto Perales, Hoyos, Coria... que eran rutas se lleno de vicios. Mi padre se volvió como loco, no se podía hablar con él, un energúmeno, a mí no me dejó que estudiara porque decía que era un dinero mal empleado. Mi madre a trancas y barrancas consiguió que hiciéramos el bachillerato.

Aquello fue un calvario horrible. En aquel momento yo podía haber hecho la carrera que me hubiese dado la gana, me daba igual Ciencias que Letras. Pero yo pienso que él siempre consideró que yo no podía estar por encima de él. Yo era mujer y tenía que doblegarme , ser sumisa. No consiguió que mi madre fuera sumisa. La maltrató. A mí no se atrevió a ponerme la mano encima porque era capaz de matarlo. Le tenía un odio bestial. Sentía mucha vergüenza. Yo puedo hablar ahora de este tema pero yo pasaba mucha vergüenza.

A veces venían al bar los guardias. Siempre había que tener a los guardias contentos. No te podías pegar nunca con la niña de un guardia. Aunque te escupieran en un ojo, ni se te ocurriera tocarla. Y eso lo sabían ellas también y eran muy prepotentes.

Mis amigas eran una niñas normales, tenían vacas, hurtos... Mi padre tocaba la acordeón y con la disculpa de la acordeón iba a tocar a los pueblos... Era muy mujeriego y como él todos. Todos. Es característica de pasadores y de gente del contrabando en general. Yo me casé con otro y también igual. Cuando se vio con dinero se metió con todos los vicios.



Por mí sólo ha pasado el dinero pero yo no tengo nada. Aquí no se gastó en apuestas, pero comían, hacían merendolas, tenían queridas, en cada sitio una... Esto es habitual. Era un genotipo. Eran mujeriegos, viciosos.

Uno de Navasfrías al final tuvo que ir a Francia porque sino lo mataban. Estuvo 2 ó 3 años y en el primer verano que vino, era portugués, se fue a su

pueblo, en Portugal y le dieron tal paliza que los hijos lo cogieron en el coche y lo llevaron a morir a Francia.

En la frontera, no sé ahora, pero antes había especialistas de la guerra de Angola que por dinero le daban a un tipo una paliza que no se le notaba por fuera pero lo habían reventado por dentro.

Era antes de irse, un nivel de vida increíble. Se echó varias queridas pero entre otras una de Navasfrías que era la mujer de un hombre buenísimo que trabajaba en Salamanca , en correos. Ella era muy casquibana. Le gustaba la buena vida. La instaló en el gran Hotel de Salamanca que entonces era una pasada, con un hijo que tuvieron. Dejó al otro que tenía y a su marido y bueno... estaba allí en plan reinona y el hombre éste tenía 4 ó 5 hijos con la legal. El era portugués pero vivía en Navasfrías. No pudo pagar, por lo que se ve y al final ya te digo, que se tuvo que ir pero cuando volvió, no lo habían olvidado.

En Navasfrías han muerto mucha gente así. Ajustes de cuentas. Por ejemplo, si tu cobrabas el dinero, no pagar. Te quedas con todo. O si era contrabando de tabaco y cogían una partida... Los portugueses si te lo daban, tu tenías que responder pero si les cogían a los españoles, no podían pagar a los portugueses... pues ya sabías lo que te esperaba.....

Los que andan en éstas historias no olvidan.

Un chico de allí , de Navasfrías que se hizo una casa enorme, en fin, que se pegó este verano un tiro. Con dos niños pequeños.... En fin.. Yo que soy de por allí..... aquello tiene pinta de algo..... me huele fatal. Un hombre de 40 y algo.....

En verano hubo 3 suicidios y otro en Casillas 4. De gente joven. De vida normal aparentemente pero.... El drama continúa.

Muchos de Navasfrías pasaban. Por Galicia también.



- Yo hago un cálculo de unos 800.000 portugueses que pasaron – zentratu nahian esan nion.

- Por lo menos!!! Fue increíble . Los pueblos de al lado de Navasfrías quedaron vacíos, no quedaron más que los viejos, a veces con los niños para que los padres pudieran trabajar. Muchos los llevaban a estudiar a Oporto o si no luego a Francia.

Aquello era una cosa increíble. En Navasfrías todos los que tenían bares, pasaban, eran pasadores como mi padre. Los bares tenían movimiento en aquella época.

Yo no tenía buena relación con mi padre pero aunque le preguntes a otra hija de otro... la relación podía ser más sumisa pero sería también mala porque todos eran unos impresentables.

No había ninguna previsión . Ninguna previsión, para ellos el futuro no existía.

Mi padre, le decías, ¿me das dinero? Y nunca te daba duro ó 2 duros que le daban a las otras niñas después de pedirlo mucho. Sólo sacaba un fajo de billetes y te daba un billete. Yo no sabía ni que hacer.

Hubo montones de veces que en verano, al volver los portugueses pasaban por el bar. Mi madre les decía que no fueran porque los guardias.... Pero venían muchos a dar las gracias. A decir de sus vidas, que los hijos estaban estudiando, que estaban haciendo la casa en el pueblo. Toda su ilusión era hacerse la casa en el pueblo... Vas a pueblos de Portugal y todas las casas son de tipo alpino, con materiales malísimos pero ellos hacían la casa....

Yo me acuerdo de ver venir a las portuguesas descalzas con una sayina de tela, una falda fruncida, una chambra que decían ellas de la misma guisa y un mantonito negro de lana pero descalzas. No tenían ni para unas

zapatillas en pleno invierno. Por aquellos caminos llenos de areniscos. Era, era... algo.... Cuando veo los países del 3. mundo, digo, pero que mala memoria tenemos si esto era así!!

Eran unas condiciones de vida horribles. Horribles.

A los portugueses, no decían pasamos esta noche tantas personas o tantas mujeres y tantos hombres.. No. Despectivamente los indios, los llamaban. Eran como mercancías.

Los pueblos de la frontera no tienen arreglo. Porque hay una cultura de ver-oir y callar. No te metas en lo que no te llaman, eso no va contigo. Y punto. Mi padre cuando sacaba el pañuelo para sonarse le salían los billetes. Era una cosa espantosa. Yo le cogí manía al dinero, asco. Representaba la causa de todos los males. Si mi padre no tendría dinero, trabajaría y vendría cansado y ya no tiraría con los platos de la sopa!! Querría la sopa!!!

Pero que coño iba a querer la sopa si venía de comer un cabrito!! Que gracia le vamos a hacer si viene de estar con un montón de queridas!!!

Aprovechando que están en la frontera, utilizan la frontera para... vivir sin trabajar y vivir a tope. No tienen futuro, pero pueden saltar por encima de lo que sea.”

“Pueden saltar por encima de lo que sea “ honi, Guillebaud kazetariak seguruen “... et qui demain, au besoin, passeraient des armes etc, etc...” erantsiko lioke.

Encarnaren ikuspegia guztiz ezkorra da. Bere esperientzia pertsonala sufrimenduz betetakoa dela garbi azaltzen du. Nahiko lan. Etxeko giroa goxoa ez denean bizi izan txikitán, gerora zama gogorra eramánarazten du . Kontu hauek guztiak , eta bertzeak, Ciudad Rodrigoko harresietan kontatu zizkidán. Eguraldi goxoa genuen. Han zitatuak ginen, Paradorren ondoan

eta hantxe elkar ezagutu. Biak kontrabandisten alabak izanik, txikitako oroipenak guztiz desberdinak genituen. Horregatik ere egin zitzaidan hain interesgarri emakume honen ezagutza. Baina bera ezagutu bitarte, bide luzea jorratu behar izan nuen.

Begira bidea non hasi zen.

Garai batean Irungo Larretxipi kalean bizitu nintzen. Izugarri oroipen onak ditut ordukoak.

Kale honetan denda bat, denetarik saltzen zuten horietakoa. Bittor eta Lurdes ziren nagusiak. Jende onak. Bittor irundarra izanik, bizitzak dakarren gora beherak direla eta Lesakan hazitakoa. Lurdes berriz Salamankako Martiago herri txiki bateko alaba. Hamalau urte zituela Irun aldera etortzea erabaki zuen, neskame. Sorlekuan nonbait, “no habia nada “ eta.

Emigrazio garaiak ziren. Noiz ez da izan emigrazio garaia?

Esana badugu ere, Nafarroak badu honen berri ere. Amerikara emigratzen zuten askok. Hego Amerikara garai luze batez .

Espainia aldetik, Gerra Zibila ondoren Euskal Herriko eta Kataluinako hirietara inmigrazio garrantzitsua gertatu zen. Ezin ahaztu ere atzerrira, batez ere Alemaniaruntz joandakoak.

Ba Lurdes Espainiako herri batetik Euskal Herriko hiri batera neskame lanak betetzera joandako emakumea dugu.

Ez dakit nolatan baina Bittor eta Lurdes elkar ezagutu,ezkondu eta esan bezala Irunen Larretxipin denda ireki zuten. Urteak pasa eta, ni bertako bezeroa izan nintzen.

Hiru seme alaba izan zituzten. Mutil bat lehenbizi eta bixkiak, neska-mutilak gero.

Azken seme honek asma izaten omen zuen txikitan eta klima lehorra komeni zitzaionez, udaro anaia-arrebak Martiagora igortzen zituzten. Gurasoak lanean eta seme alabak amaren jaioterrian.

Neskari , Agurtzeneri, ez omen zitzaion batere gustatzen bertara joan eta uda osoa han igarotzea, baina... joan behar.

Anaiak bere lagun koadrila egin zuen. Bat, Fernando. Eta honi Agurtzane gustatu. Kosta omen zitzaion neska bereganatzea baina lortu zuen.

Martiagon bizi dira orain. Irundik Martiagora 650 bat kilometro izanen dira baina kilometroak baino gehiagoko distantzia badago bi tokiko bizimodu artekoa.

Ba, zoriontsu diruditen bikote honen lagun batekin solasteko aukera izan nuen. Fernandok zioenez, lagun honek Carlosek, agian lagunduko ninduen nire aurkikuntzetan.

Ciudad Rodrigon egin genuen zita. Eta hantxe, Udaletxean azaldu zen Carlos bi lagunekin.

Nahiz eta telefonoz azaldu herrialde haietara zertara joan nintzen eta zertan ari nintzen zertan ari nintzen , elkar ezagutu genuenean berriro esan nion.

Kontrabandoz aritu ginen, muga bateko eta besteko kontrabandoaz. Berdintasunez eta desberdintasunez... Gaia zela medio, elkar tanteatuz, elkar nolabait ezagutuz.

Nigandik hartutako informazioa jaso, entzun zuenaz konforme edo, bere bikotea izandako emakume batz hitz egin zidan, Encarnaz.

Telefonoz hitz egin genuen eta hurrengo egunerako, lehen esan dudan bezala, Ciudad Rodrigoko Paradore ondoan elkarrekin topo egiteko ordua autsi genuen.

Egun eguzkitsua zen. Hango harresi ondoan eseri eta Encarnak ezezagun bati bere bizitzako zati bat agertu zion. Kontrabandoaren inguruan berak

izandako nolabaiteko zeharkako esperientziez denbora luzez aritu zitzaidan.

Kontakizuna askotan harrigarria, izugarria iruditu zitzaidan. Eta une bat baino gehiagotan zer pentsatu jakin gabe egon nintzen.

Oso serio egon zen Encarna kontu kontari. Behin baino gehiagotan emozioz gainezka, negarrez. Eta behin baino gehiagotan solasaldiari utziko geniola esan arren, ezetz, on egiten ziola historia haiek kanporatzeak eta jarraitzen zuen.

Benetan gertaturiko gora beherak ziren haiek?

Non eta norekin ari nintzeneko beldur zirrara sentitu nuen.

Hala ere, hurrengo egunean nahi izanez gero berak ondo ezagutzen zituen Portugaleko herrietara joan gintezkeela proposatu zidanean, baietz esan nion inolako duda izpirik gabe.

Hurrengo goizean beraz, Ciudad Rodrigotik Villar Formosorantz abiatu ginen.

Justo Fuentes de Oñorotik pasa behar ginenean, hantxe gu baino aurreago, Guardia Civilak. Haiek ikusi bezain pronto, kasualitatea izanen zen... edo..., Encarna mantsoago gidatzen hasi zen . Ez omen zen oroitzen zehatz mehatz nondik zen bidea.

Errepide nagusia , parez pare Guardia Civila zegoen hura, alde batera utzi eta ezkererantz abiatu ginen. Hantxe hasi ziren nire errezeloak. Zergatik hartu genuen beste bide bat eltzetzuak ikusi genituenean?

Kontrabandistek egindako maltzurkeria bat egiten ari ote zen Encarna ni aitzakiatzat erabiliz? Bezperan esandako ilunkeria haiek paranoian bihurtu ote zitzaizkidan? Errealitatea eta fikzioa nahasten ari ote nintzen?

Auskalo!

Hala, errepide bakarti batetik jarraitu genuen. Bidean zehar, Encarna bere bizitza propioaz eta kontrabandoarekin zer ikusirik zeuzkaten gertaerez aritu zitzaidan.

Esaten ari zitzaidanak grabatzerik ote nituen galdeturik, hasieran ezezkoa jaso nuen. Erantzunaz harritu nintzen bezperan ez baitzuen inolako erreparorik agertu .

Aldeia do Pontera ailegatu ginen. Bertako kale baten izenak , Rua do emigrante, nire burua zentratzera lagunduz, biztanle aunitz bertatik beste herrialde batzuetara lana egitera joan zirela oroitarazi zidan .



Traktorez zihoan gizon batekin topo egin genuen.

Encarnak portugesa jakiteaz gain, nola solas egin, nola solasean hasi ere badaki. Inportantea da azken hau. Lurralde bateko biztanleekin harreman zuzenak izan dituztenak bakarrik dute abilezia berezi hau. Besteok jai dugu.

Badaki nola bideratu bai Encarnak. ! Irribarretsu, hasieran deustaz arituko ez balitz moduan, poliki poliki gaiari helduz...

Erdaraz hasi zen gure traktorista eta Encarnak Espainian lana egin ote zuen galdetu. Ezetz, mugakoa izanik, erdaraz zerbait ere bazekiela erantzun zion hark . Eta horrela, ea Espainia aldera lanera herri hartatik joan ote ziren galdeturik, ezetz, Espainiara ezetz baina Frantziara aunitz. Listo, zentratuak ginen.

Hartan , diru baten truke a salto joaten zirela esan zigun. 10.000 bat eskudo ordaintzen zutela hain zuzen ere. Segun eta escudo-pezetaren arteko gora beherak garai hartako 20.000-25.000 pezeta.

Atzetik kotxe bat etorri zitzaigun eta mugitu beharrean suertatu ginen. Traktorista gehiegitxo solastu ote zuenaren susmoarekin seguruen, joan zen.



Forcalhos-era iritsi ginen. Emigrazioak ekarritako diruarekin etxeak eraikiak badaude. Erabilitako estiloa ikusirik jakin daiteke zein garaitakoak diren.

Portugaleko emigranteen ametsa bat, herrian etxe eder bat egin araztea izaten zen. Nire ustetan, sorlekua utzirik lana egitera atzerrira joandakoek lortutako arrakastaren adierazgarri inportante bat, etxe bat eraikitzea izaten zen. Egindako lanak eta sakrifizioak zerbaiterako balio izan zutenaren erakusgarria zen etxe berria eraikitzea.

Gaur egun, emigrante izandako dezente sorlekuetara jubilatuta ondoren itzuli dira eta bertan bizi.

Bestalde, Frantziara emigratu zutenen seme alaba asko bertan bizi direnez, gurasoak hil ondoren hauek eginiko etxeak salgai jarri dituzte. Gazteak, Frantzian sortutakoak, arrotz sentitzen diren lurraldera gutxitan joaten dira.



Jubilatu ondoren itzultitako emakume batekin solasteko aukera izan genuen. Etxe berri bateko etxeokandre hura, 1976. urtean Alemaniara joandakoa genuen. Garai hartan paperak, dokumentazioa, pasaporteak lortu eta legalki atzerrira lana egitera joandakoa hain zuzen ere.



Alemaniarra joan baino lehenagoko irteerak, Navasfriasera, Espainiako herririk gertuena beraiantzat, ile-apaindegian permanente delakoa egitera izaten ziren. Handik Alemaniara.

1976. urtea baino lehenago Frantziara asko joan zirela eta a salto joan zirela baieztatu zigun.

Abiatu ginen handik. Encarnak portugesez esaten zituztenak , furgonetan erdaraz laburpena egiten zidan. Biak furgoneta barruan geundenean ez zion grabatzeari oztoporik jarri. Bai aldiz, kanpoan argazki kamera edo grabatzailea agertzeari. En fin.

Gu, paisaiarekin bat egiten zuten errepide mehar haietan barrena, aurrera.

Lajeosa herrira iritsi ginen. Han furgoneta utzi eta itzuli bat egin genuen. Andre xahar bat han zebilen, fruta ekarriko zuen furgonetaren zain. Frutarik ez baina ogia egunero zekarrena etorri zen. Herritxo hauetan dendarik ez dagoenez, furgonetak etortzen dira janariak eta saltzera. Ogia erosi genuen guk. Portugalen bakailaoa eta ogia primerakoak direla ziurtatzen ahal dut.

Señora harekin Encarna hasi zen solasean baina ezer gutxi esan zion. Mesfidantzaz begiratzen gintuen. Encarnak bere konplizitatea lortu nahian, bere familia, amatxi eta nor zen esan zion baita herri hartako jaietara etortzen zirela ere, baina aita Amador zela esaterakoan eta jakin nahi genuena zertxobait azaltzerakoan , oraindik ere gugandik alde egiteko gogo gehiago azaldu zuen.

Herriari buelta eman genion, bertako iturriko ura dastatu, eta itxita zegoen taberna bat ikusterakoan , Encarnak bertako nagusiaren, Joaoren historia kontatu zidan.



Seme bakarra zen Joao. Soldaduska egitera Angolako gerrara joan behar izan zuenean, bere ama negar batean Encarnaren aitarengana semea Frantziara eramateko erreguz hurbildu zen . Behin eta berriro ezezkoa jaso arren, behin eta berriro emakumea Navasfriasera joaten zen baiezkoaren itxaropenez. Lortu arte.

Lajeosatik paseatzen Julio bankeroaren etxetik pasa ginen eta honek eta bere aitak diruarekin zuten tratuaz aritu zen Encarna. Pezetak eta eskudoak elkar trukutzen zituzten. Ez zitzaidan gaia arrotza egin. Hemen, gure artean ,garai hartan pezeta eta frankoen arteko gora behera berdina ezagutu ditugu. Behobi aldean adibidez, zenbat pertsona ez ziren aritu txanpon sal – erosketan?

Dena den, Julio bankero partikular honek emigratu nahi zuten portugesei maileguak egiten zizkien. Banketxe ofizialetara ezin joan eta horrelako “bankeruak” uzten zien dirua.

Paseatzen joaki ginela, Julio honen etxe ondoan beste etxe bat eta han kanpoko aldean bibotedun gizon mehe bat aurkitu genuen. Hurbildu zitzean Encarna eta pixka bat denetatik solastuz, pixkanaka Juliori buruzko kontaeretan hasi ziren eta hemendik Joaoren bizitzara pasa. Gizon honekin solastuz, Encarnak Joaoren historia hobeto gogoratu zuen . Joaoren aitari zegokionez, Encarnak hasieran aita semeak joan zirela esan arren, gizon honek lehenbizi aita eta gero semea joan zirela esan zigun. Encarnak gero, furgonetan, bibotedunak esandakoa kontatu zidan :

“El que tenía dinero iba a salto pero el que no lo tenía iba andando . El hijo de Julio no había estado en Francia, se fue al ejército. Julio, el de la banca digamos popular. El que iba cambiando el dinero de negocio personal. Cuando entro el euro, como ya no tenia nada que hacer, pues entonces se murió. Ja, ja, ja.

El que habia ido a Francia no era el hijo de Julio, era el Joao. Hijo único. Económicamente dentro de la miseria pues se defendian pero Joao a los 18 años le vino una carta diciendo que se tenia que incorporar a la mili para la guerra de Angola. Su madre vino a mi casa pidiendo que por favor lo llevaran a Francia antes que lo llevaran a la tropa. Y la cuestión es que, este señor nos ha dicho que antes de irse el hijo se habia ido el padre, pero este no habia ido con mi padre. En Navasfrias habia bastantes hombres que pasaban. El muchacho sí, con mi padre.

El padre de Joao se fue antes que el hijo pero lo cogieron, lo detuvieron y lo llevaron preso en España. Lo soltaron, despues de haberlo interrogado, le preguntaron el dinero que habia pagado... Quedo perdido en un pais donde no entendia el idioma, sin dinero, sin comida y entonces pues vagando. Andando, andando, perdido dice que se cayó en un pozo. Llegó hasta aquí pero se puso muy malo de todas las penurias y al tiempo murió aquí en su casa. El hijo fue después. La madre se quedo sola, viuda y sin el hijo.

Joao vino luego a Portugal, despues del 25 de Abril. Se caso y viven aqui en este pueblo. Tienen un bar que esta cerrado. Tuvieron un hijo que vive en Lisboa.”

Informazio hauek guztiak lortuz, aurrera jarraitu genuen gure furgonetarekin. Honen barruan Encarnak portugesez solastutakoen laburpena erdaraz egiten zidan. Barruan, ezkutaturik. Ez zuen nahi izaten jendeen aurrean argazkirik ateratzea. Alde batetik bere laguna nintzela eta turismo egiten, hango parajeak ikusten ari ginela esan eta bestalde turistek egiten ohi dutenez ez zuen nahi izaten argazkirik ateratzea. Mesfidatzen zen nonbait bertako jendeak guri ezer ez esatea grabaketa edo argazkiak tartean baziren.



*Joaoaren taberna.*

Hala Foios-era iritsi ginen eta etxe baten sarrerak kanpoko aldean jendea ikusirik, gelditu ginen. Encarna beltzez jantzitako andre batekin solastu zen eta honek lutoa zeramala esan zion, bere 30 urteko semearen heriotza ondoren. Gero jakingo genuen seme honen historia, Antonioren semearen istorioa.

Gose ginen eta bazkaltzeko toki zehatz batez galdetu zuen Encarnak. Bertaratu ginen eta azkenik eseri ginen gosea asetzeko asmoz.

Bakalaoa eskatu genuen, nola ez! Ezin hobea!

Gure ondoan postreak jaten, lau gizon eta emakume bat zeuden. Frantziar eta garai bateko kontuz ari ziren hitzegiten eta hurbildu zitzairen Encarna. Ezer gutxi esan zieten. Haietako gizon bat herriko erretora zen, besteak Fatimatik etorritako lankideak eta andrea berriz, serora. Encarnari informazioa eskaini ordez, bera moja ote zen galdetu zion erretoreak. Encarnaz jakin nahi izan zuten eta honi ezer gutxi bueltatu.

Bazkaldu genuen.

Kafeak eskatzekotan nengoela, Encarnak beste ostatu batean hartzea proposatu zidan, eta asmatu zuen.

Ordaindu eta kanpora irten ginen. Gizon koadrila bat parez pareko taberna kanpoko aldean ikusi eta zuzenean abiatu ginen.

Hasi zen berriro Encarna bere taktikarekin. Hasi zen denetaz pixka bat solasten, ezer konkreturik ez... Gizon pare batek gu errezeloz begiraturik, ihes egin ziguten. Hala ere, beste batzuk bertan gelditu ziren. Hauetako bat Antonio izan zen. Encarna nor zen aurkezturik, noren alaba ... Ni bere laguna turista nintzela eta orain bai, Frantziara garaian joandakoen historiak interesatzen zitzaizkidala jakitea esanik, Antonio erdaraz, ahots goxoz bere historia kontatzen hasi zitzaigun.

“Tu padre (Encarnaren aitataz) llevó muchos para allá.

Pasaban muchos por Pamplona. Allí era el sitio más fuerte.

Del 55 hasta los 70 iba muchísima gente. Yo fui en el 66.

Eramos 6 hermanos, 3 y 3. Fueron primero que yo. Tenía una hermana y estaba hace 4-5 años allí. A salto, no fue igual.

No fui con tu padre. Fui con un contacto de aquí del pueblo. Tenían documentación para poder andar por España. Nosotros no teníamos. He ido

hasta Valverde sólo. Los que fueron conmigo fueron a dormir la víspera a Hernán Peraz .

Aquí era un puerto de salida, para allá.

Aquí había unos cuantos que llevaban para allí. Iban para el interior de Portugal a buscarlos. Los traían para aquí, de aquí a Navasfrías y para allá. Los españoles nos llevaban hasta Pamplona o hasta donde era la frontera.

El tío que me llevó también fue a Valverde. Allí comimos los dos, después hemos llamado a un taxi de Coria y nos llevó hasta Coria y desde allí fuimos en su coche hasta Pamplona.

.....

Para nosotros no fue difícil pero hubo quienes han experimentado 2 y 3 veces y los cogían y hasta que pasaban.

Era el 66, tenía 16 años e iba a hacer los 17 en Francia. En ese momento iba mucha gente a Francia.

Era la guerra de Angola pero no era sólo eso . El pueblo este de ahora no es lo que era, eh! Había mucha gente, las familias eran grandes, muchos hijos... No había más que Navasfrías, Valverde... con el macuto, con el carrego (kafez beteriko makuto antzeko bat kontrabandoz pasatzeko) . Cultivar algo de alubias, patatas, algo de ganado y el contrabando por las noches , no había otra cosa.

Así se vivía. El que no lo hacía (kontrabandoa) vivía muy mal.

Para eso había que tener coraje y fuerza y había gente que no podía y los que no lo tenían, esos vivían mal.

Nos trataron bien, no hubo problemas. Tendría ganas de ir a ver esos sitios. Yo he trabajau después en el departamento de Bajos Pirineos.

Tu padre ha ganado mucho dinero en aquella época. Lo gastaba también. Ya le he prestado yo luego dinero... 200-300. Pero siempre lo devolvía. Tu

padre confiaba mucho en las personas . Tenía muy buen comportamiento. Tenía amigos, sí.

Tengo un plato en casa con su fotografía. Yo le quería bastante bien.

Encarnak, bere aitaz hain ondo solasten ari zela Antonio eta... ezin eutsirik esan zion:

- Mi padre fue malo para él y para nosotras. Pero si hacía falta un favor....

Hartan Antoniok jarraitu zuen :

Tu padre si venía por aquí la gente lo quería. Si, si , si... Era muy cumplidor, muy cumplidor , sí.

¿Conoce Pau? Pues a 50 Kilómetros de Pau. Jaca, Canfran. Creo que fue por allí. He trabajado en un tunel año y medio Oloron-Ste Marie. A 12 kilómetros. Después se coge la carretera que va a Jaca. Tuvimos que venir a Bayona.

Me llevaron a Brive. Luego yo tenía una hermana en el Departamento de Tarnes cerca de Albi. A 40 Kilómetros de Albi y ahí mando un señor a buscarme allí y estuve con un señor trabajando allí en una mina sí.

Vine por primera vez luego a los 3 años. Con 19.

Hemos venido de vacaciones en el 69, el primer año que tuvimos vacaciones. Y yo como era joven, tenía 20 años, entré al de 3 semanas, me quedé aquí y me han escrito 2 veces por qué no entraba y no he contestado. Y ahora ya hay otro en tu lugar.

Despues de Brive a Paris. Allí 10 años y medio. Mi hijo nació allí, y cuando tuvo la edad de entrar a la escuela, a los 7 años, nosotros queríamos volver . Lo hemos metido aquí en la escuela y luego fue para Guarda a estudiar y después estudiaba bastante bien en un colegio de curas.

Cuando tuvo 18 años ya no pudo continuar en ese colegio y quiso entrar en la pública y yo no quería porque los jóvenes cuando se sienten con libertad... y allí empezó el mal . Quería divertirse y no estudiar. Tenía vicios... Se casó con una muchacha de aquí pero nacida y criada en Francia y fueron a Coimbra a vivir y tuvieron un hijo. Tenía un negocio de comprar y vender instrumentos de música y a los 31 años murió. El chaval ya tiene 21 años.

A nosotros nos ha ido bastante bien allí. Yo empecé con el contrabando con los de Valverde, con los de Navasfrías. Era lo que había. Con el ganau. Luego terminó y nos hemos echado al tabaco.

Se ganó dinero. Estamos bastante, bastante bien. Mira qué casa tenemos. (herriaren sarreran zegoena, beltzez jantzitako emakumearena, oroitzen ¿)

Lo que pasa es que ahora se terminó todo. Hubo tiempos muy buenos, muy buenos aquí. Todo el mundo ganaba dinero. Ahora ya no hay nada.

Esta mañana he llevado 100 kilos de café pero ya legal, con papeles. Yo compro directamente a la fábrica y los comercios de La Alberca, Payo... me compran con factura.

Para Bilbao y San Sebastian lo mando. Hay gente de Extremadura que tienen comercio allí en San Sebastian e Irún y se lo mando para allá.

Hay unos de Payo que viven allí y tienen comercio y las mando. Hay un camión que viene para llevar aceitunas y les mando , el camionero se pone en contacto conmigo y se lo llevo donde me dice y ya está. Hago una factura y ya está. “

Beste gizon batzuk heldu dira guregana.

Eta Antoniok nahiko solastu duela pentsatuz, - “Es la hija de Amador “ esanez, badoa.



Hala gerturatu zitzaigun beste gizon batek Antoniok utzitako txanda hartu zuen, baina askoz gehiagorik ez zuen esan.

“Todo el mundo se tuvo que ir a Francia , sí. Fui a Francia también.”

Bi gizon gurekin gelditu ziren eta kafe bat hartzera joan nahi ote genuen proposatu ziguten. Baietz.

Biak Frantzian egondakoak. Beraien historia berdintsua baina elkar oso ongi ez genuen ulertu, sartu ginen ostatu hartan sekulako zarata baitzegoen. Gizon handi hark laster utzi gintuen bazterturik. Beste lagun batzukin topo egin eta kartetan hasi zen. Encarnari garbi utzi zion, bere aita behar zen bezalako gizon handia izan zela eta etxean arazoak izan baziren ez zela aitaren errua izan, ziur.



Beste gizonarekin gelditu ginen eta esan bezala, gauza berri askorik ez zigun esan. Ez zuen sakondu nahi izan. Zarata asko zegoen eta kez beteriko giro astun hartatik ateratzeko gogo izugarria sartu zitzaigunez, ordaindu eta alde egin nahi genuen. Atera nuen ba kartera eta zenbat zen galdetu bezain

pronto, ez nuela ba nik ordainduko esan zidan gurekin zegoen gizon hark. Ez eta pentsatu ere! Beno ba, gizonak gonbidatu zuen.

Antoniok eskuratu zidan testigantza interesgarria dela iruditzen zait. Bere esperientzi propioa azalduz, orain arte esplikaturiko hainbat datu berak bizituak eta berak eskuratzen digu.

Baina bi gauza aipatuko nituzke.

Bata, bera 66an joan zenez, “tenían documentación para poder andar por España” dio. Bai. Gogoratzen badugu, 1965a eta gero Espainiako gobernuak “salvo conducto” dokumentua luzatzen du. Honekin Espainian 30 egunez arazorik gabe egon zitezkeen.

Bere arreba 4-5 urte lehenago joan zenez, a salto pasa zen, baina gero Espainian ez zuen inolako babes ofizialik izan.

Besteak, kontrabandoa eta batez ere kafe kontrabandoa aipatzen du. Urtetan Portugaldik Españara kafe kontrabandoa egin zen. Carrego-k ziren. Nire ustez, euskaldunak eta portugesak edo portugesekin kontaktua zuten espainolak, kafe kontrabando garaitik ezagutzen zuten elkar. Honi esker kontrabandoak jarraitu zuen, oraingoan pertsonen kontrabandoak. Portugaldarrak Españara pasatzen zuten kafea, Iruñera ere iristen zen. Hemendik kamioiez edo kotxez mugako herrietara, Etxalarrera esaterako, eta hemendik Sara aldera pasatzea ohikoa izan zen adibidez. Honetan nire aita aritua zen. Bere esanetan, bide hau eginez Saran kiloka kafe entregatzen zieten alemanei. Eskutik eskura.

Beraz portugesekin egindako bideak jada jorratuta zeuden. Kafe kontrabando bideak berreskuratu ziren.

Arratsaldea zen. Gure itzulia amaitzear zegoen. Baina oraindik Navasfriasera joan behar genuen. Hala nahi nuen nik, baina Encarnak ez zidan honetaz deus esaten. Bere herrira itzultzeko gogo handirik ez zuenaren errezeloa banuen. Baina bai. Berak esan zidan :

- Oye Rosa, pasaremos por Navasfrias no?
- Pues si, estaria bien. – eskerrak ! pentsatuz.

Hurbiltzen ari ginela nahiko ixilik egon zen Encarna. Gero, behin herri txiki hartan sarturik, esto era la tienda, y alli vivia..., ah y aqui mira paso lo que te dije.... Y aqui estaba nuestro bar. “

Ba bai. Abandonaturik dagoen eraikuntza koxkor bat zen beraien ostatua. Harrizkoa. Herentzian berarentzat gelditutakoa. Berak gorrotatu zuen ofizioaren bulegoa, berea da. Ez omen daki harekin zer egin. Han dago. Itxaropenez beteriko eta aldi berean izuaz gainezka gerturatutako portugaldarren gordelekua han dago erabat abandonaturik.

Herri oso ttikia da Navasfrias. Inguruko eremuak nahiko zelaiak dira. Muga pasatzeko erraza oso. Ez da geografikoki eragozpen handirik. Gorde beharra, kontuz ibili beharra besterik ez. Fisikoki Portugaldik Espainiara handik pasatzea ez da neketsua. Arazoa Guardia Civila zen. Eta hauek erosten ziren. Hemen, Euskal Herrian, kontrabandoa egiterakoan erosten ziren ere baina portuges pasan aritzen zirenean, ez zen horrelakorik gertatzen. Gehienetan behintzat ez. Hala esan didate. Jende pasan aritzerakoan, kontrabandoaren beste maila batera pasatzea zen. Pasa beharrekoa pertsona zenez, dimentsio handiagoa hartzen zuen ekintzak eta honetan kasu gehienetan behintzat, guardia civilak ez ziren sartzen jokoan. Encarnaren esanetan, Guardia Civilek Navasfrias destitotzat izateak loteria irabaztea izaten omen zen. Izan omen ziren hainbat guardia civil ez ikusiarena eginez dirutza egin zutenak. “Mas de uno no creas.”

Izan ziren ezbeharrak ere.

“Una vez mataron a un chaval aqui. No era alguien que pasara mucho, lo normal. Y en un alto que no paró, lo mataron. Sabian quien era y todo el pueblo se echó a la calle. Fue una especie de rebelión popular que pudo

acabar muy mal porque los animos estaban muy caldeados. A aquel guardia lo destinaron a otro lado y ahí acabó la historia.

Una pena.”

Bide gurutze batera ailegatu ginen eta ezkerrerantz abiatu beharrean,

- Mira te voy a enseñar algo – esan eta eskubiko errepidea hartu genuen. Vamos hacia Puerto Perales.

Izena ezaguna egiten zitzaidan pasatzaile euskaldun batek baino gehiagok aipatua baitzidan. Bertako inguru haietan portugaldar asko kotxetan sartu eta ekartzen zituzten. Baina Encarnak beste zerbaitek erakutsi nahi zidan.

- Mira, Rosa, esto es lo que queda de uno de los mayores y por lo que decían mejores puticlus que había. El jabali. Aquí se gastaron miles y miles de pesetas que se habían cobrado a estas pobres gentes. Ya ves.”

Eta Puerto Peralesetik Ciudad Rodrigo aldera jo genuen.

## **EUSKALDUNEN LINEAK.**

Hainbat euskaldunek eramanez , milaka portugesek itzaropenezko bidea hasi zuten .

Ez ziren euskaldunak bakarrik honetara dedikatu ,baina portugesek gehienak, Euskal Herritik joandako pertsonen ekarritakoak izan ziren.

Euskaldun ekartzaileak lineaz mintzatzen dira. Autobus lineaz aritzen garenen antzera. Beraz, bide desberdinak eginez, linea desberdinak ditugu.

Linea hauek kafe kontrabandoa egiteko, Portugal-Frantzia bideak jorratzeko iada martxan jarriak ziren . Kafea, Portugaldik Iruña bitarte ekartzen zen

gero Frantzi alderat kontrabandoz pasatzeko . Berdintsu egin zen portugesak pasatzeko. Bideak , lineak, lehenagotik bazeuden. Gure mugetan lehenagotik kontrabando bideak zeuden antzera. Eta baita Portugalen zeuden antzera. Alçira adibidez, kafe pasatzen ,a carrego, aritu zen eta bide berdinak eginez portuges pasan.

Euskalduna linea bat baino gehiagoz baliatuko zen eta linea bakoitza ez zen euskaldun bakarraren eremua. Linea berdina , batek baino gehiagok erabiltzen zuten.

Euskaldunek ez zuten eskusiboki lineatan lan egin, mugalariak ere izanak ditugu. Hau da, batzuk mugalari modura hasi ziren, gero negozioa handitu behar zutela pentsatu, eta bide luzeagoa egin. Beste batzuetan, linea egin eta baita mugalari lanak ere eginak izan dituzte. Honetan ere.... segun zer eta nola suertatzen zen.

### **DONOSTIATIK.**

1960. urte inguruan, Leok Bordelen Versailles markako bi kotxe erosi zituen. Lehenagotik kontrabandoan aritutakoa zen. Bi kotxe hauekin bera eta beretzat lanean aritzen zena, Fuentes de Oñorora joaten ziren. Portugaldar pasatzaileak haruntzaino 16 bat portuges a salto eraman eta 8 kotxe batean, bestean beste 8 sarturik Donostiarako bideari ekiten zioten.



Espainiako mugara bertaratzea egunez egiten zuten. Arrats-gau aldera “kargatu” eta ilunpean egiten zuten bidea. Argi asterako Donostiara, etxe batera iritsi eta han portugesak eguna pasatzen zuten. Leoren andreak prestaturiko bokadiloak eta edaria bertaratzen zizkieten.

Hurrengo gauean Berarantz abiatuz, beste mugalari batzuk, Urruña aldera mendiz eramaten zituzten. Ibardin aldetik askotan pasatzen ziren. Urruñatik kotxez Angeluko tren geltokira hurbilduz, portugaldar bakoitzak bere tren txartelarekin Pariserainoko bidea egiten zuen.

Azken zati hau (Bera-Urruña-Angelu) urruñar baten esku zegoen, hau ere batzuetan Portugal alderat joanez, bertatik bere kontu portugesak ekarriz ibiltzen zelarik. Gizon honengana jo nuen, baina gai hauetaz ez du hitz egin nahi.

Leok dioenez, trenez Pariserat iritsi ondoren, kontaktatuak zeuden, taxistak behar zen helbideetarat eramateko zain egoten ziren.

Portugesak biltzeko Leoren bitartekoa Quadraçais herrian zegoen. Eta gizon honek, Antoniok, Fuentes de Oñororaino pasatzeko, mugalariekin tratuak ere egiten zituen.

Leok esanda jakin nuen Quadraçaisen ere emakume bat honetara dedikatzen zela. Leok kontatzen zizkidan kontuak guztiz interesgarriak zirenez, Quadraçaisera joan behar nuela erabaki nuen.

Eguraldi eguzkitsu batean iritsi nintzen. Kanean inor topatzen ez nuen herri hartan ibiltzen hasi eta buruz buru emigratzaileen omenez eraikitako estatua batekin topo egin nuen. Nire ikerketarako toki egokira iritsia nintzeneko seinale!

Jira eta biraka jarraitu nuen gizon bat ikusi arte. Zertan ari nintzen azaldu nion erdaraz eta hark portugesez beste gizon baten bila joango zela erantzun. Handik gutxira Juliorekin batera etorri zen. Azaldu nion zertara joana nintzen haraino, zeintzuk ziren asmoak eta berak, bazkaldu ondoren herriko tabernan zitzatu ninduen.



Julio beste bi lagunekin, Octavio eta Antoniorekin etorri zen . Juliok bere etxean biltzea proposatu zigun eta hantxe, mahai baten inguruan hasi zen gure arteko kontu kontaketa. Bestiak beste Quadraçaisen emakumeren bat portuges pasan aritua ote zen galdetu nien eta baietz, bere izena Alçira zela erantzun zidaten .Leok esandakoen antzera emakume honen gora beherak azaldu zizkidaten :

“Si. Era contrabandista. Andaba con pantalón, chaqueta de pana, sombrero y pistola al cinto. Carlos, su hijo, nació en la sierra , en una noche de contrabando.

Ella se encargaba de hacer salir a los que querían ir para Francia. Venían a su casa y allí se trataba todo.”



Leok kontatutakoa egia zela pentsatzen nuen, bi muturrak lotu izanak poza eman zidan.

Quadraçaisera A salto beste aldera pasatu nahian sekulako portuges pila gerturatzen omen zen. Bertako batek esan zidanez herri hau , la capital do passage izan zen. Ez dakit. Bertaratu naizen herri haietan guztietan berdintsu esan ohi didate. Alegia, milaka (900.000 ?) portugaldarrek muga a salto egin zuten, Portugal erditik hasi eta Galiziako iparraldeko muga ia guztiko herrietatik pasatu behar zuten, capital do passage herri bat baino gehiago izanen ziren.

Gauza gehiago jakin nituen Antonio, Julio eta Octaviori esker. Hiru gizon hauek Quadraçaisekoak izanik, lan bila Frantziara joandakoak ziren.

Quadraçaistik Espainia aldera oinez pasadorerik gabe egin zuten. Ez zuten honen beharrik, hamaika aldiz kontrabandoarekin egin zuten ibilbidea!

“Eramos como conejos bravos. Estabamos acostumbrados. Cogíamos el macuto, 15-20 hombres, llenos de café y íbamos por la sierra.”



*Antonio-Julio eta Octavio Quadraçaiseko iturri ondoan.*

Antonio lehenengo aldiz 1954an joan zen. Muga gainditu ondoren kotxez Iruneraino eramanak izan ziren. Leok egiten zuen antzera, Otiliak erabilitako linea jarraituz.

Irunen kotxetik atera eta mendiz ibili omen ziren. Aldabe mendian zeudela pentsatzen dut : “subimos por el monte que había un castelo, o una ermita o algo así. Luego bajamos para Bera, de noche.”

Bidasoa ibaia gurutzatu beharrea zeuden, bakarrik, laguntzarik gabe... baita egin ere. Guztiz arriskutsua. Hamaika ito ziren horrelakoetan saiatuta. Antoniok dioenez “Lo complicado era el rio. Cerca del posto de la Guardia Civil. Nosotros solos. De aquí habíamos ido 7 en total y sólo pasamos el rio.”

Dax-en trenaren zain zeudela harrapatu zituzten eta Berako mugatik pasarazi. 1954ko abuztuaren 21ean Iruñeko kartzelara eraman eta bertan 21 egun pasa zuen. Gero Burgosera , bertan hiru egun. Ondoren Salamancara, han 6 edo 7 egun igaro eta Villar Formosotik PIDE portugaldar poliziaiei entregatua izan zen.

Hauek egunero galdera berdinak egiten omen zizkioten : norekin joana zen, pasatzaileak espainolak edo portugaldarrak ziren...

Bakarrik, bere kabuz joana zela erantzuna.

Antonio bigarren aldiz saiatu zen. Metodo berdinez baliatuz. Quadraçaistik Ituero de Azabara pasa zen eta handik kotxez Tolosara eraman zuten. Kotxe hartan joateko gabardina bat eman zion taxistak. Ia luxuzko bidaia izango balitz bezala kontatzen du :

“Vinieron con una gabardina para cada uno, como si fuéramos turistas. Llegamos a Burgos y comimos en una fonda, parecíamos capitalistas.”

Tolosara iritsi eta etxe batean egon ziren. Bertan beste linea baten medioz etorritako portugaldarrekin suertatu ziren. Batzuk Quadraçaisekoan. Eta arazoak sortu ziren. Nonbait talde bateko portugaldarrak dirurik gabe zeuden eta bertaraino eraman zituenak bidaiaren azken zatia beraiek ordaindu behar zutela esanez alde egina zuen. Mugalariak dirurik gabe ez zituela pasako, portugaldarrak joan nahi eta dirurik ez...

“Si no pagabamos lo de ellos- dio Antoniok- , aquella noche se quedaban allí. No tenían las perras con ellos. El que los había llevado hasta allí los abandonó, se fue y se quedaron sin nada.”

Ordainketak egin eta bi kotxez Tolosatik Bera ingurura eraman zituzten.

“Había un barracón con paja y nos quedamos allí.” Bordaren bat izango zen seguruen.

Gero, bakoitzaren izen abizenaz deiturik, beste pertsona batek muga pasatu , trenean sartu eta Parisera joan zen. Handik Normandiara. Azken bidaia, trenez egindakoa alegia, lana egin behar zuen fabrikak ordaindu zion. Burdin fabrika bat zen.

Garai hartan 25.000-30.000 pezeta ordaindu zuela dio. Asko omen.

Leo ere diru kontuz aritu zitzaidan :

“Portuges bakoitzak eramaten zuen bere fotografi erdia eta Pariserat ailetzerakuan ematen zion tasistari, honek rebisoriari, honek Mattini (Urruñakoa), honek niri eta berriz ere Fuentes de Oñororat jeisterakuan, han kontaktuak (Antoniok) bertze erdia izaten zuen eta fotu erdiak elkar jarritz, puzlia eginda kobratzen zen.”

Antonio bat dator Leorekin :

“La historia de la foto cortada en dos venía porque mucha gente los abandonaba y tenían que volver atrás. Claro daban las perras de golpe al pasador y ahí estaba el mal . y llegaron a la conclusión que había que hacerlo de otra manera. La mitad de la foto la llevaba en la cartera el que se escapaba de aquí y la otra mitad se quedaba en Quadraçais con la persona que se quedaba con las perras.

El dinero lo tenía gente seria de aquí. Por ejemplo aquí enfrente había un comercio y como era gente honrada, guardaba las perras... sin ganar nada. Esa gente no tenía ganancia ninguna. La ganancia que tenía era que en vez de ir a otra tienda pues se iba a esta.

Cuando llegaba al destino, le daba la mitad de la foto al pasador y otra vez, para atrás llegaba aquí y recogían las perras y las repartían entre ellos como tenían pensado.”

Eta honi Leok zerbait eransten dio :

“ El peligro estaba en que te dejaran a deber, a ver cómo reclamabas! “

Eta dirudienez, Fuentes de Oñoroko Bernardo bitartekariarekin lanean aritu eta ez kobratzea gertatu zitzaion.

Ez kobratzearena izan zitekeen arrisku bat. Bestea Guardia Civilek bidean gelditzea.

Leoren kotxeek frantses matrikula zuten, Versailles modelokoak ziren eta Portugal aldera joaten ziren. Guztiz susmagarriak!

Gelditu zuten batean, nora zihoan galdetu eta Leok bataio batera erantzun zien.

Beste behin, Valladolid aldean kontrola topatu zuen. Galderak, dokumentazioa.... oraingo honetan bere negozio, negozio legala zela eta zihoan.

“Nafarrak” hasi zirela portugesketa esan zidan. Prezioak jeitsi ziren . Leok negozio legala martxan zuenez , arrisku handiagoak gerturaten ari zitzaizkionez eta diru aldetik hain tentagarria egiten ez zitzaionez... portugesei ekartzeari utzi zion.

## **ELIZONDOTIK**

Anizko Maitanek, nire lankide kuttunak, aspalditik lan honen berri bazuen. Baztan aldeko lekuko askorik ez nuenez, berari nire gora-beherak kontatu nizkion. Honek bere amari aipatu zizkion. Hala, bi emakume hauei esker, lekuko honen ezagutza egin nuen.

Ez du bere izenik agertzea nahi, eta noski nola ez , errespetatuko dut. Bera ez da Elizondokoa, baina han egin nioenez elkarrizketa, Elizondoko gizonaz ariko gara. Linea Elizondotik edo ingurutik hasten zen, hori bai.

Gizon hau, gazte denboran, ia haur denboran, 12 bat urte zituelarik, kontrabandoa egiten hasi zen. Anaiarekin batera Alduderat zigarro paperak Elizondoraino ekartzeko joaten zen. “Zig-zageko papera”. Meza ere bertan entzuten zuten .

Alduden kaxa luze bat erosi, “100 librilukua” eta mendiz beste aldera ekarriz, 100 pezetatan erositako hura 200etan saltzen zuten. Negozio galanta eta elizarekiko lanak eginak !

Gero kafe pasatzearen garaia etorri zitzaion . Geroago besteak beste... portugesak.

Elizondotik kontrabando anitz egin zen. Luis Antonio Iribarren, Iruñeko abokatuak lanbide honekin diru asko irabazi zela dio. Bere esanetan “... decían que Elizondo era el pueblo de España donde más bancos había. Y desde luego había muchos bancos.”

Lekuko honek , portugeseekin bide luzea egiten zuen. Portugal eta Galizia arteko mugan, Ponte Barjasen hiru ahizpa , Artemia, Elena eta Felisak komertzio bat zuten. Emigratu nahi zuten hainbat portugaldar bertaratuz, emakume hauek bidaia antolatzen zuten.

Txofer katalan batekin Burgoseraino joaten ziren eta gero elizondar hau bertaratuz Baztango ahal zen herriraino eramaten zituen. Hemendik aurrera bertako mugalarien kontu.

Elizondoko gizon honek noiz eta nora joan behar zuen jakiteko, Berroetako telefono publiko bakarra zuen neskekin mantentzen zuen harremana. Honek diru pixka baten truk, berriren bat izaterakoan abisatuko zion.

Ekartzen zuen portugese bakoitzeko kobratzen zuen . Ahizpek berari eta katalanari ematen zieten dirua. Gero elizondarren kontu izanen zen baztango mugalaria eta Pariseraino edo... eramango zuen pertsonari ordaintzea.

“Neri hango andriek pagatzen ziaten. Gaten nintzenian berriz. Eta katalanari ere, txoferrari beraiek. Nik hartu eta kargo egin behar nuen Pariseraino.”

Horrela asko aritu zen. Ongi konpontzen ziren nonbait.

Ahizpa hauekin nola hasi zen galdeturik, Olaguko baten bitartez, Jose Luis Mitxes , izan zela erantzun zidan. Elkar ezagutzea kontrabandoaren medioz izan zen.

Saioa menditik paketeekin zihoala, gizon bat 10 portugeseekin pasatzen ari zela konturatu zen. Elkarrekin topo egin zuten . Norbaiten beharrik ez ote zuten galdetu zion Jose Luisi eta honek Olagueko bere etxera joateko esan. Jose Luisek ahizpen berri eta hauen helbidea eskuratu zion. Bertaratu behar zuela erabaki , kotxea hartu eta ez maparik ez eta geografi ezagutza gehiegirik ere, baina deliberazio izugarritz abiatu zen. Hiru egun behar izan zituen ailegatzeko!

Kotxearekin arazoak, galdua ere ibili zen.... Baina hiru ahizpa haien ezagutza egin zuen. Negozioa martxan jarria zen.

“Nik izan dut baloria, beste guzia falta. Eta lan egiteko gogua!”

Ez naiz harritzen hiru egun izan beharra hiru ahizpa hauengana gerturatzeko! Niri ere ia-ia hiru egun kostatu zitzaidan hiru ahizpa haiek non kristo zeukaten komertzioa aurkitzen!!!

Ponte Barxas herri txiki bat da. Muga-mugan dagoen herria. Mendi kozkorrez inguratua. Arnegi tankera eman nion. Txikiagoa Ponte Barxas. Bertako dendak askoz ere apalagoak. Baina muga egoteak, nahiko zokoan eta mendiz inguratua egoteak... Arnegi etorri zitzaidan burura.



Elkarrekin solasten ari ziren bi emakumeengana gerturatu nintzen eta zertan ari nintzen, zertara joana nintzen esplikatu nien. Bai, portugesez anitz

isilpean pasatu zirela garai haietan, ezbeharrak gertatu zirela, kontrabandoa betidanik egin zela... esan zidaten. Adin gehiago zuenak , bere senarra Guardia Civila izana zela eta askotan mendietan portugesak abandonatuta harrapatu eta kuartelera eramanak zituela esan zidan. Beste emakumeak, dendaria izandakoak inoiz entzuna ez nuen kontrabandoaz aritu zitzaidan : platano kontrabandoaz hain zuzen ere. Beranduago, Portugaleko Castro Laboreiron beste emakume batek honetaz ere solastu zidan. Nonbait garai batean Portugalek ezer gutxi inportatzen zuen . Espainiatik, Ponte Barxastik , mendiz Portugalera platanoz betetako kaxak eta kaxak eramaten ziren. Baina platanoen kontrabandoa ez zen nire helburua. Ahizpa famosa haiek non kokatu zen nire asmoa. Eta Ponte Barxasen topaturiko bi emakume hauek ez zutela ahizpen berririk esan zidaten. Ponte Barxasen ezetz, ahizpe haiek bertan dendarik ez zutela izan ziurtatu zidaten. Eta orain? Baina... jarraitu zuten bi andreak... mendi aldean, “aldea” asko bazeudela, bertan denda dezente izan zirela zioten. Nola denda dezente “aldea” txikietan ? “Hombre, por lo del contrabando ! “



*Ponte Barxas eta Portugal arteko muga*



Aldeak, herri txiki-txikiak dira. Guretzat, Euskal Herriko herrietako auzoak izan daitezke. Galizian, Asturiasen ere guretzako auzoak direnak, han herriak izan daitezke.

Ponte Barxastik aduana zahar aldera joanez, ezkerretara pista bat bazela esan zidaten eta hura jarraitu behar nuela Lapela herrira iristeko . Han , igual, zerbait jakingo zuten, emakume bat izan baitzen bertan dendatxo bat izan zuena.

Bidea aldapatsua eta bihurgunez betetako pista zela ere esan zidaten. Kontuz ibiltzeko beraz.

Bai aldapatsua zela, bai! Jaungoikoaren izenean! Ohituta nago maldekin baina...! Gora eta gora eta gora...eta buelta eta errebuelta eta goiti, beti goiti... Lapelara iritsi arte. Handik bista zoragarriak. Mendiak, mendiak eta ube eginez, zokoan Ponte Barxas.



Lapelara iritsi , bueltaxka batez bertakoa ikusi eta jenderik ez. Bi zakur handi niregana hurbiltzerakoan... up!!! Ikaratuta atzera egin nuen. Inor topo egiten ez nuenez, handik joan behar nintzela erabakitzerakoan , hara non ondoan neukan etxe bateko balkoian isil-isilik, beltzez jantzitako emakume bat ni begiratzen. Honek ere sustoa eman zidan. Dendaz eta ahizpez galdetu nion. Maria eta Antoniok baietz, dendariak izan zirela,

baina ez inongo hiru ahizparik . Herrixka gehiago bazeudela inguruan eta agian Monteredondo deiturikoan jakingo zutela , beltzez jantzitako emakumeak esan eta bideari ekin nion.

Gora berriz, pistan gora eta gora. Birunda eta birunda.

Monteredondo izena, agian inguruan granitozko harri erraldoi borobil-borobil asko daudelako izango da.

Noizbait iritsi nintzen. Herriaren sarreran taldetxo bat solasean, egonean. Adineko gizon-emakumeak . Gerturatu nintzaien. Berriro... zertan ari nintzen...

Serafinek, 82 urteko gizonak, kontrabandoa aipatu zidan. Portugesen emigrazioaz galdetu eta irri murrikaz, ezer gutxi zekiela. Ya! Bera ez ote zen asunto horietan ibili , berehala etorri zitzaidan burura.

Ahizpaz ez zekiela baina, herrixka gehiago bazeudela inguruan eta agian Azureira-n .... Etsitzen hasia nintzen.

Inguruan emakume gazte bat bere lanetan bazebilen. Kotxerantz banindoalarik , “Oye, te he oido y mira yo sí que me acuerdo de una mujer que venía por aquí en un mulo a vender cosas... una mujer muy grande !”.

Hartan Serafinek “ Sí , es verdad. Era una mujer que por lo menos era yo tres veces !” barrezka.

Eta poliki-poliki hiru ahizpa zirela , baina izenek Artemiak-Felisak eta Elenak ez ziela ezer esaten, baina bai, hiru ahizpa zirela haiek... aritu ziren. Azureiran bikote bat bakarrik bizi zela ere esan zidaten. Rosa eta bere senarra . Haiei galdetu behar .

Haruntza. Eta bai, gorago .

Lau etxe (esaterako, baina ez askoz gehiago, ez pentsa!), zituen Azureira-ra iritsi eta, “Hay alguien? Hola!!” oihukatu eta inor. Hau komedia! Bi txakur txiki. Bata gorri-gorria, sinpatikoa oso. Bestea txikia eta builoso. Oraingoan ez nintzen beldurtu, ez nuen alde egin.

Inoren erantzunik ez nuen. Hartan behi eta ahuntz batzuk ikusi nituen eta iratze artean mugitzen zen zerbait. Gerturatu eta poliki poliki beltzez jantzitako emakume bat zutitu zen. Rosa ote zen galdetuz, baietz errezeloz. Erdaraz Monteredondon esandakoa eskuratu nion eta berak galegoz hiru ahizpen berri, berri motzak , eman zizkidan.



*Bi Rosa parez pare.*

Garaian, Azureiran hiru etxetan jendea bizi omen zen eta hiruretan denda zuten. “Contrabando” garbi esaten zuen Rosak. Portugesez galdeturik, ezer gutxi ,baina hiru ahizpek dendan portugesak izaten zituztela bai, azken hau ziurtatu zuen.

Etxearen alboan hiru eskailera igo eta dendara sartzen omen zen. Honen azpian , ardoak edukitzeko tokia eta almazena. Dendaren ondoko eraikuntza ahizpen bizitokia.



Ondoko herria, Azureia, Portugaleko eremuetan dago. Muga errekatxo batek markatzen du. Hau bai a salto, a saltito ere egiterik dagoela!!!

Hiru ahizpen etxetik errekatxora 300 metro eskas daude. Pentsa.

Herritik bertatik ez ziren portugesak pasatuko baina nahiz eta herritxoa saihestu, alde batetik bestera pasatzeko ez dago inolako arazorik . Hiru ahizpen dendako atetik sartuz, bertan lasai egoteko ere ez.

Nire ustez, Guardia Civilak “zakurranihurtzulun” dauden aldea haietara ez ziren maiz joanen eta joaten baziren, bertakoek erraz ikusiko zituztela iristen pentsatzen dut. Dena den, beti ere dendan, zerbait erosten edo edatera joanak zirela esaterik bazuten. Horregatik existitzen ziren denda klase hauek. Gure Bentten antzera. Kontrabandoaren almazenak ziren.



Guardia Civilek nahiko lan zutenez beraien hilabeteko murritez, agian diru konponketak ere bazeuden Azureiran ere. Gure eremuen antzera.

Beno, lortua nuen helburua. Hiru ahizpek eta hauen dendara iritsi nintzen. Edo , ez ? Ja!!

Rosak, hiruhizpek denda zutela ziurtatu zidan bezain seguru esan zidan hiruhizpen izenak ez zirela Artemia, Felisa eta Elena. Seguru. Hauen izenak, Sinda, Rosa eta Dulinda dudik gabe.

Zer gertatzen ari zen ? Kasualitate handia izanen litzateke Elizondoko hark xehetasunez esplikaturiko eremuak, egoerak eta pertsonak bat ez etortzea nik han aurkitutakoekin. Ez zen posible.

Nire ustez, haiek ziren eremuak, haiek protagonistak baina azken hauek ez zizkioten elizondoarrari beraien benetako izenak esan. Portuges pasan aritutako euskaldun askok berea ez zen beste izen bat erabiltzen zuten. Portugaldarrak harrapatuak suertatzen baziren nork eramanak zituzten galdetzerakoan, izena jakiten bazuten ez zen benetakoa izaten. Berdin nire ustez aizpa famosa hauen kasuan. Elizondoarrak Felisa, Artemia eta Elenataz ezagutzen zituenak, errealitatean Sinda, Rosa eta Dulinda ziren.

Elizondoko gizonak beste bide, linea bat, Verinetik izaten zuen. Saratar baten antzera. Honek ere ez du bera nor den idaztea nahi. Verinera ere Legasako Migel joaten zen. Beraz, Baztanetik, Saratik eta Legasatik linea berdina egiten zuten gutxienez hiru gizon bazeuden.

Verinen, Ideal ostatuko nagusiak, Santiagok, portugaldarrak Sanabria alderat, itturri bat zegoen ondora gerturatzen zituen. Hemendik euskaldun honek Baztan alderat ekarri.

Itturritaz galdetuz, Sanabria aldera doan 525 errepide nazionala jarraituz, portura iritsi baina lehen ezkerretara joz aurkituko nuela esan zidaten. Eta halaxe. Hango arboladietan portugaldarrak egoten ziren.



Verinen, Ideal ostatua non ote zegoen jakin nahi nuen. Bertara Antoniok eraman ninduen. Atzeko aldetik portugesak kargatzen zirela esana zidan elizondoarrak eta Antoniok baietz, horrela gertatzen zela ziurtatu. Ideal ostatuak , taberna eta logelak zituen. Portugaldarrak goizaldera iritsiz, hurrengo arratsa arte egoten ziren. Orduan kotxean sarraraziz bidaiari ekingo zioten.

Baztango honek , nagusiak Santiago zuela izena esan zidan baina Antoniok aldiz Luis izena zuela dudarik gabe zioen. Aizpen kasu berdinen aurrean gaude. Benetako izena herritarrek jakiten zuten ez kanpotik zetozenak. Baztandarra Guardia Civilen esku gelditu ez gero Santiago izena esango zuen baina Ideal tabernako nagusia ez zen Santiago, Luis baizik.

Linea honen beste kuriositate bat, Santiagok ostatua izan baino lehen Guardia Civila izan zela da.

Elizondoar honek, Galiziatik portugesak hartuz Donostiaraino ere eramaten zituela dio. Donostiatik askotan Etxalarrera eta hemendik Sararako bidea beste mugalarien eskutik egiten zuten.

Kobratzeko garaian argazki erdiaren sistema kontatu zidan :

“Portugesak beren lekuan, beren herrian egiten zuen kontratu bat. Honenbertze diru, 2000 pezeta, 3000 pezeta baina ongi ailegaten zirenean kobratzeko. Dirua depositu modura, beraien herrien, konfiantzazko jendeari utziz, gero kontraseña bazen. Fotografia bat erditik puskatzen zen (erdi bat beraiek, bestea depositean). Ta haiek ailgaetzen zirenean bere tokira, pasadoreari eman (zeramaten erdia) . Eta behar zen konparatu (bi puskak bat osatzen ote zuten.) eta orduan pagatzen zuten.”

Baina portugesak helmugara ailegatu eta notizia onak eman behar zituztela dio. Bestenaz, igual kobratu gabe gelditzen ziren. Horregatik, bide luzea egiten zuten kontrabandistei, ongi tratatuak izatea interesatzen zitzairen.

“Jendeak gaizki tratatzen zitun eta gero kobratu gabe gelditzen ziren. Ezin kobratuz. Igual batek ongi egin bainan pasatzaileak gaizki tratatu eta solas txarrak erraten zituen. Arrazoiarekin. Anitz gelditu zen kobratu gabe. Nik egin nuen lana ahal zen bezain ongi. Nonahi gelditzen baginen jatekoa eman eta... ondoko egunean hartu eta... ahal zen ongien. Jendea zen.”

Baina zenbait egoera eta jendez gaizki solastatzen da:

“Bandido pito guztiek sartu ziren lan horietan! Lehenago ez ziren kontrabanduan arituak hoiek! Ikusi zuten sosa irazi ahal zutela eta.....



Kotxe bat alkilatu edo ebatsi ere bai edo Frantziatik Peugeotera joan eta ibiltzen zen edozein kotxe bat ekarri eta.... Joaten ziren.! “

Ohartu bazarete, kontrabandoan iada ibilia izatea inportantetzat jotzen du gero pertsonak pasatzeko. Hau da, kontrabandoan, paketeetan ibilia ez dena ez da gai gero portugesketan ibiltzeko. Paketeekin aritua izatea beste lan honetarako, portuges pasan aritzeko, garantia bat da. Ezin da lan batean aritu lehenagotik ofizioa ikasia ez bada. “Lehenago ez ziren kontrabanduan arituak hoiek!”

“Portugesak laguntzia meritua zen” gehitu zidan. Bi alde ikusten zituen berak. Alde batetik eta hau zen inportanteena, dirua irabazteagatik portuges ekartzen aritzen zen baina honi gehituko dio beste alderdia, alde humanarioa esan dezakeguna. Ez da elizondoar hau bakarrik iritzi honetakoa. Batek baino gehiagok gizon pasatzearen arriskuak gogoratu, merituak beraien buruari itsasten dizkie. Ez harropuzkeriaz, ez. Portugesak beraien herrietan errealitate zaila zutela jakinik, itxaropenezko bizitza bat lortzearren lagundu izateaz arto sentitzen dira.

Kontrabando honetan harrapatuak izanez gero, Ley de vagos y maleantes martxan jarritz, kartzelaratuak izaten ziren.

“Pasatzaileak hartu nahi zituzten.” Bai hala zen. Eta honek beldurra sorrarazten zuen, noski.


Elizondoar gizonak, Arraiozko bentan bizi zen Antonio Etxenike aipatu zidan. Honek Iruñeko tasistak ziren Ursua eta Esparzarekin zuen harremana. Etxenikek tasisaz garraiatuko zituen portugaldarrak engajador baten medioz egiten zuen.

Iruñarras ari zenez, Ciudad Rodrigoko Encarnak Iruñeko gizon bat bere etxera joanez aitarekin tratuak egiten zituela eta solastatu nintzaion. Nonbait gizon honek portugesak Euskal Herrira zekartzala, argi indar kable batekin bidean topo egin, eta hura handik kendu behar zuela pentsatuz kotxetik jaitsi zen. Lurra bustirik zegoen, kablea ere beraz hau hartu bezain pronto... seko gelditu zen. Hala esan zidan Encarnak eta baietz, hala gertatu zela elizondoar honek ere. Baina hildako euskalduna ez zen Iruñekoa, Erratzuko Basilio Mortalena baizik :

“Orduko ongi montatua zen. Gu kotxe batekin ibiltzen ginen eta orduko, hura kamion koxkor batekin ibiltzen zen. Bera gaten zen txofer, ez zen inorrek fidatzen. Ez dakit zenbat gizonekin eldu zen, gelditu zen. Kablia lurrean zen eta harek erre zuen. Bai ! Ezagutzen nuen anitz. Balientia zen. Ez genekien inork ere (portugesketara dedikatzen zela). Hura erre zelaik jakin genun. 40 bat urte zuen.”

Dirudienez, Portugaleko muga aldean eramaileak edo Iruñekoak zirela edo Donostiakoak esaten zuten. Iruñekoak izan zitezkeen baina Arraiozekoak edo Etxalarkoak edo Erratzukoak baziren, hauek ere Iruñekoen multzoan sartzen zituzten. Berdin “de San Sebastian “ esaten zutenean. Auskalo Irungoa edo Tolosakoa edo Zarautzekoa bazen ere.

Irurtzun eta Iruña artean baserri bat badago. Argi hastean, askotan han uzten zituzten. Jana eman eta deskantsatu ondoren, hurrengo gauean ahal bazen kotxez, muga aldean dauden herri inguruetara gerturatuz, oinez egin beharko zuten bide ondarra.



Gizon hau, Leo modura aritutakoa da. Portuges pasan lehenengo txandakoak direla esan dezakegu. Biak ere, hasiera haietaz berdin diote :

“lehenbizian, hasi zenian, polita zen. Kotxe batian 5 lagun hartu, Galizian por ejemplo eta Dantxarineako bidian utzi. Iluntzian hartu eta handik Frantziarat. Frantsesak biharamunian Paris alderat. Orduen majo zen baino... gero hasi zirenian jendia kamioiak hartzen eta 54-60 jende pasten... “

“Kamioiak tranpaikin prestatzen zuten. Dobleko pisuekin. Kamioi azpian ate ttiki bat egin eta handik sartzen ziren. Edo gibeletik bertzenaz. Gero muebliak edo jarri eta Galiziatik Iruñara hola. Gelditzen bazuten (guardia civilak),

- ¿qué lleva usted? Eta
- Muebles...”

Kamioiez ari garenez, aprobetxatuko dut zenbait harrapaketari buruzko xehetasunak emateko .

Hasieran, esan dugunez, kotxez ekartzen ziren portugesak. Beranduago aldiz, “doble fondo“ zuten kamioietan baita autobusez ere. Bidaia

bakoitzeko askoz ere pertsona gehiago gerturatzeko ahal ziren Euskal Herriko mugara. Portugaldar bakoitzak gutxiago ordaintzen zuenez garai batean, pertsona gehiago ekarriz, irabaziak parekatu eta askotan areagotu ziren.

Côte Basque Soir egunkariak, 1962. Urteko Azaroak 13an, Altsasun 17 portugaldar zekarren kamioi bat Guardia Civilak gelditu zuela dio. Gidaria eta portugaldarrak atxilotuak izan ziren:

“Des gardes civils ont arrêté près d’Alsasua aux confins de la Navarre et de Guipuzcoa un camion qui transportait, habilement dissimulés, 17 Portugais. Le chauffeur a été appréhendé ainsi que ses passagers.”

Jendea kamioiez , manera haietan eramatea, gehiegikeria iruditzen zaio Elizondoko lekukoari. Berak egiten zuena aldiz, “humanoagoa”.

Honekin Iribarren abokatua bat dator. Bere esanetan “ Hubo un momento que aquello fue bastante inhumano que fue el tráfico de portugueses... En un principio era una profesión como muy romántica... en todas esas zonas de Baztan los apreciaban y era gente absolutamente conocida.”

## LEGASATIK

Migel kontrabandoarekin gazterik hasi zen. Kontrabandoa gutxitu zenean, Amerikara joatea erabaki zuen. 1965ean bueltatu zenean, lehendik kontrabandoan elkarrekin aritutako Martinek eskaini zion portugesak mugaz bestalde pasatzearen lana, 30 duroren truk. Eta hala hasi zen. Mugalari gisa.

Baina Valverde del Fresnoko Albertok bazuen engajador propioa eta gizon honek linea berri baten beharra zuen. Migeli linea honen buru izatea proposatu zion.

Amerikan kotxea gidatzeko baimena lortua zuenez, bera linea ireki eta aurrera eramateko gai zela pentsatu eta ardura hartu zuen.

Lehenbiziko bidaiari, Peugeot 403 batean 11 lagun Valverde del Fresno-Ultzama egin zuen. Ultzamako bentan zegoen Pakito gasolindegiko inguruan deskargatu eta gero bere anaiak mendiz eraman zituen. Bide izugarria.!


Hasi bazen, hasi zen gizon hau. Elkarrizketa eta transkripzioa berrikusiz, portugesak nondik ez ote zituen ekarri galdetzen diot nire buruari ! :

Migel Valverde del Fresno, Puerto Perales, Villarrubia, Peña Parda, Hoyos (olioa saltzen zuten biltegi batean gorderik zeudenak kargatzen zituzten bai kotxeetan baita kamioietan ere), Zarza la Mayor, Valencia Alcántara (Joxe Beleño bitarte, baita gasolindegiko langilea, Angel ere), Fuentes de Oñoro (aduanara iristeko 6 km. falta zirela. Bertako kontaktua Kalla), Galiziako Verin (Domingo, ostatu zikin hartako nagusia bitarte), Badajoz (Meridan kontaktua, Antonio), bidai luzearen abiapuntu aipatzen ditu.

Azken puntu honetan, Badajoz baino 10 km. lehenago, Albuquerque ingurua zaila bihurtu zen. Linea hau utzi zuen. Antonio Soito portugaldarra

bitartekoa zuen eta Migelen esanetan “linea ona zen” . dirua ere egin omen zuen linea honekin baina....

Antonioren semeak kontrabandoa egiten segitu zuela esan zidan, alkohola oraingo belaunaldi honetan. Elbasen ezkondu zenean, Migel gonbidatua izan zen. Hara noraino iritsi zen kontrabandisten arteko harremana.



Puebla de Sanabriatik ere garraiatzen zituen. Bidaia batean, portugaldar bat gaizkitu zen. Hilko zela uste zuen. Dirudienez, bihotzeko bat eman zion. Migelek Iruñean pisu bat bazuen eta hantxe medikuaren aginduak betez, sendatu zen. Portugaldar honek, gaixorik egondako denbora luzean bera ere negozioan hasiko zela pentsatu zuen eta sorterrira bueltatu zen.

Hala, 13 bazituela abisatu zion Migeli. Peugeot 404 familiar batekin Villavieja gerturatu zen. Otsondon deskargatu zituzten.

Beste behin 12 zirela eta berdin.

Puebla Sanabriara 3 alditan joan eta gauza bera dirurik ez.

Galdetu eta “nada, que estéis tranquilos, hombre” , esan baina sosik ez.

Hurrengoan... guardia civilekin arazoak.

Segi. Denetara 72 ekarri zituzten eta oraindik zorretan bihotzekoaz hil ez zen hura.!

Portuges bakoitzeko 6000 pezeta kobratzen zuen. Kopuru hontatik, 1800-2000 pezeta mugalariari ematen zion. Janaria ere Migelen kontu izaten zen. Linea harekin dirua galtzeaz gain, beste lineekin kotxeak eta kamioieren bat ere galdu zituen.

“ 13 kotxe galdu nitun. Batzuk aberiatuak ere.”

Migeletik aparte Sanabriaraino ailegatu ziren beste zenbait nafar izan ziren. Bazen hango emakumerik ere portugese emigrazioan aritua izan zena. “Han ere bazen andre bat hortan aritzen zena.”

Sanabriara joan nintzen. Eta bai. Hala zen. Bere izena Gela, Angela da. Ez da erraza izan berarekin harremanetan jartzea. Baina handik, hemendik eta nonbait “hala beharra” izanen zelako, bere ezagutza egin nuen. Puente de Sanabrian 1932. urtean jaio eta harrezkero bertan bizi den emakume xarmagarria da Gela. Bizi-bizia. Indarrez betetako amonaxo gaztea.

Anaia-arrebatik gazteena izanik, 13 bat urterekin ogia ezkutuan egin eta zaldi edo asto baten laguntzaz, herri desberdinetara joaten zen egindako ogia saltzeko asmoz.

Kafea eta azukrea Portugaleko Bragançatik Portelura ekartzen zioten eta Gelak gero saldu.

Bere etxea askotan kafe biltegi bihurtzen zen. Anaia kontu hauetan aritzen zen , Gelak ogi bidea nondik lortu ikasten zuen bitartean.

Anaiak, Pepek Argentinara joateko pasaporte aterata zuen, baina portugese eramaten ari zen batean harrapatu zuten eta kartzelatu. 300 pezetaren truk

portugaldarrak isilpean Palacios herrira zeramatzan. Espetxean torturatu zutela dio Gelak penaz beterik. Handik atera zenean Argentinara joan zen, Españaiko bizipenak atzean utzi nahian.

Mugimendu hauek guztiak Gelak gertutik bizi izan zituen. Dirua irabazteko modua argi zegoen.

Behin Juan el Cuco 7 portugeseekin etxera etorri zitzaion. “No se donde guardarlos. Esta todo cogido”. Eta Gelak bere etxeko zulo antzeko toki batean jatera eman ondoren ezkutatu zituen.

Egun haietan, Manolito Monterubiok eta Pepe Lochavok portugese talde bat pasatu zuten. Gelak jakin mina eta negozioan sartzeko gogoaz bazuenez, nora zihoazen jakiteko jarraitu zituen. Hartan beste gizon batekin, euskaldun batekin, eztabaidan ari zirela ikusi zuen. Azkenak, “pues no te los llevo” esan eta media buelta eginez, kotxez alde egin zuen. Baina baita berriro etorri ere.

Portugaldarrak Gelaren etxera eraman zituzten bertan utziz. Gela atera zen eta euskalduna topo, elkar topo egin zuten. Gorritiko Pepe zen euskaldun hura.

Gelak portugesak bere etxean zeudela eta nahi ez gero eramaterik zituela esan zion. Baietz Gorritikoak. Handik aurrera, Gorritiko Pepe eta Gela negozioetarako elkartu ziren. “Para nada más. Me respetaba muchísimo. Nunca nada que no fueran los negocios. Era buen hombre, muy noble.” dio Gelak Pepez.





Portugesak Gelarentzat beste emakume batek biltzen zituen. Maria do Carmenek. Pasadoreak aldiz, bat baino gehiago zituen : Cuco, Los Perdidos bi anaiak, Riego herriko bat, Rogelio, Paco Bollaño, aipatutako Manolito Monterrubio eta Pepe Lochavo.... Azken hauek kartzelan egondakoak ere.

Gelaren lana oso “garbia” zen. Berari portugesak ekartzen zizkioten etxera edo beste “pajares” etan utzirik, iritsi zirenaren abisua ematera etxera pasadorea etortzen zitzaion . Gelak alde zuzetik bazekien zenbat etorriko ziren eta Gorritira abisua telefonoz egiten zuen. Pepe gerturatzen zen eta eramanez.

Gela enlaze bat zen, bitartekari lanak egiten zituen.

Pepe ezagutu nahian Gorritira joan nintzen. Pepe izenarekin inor ez zela izango portugesak mugaratu zituenik ziur nintzen. Gure artean ez dago Peperik, Joxe piloa bai. Eta hala bere iloba aurkitu nuen herrian. Honek, bi osabak portugesetan ibiliak zirela esan zidan. Gelak Pepe izengoitiaz ezagutzen zuena gaur egun Benicarlón bizi den Jose Gastesi dugu.



*Gorriti inguruko*

*pagadia.*

Beste lana egiteko modu bat ere bazuen Gelak. Iruneraino ekartzen zituen . Portugaldarrak Sanabriaraino eramaten zituzten lehenik eta gero A Gudiñako herrira. Han, Casa Oscar hostalean egokitzen zituzten eta gero, parez pare dagoen tren geltokira Oscarrek eramanez, Iruneraino zihoan trenak bertaratuko zituen.

Iruna iritsi eta Trantxe ostatuan egongo ziren muga noiz pasatu jakin arte. Askotan Trantxek pasatzen zituen.

Poztu nintzen hau entzuterakoan. Nik Trantxe ezagutzen bai dut. Bortzirietako pilotaria Trantxe. Gaztetxoei urtetan pilotan erakutsi diena! Entzuna nuen portugesetan ibilia zela. Honetaz berekin solastu izan nahi nuen baina osasunak ez dio laguntzen azken urteotan. Poztu zen Gela ere biok pertsona berdina ezagutzeaz.



*A Gudiñako tren geltokia. Atzerago Oscar ostatua.*

Linea honetako Gelaren lana alde batetik bidaia antolatzea, eta bestetik bere Tiburon kotxea hartu eta hutsik Iruneraino joanez, trenez egindako bidaia ongi bukatu zela ziurtatu. Gelak ez zuen ia deus arriskatzen baina ardatza bera zen.

Tiburon hartan eginiko bidaiak gidatzeko baimenik gabe egin zituela esan behar da. Noizbait eskatu omen zioten karneta eta bera non ote zegoen alde batetik bestera begiratzuz, eta gero eta apuru gehiago azalduz, ia negarrez galdu izanen zuela esan eta.... “no se preocupe, ya lo encontrará...” ... horrelako konsolamenduak entzuten zituela, barrez esan zidan.

Behin, bere etxera neska polit eta fina eraman zuten. Gelak kotxez Iruna joan behar zuen eta biak elkarrekin joango zirela bururatu zitzaion. Iritsi ziren. Trantxeren ostatuan lo egin zuten. Biharamunean, aduana aldera joan eta alde zurretik pentsaturiko plana martxan jarri zuten.

Portugaldar neskari txintik ez esateko agindua garbi azaldua zion eta hala bete honek. Mugara gerturatu eta tonteatzen hasi ziren hango zaintzaileekin. Portugesez Gelak “no habla porque es muy timida” esan eta bera jijiji eta jajajaka. Galdetu zien ea muga pasatu eta beste aldeko hura ordu erdiz ikusterik zeukaten, berehala etorriko zirela, kuriositatea zutela... Baiezkoa noski!

Muga pasatu zuten eta neska hura autobus batean sarrarazi zuen Gelak. Portugaldarra Gelataz kezkatu, urduritasunez, negarrez Frantzia barrena joan zen.

Gela bera ez omen zen kezkatu. Bueltan, timida zen neska hura frantses batekin gelditu zela eta berehala zetorrela esanez egoera bitxi hura konpondu zuen. Beste tontakeri batzuk esan eta hurrengo astean berriro gerturatuko zela elkarrekin bueltatxo bat emateko aginduz, Trantxe taberna aldera joan zen. “Hasta hoy. No volví por allí !!! “

Neskatxa hark eskerrak emanez eskutitz bat idatzi omen zion.

Diru asko egin zuela dio. Jatetxea, Hostala, pisuak. Inolako harrokeriarik ez eta modestia tontorik ez du erabiltzen dirua egin zuela esaterakoan. Lan asko eginez egindako emaitzak direla garbi du. Baina gustuko lanak zirela ere argi esaten du. “Hoy mismo empezaría otra vez. A mi me gustaba, claro que sí.”

Portugesak pasatuak izanaz kontzientzia arazorik ez du. Alderantziz. Bere ustez, hango jendea lagundu du. Miseriatik ateratzeko bidea hura zenez eta bera horretan parte izan zenez, egindakoaz ez da damutzen. Dirua irabazteagatik aritu zela zeregin hauetan esaten du baina laguntza eskaini izanaz arto sentitzen da.

Legasako lineara bueltatuz, erabilitako kotxeen artean Peugeot 403a aipatzen du Migelek. Astean hiru aldiz bertaratzeko, Iruñetik goizeko 11etan atera eta Portugaleko mugara ilunabarrean ailegatzeko zen. Gaez alderantzizko bidea eginez, portugesak Otsondon, Ultzamako bentan, Berroetan, Anizen... utziko zituen.

Kamioiez egin ez gero ere, berdintsu. Toki hauetako borda batean eguna bertan pasa zezaten uzten zituen. Bertan deskantsatzen zuten, jaten zuten... Gero oinez egin beharreko nekezko bidai luzea etorriko zitzaien: Ainhoa aldera, Aldudesera, Bertizkora...

Doneztebeko José Ramonek Migelen antzeko sistema erabiltzen zuen. Peugeot 403 edo 404a 40.000 pezeta inguru ordainduz Ipar Euskal Herrian matrikula frantsesa eduki zezan erosi eta harekin goizeko 11 inguruan ateraz ilunabarrerako Portugaleko mugara iristen zen ( Aldea do Obispo, Almendralejo...).

Non gelditu, punturen baten erreferentzia izaten zuten. Batzuetan inguru haietako errepidean laranja azalak ikusiz, bazekien portugesez taldea arbolapean zain zegoela .

Goiz argitan baserri, borda batera eramanez ondoren sardinak ogiarekin ematen zizkieten. Eguna bertan igaro eta gaez, kotxez Biriatura, edo oinez Peña Plata aldetik Sarara eramaten zituzten.

Hendaiako tren geltokira ere eramaten zituen. Han José Ramonek billeteak erosi eta askotan Leon Perras Paris ondoan dagoen herrira joaten ziren. Zuhaitzei kortxoa kentzen aritzen omen ziren han.

Portugal-Hendaia bidaia eginez gero, José Ramonek pertsonetik 9.000 pezeta kobratzen zuen. Bere kontu mugalaria eta tren txartela ordaintzea.

Haserre agertu zen maltzurkeria kasu bat kontatzerakoan. Berak ezagutzen duen norbaitek portugesez kamioiez ekarri zituen Donostiaraino eta M.

Cristina zubian beste aldera pasaz Frantzian zeudela esanez “un cerdo”k utzi zituen.

Penaz aldiz, behin portugesez beterik zetorren gidari bat Guardia Civilak alto egin, ez gelditu eta tirokatu zutenean, kotxearen kontrola galduz arbola baten kontra jo eta denak hilik suertatu zirela azaltzerakoan.



Ezbeharrak gertatzen ziren, bai.

Migel portugesen bila, batzuetan Verinera joaten zen. Hango kontaktoa Domingo zuen. Honek Veringo erdialdean ostatu bat zuen baita alaba batzuk ere ! Bi gauzaz ongi oroitzen da: bata, ostatu hartako zikintasunaz eta bestea nesken edertasunaz! hara hainbeste urte ondoren buruan geratzen direnak!

Verineko Antoniok taberna-hostal hura non zegoen esan zidan. Gaur egun ez du garaian izandako tabernarekin zer ikusirik. Neskak izugarri politak zirela baita tokia arrunt zikina zela ere baieztatu zidan. Beraz, bi kuestio hauetan Migel eta Antonio bat datoz .



*Gaur egun etxebizitzaren sarrera den atea, garaietan ostatuko zen. Goian logelak.*

Espania-Portugal mugetara Iruñekoak etortzen zirela esaten zuten. Migelek, beste lekukoaren antzera, Iruñekoak fuere aritzen zirela esan zidan. Hauen artean Apeztegia eta Ezponda aipatu zituen. Otsondo aldera Migelek eta Apeztegia Iruñeko bi anaiak, portugesak ekartzen zituztela dio. Elkarrekin lan hauetan ongi moldatu omen ziren.

Portugesketan aritua izateagatik kartzelatua izan zen Migel.

Miranda de Ebron, motoristak zerbitzua bukatu eta etxe alderat joango zirela jakin zuen. Hala, Pancarbon bertako jatetxean bazkaldu behar zuela pentsatu eta sartu zen. Etxerantz joatekoak ziren haiek hantxe zeudela ikusi bezain pronto, komuna aldera abiatu zen. Hango leihatilatik eskapatuko zela berehala burura etorri omen zitzaion baina pasatzeko tokia meharregia zenez, ezin. Atzera egin beste irtenbiderik ez zuen. Hala, motoristak susmoz beterik, Migel komunitatek ateratzen ikusi zutenean, alto bota, gipoiatik hartu eta paperak eskatu zituztela. Hartan, indarrez beteriko tiraldi batez, txaketa motoristaren eskutan utzirik, lasterrari eman zion. Tiroka besteak gibelatik. Peña tarte batera ailegatu zenean, leze batean gorde zen. Harrapatu zuten.



*Pancorbo herria .*

Hiru hilabeteko kartzela zigorrari beste hiru gehitu zioten “por fuga”. Burgoseko espetxean sei hilabete egon zen.

Garai haietan, portugesek pasan hiru sozioak pakto bat egin zuten: baten bat kartzelatzea gertatzen bazen, beste sozioak bezala kobratuko zuen. Ez hori bakarrik. Espetxeko janaria ona ez zela pentsatzen bazuen, jatetxe batetik janaria eramateko eskubidea zuen.

Hala, Migeli kartzelatik 100 bat metrora zegoen Bodegón ostatutik janaria eramaten zioten.

Abokatua eta apaiza joaten zitzaizkion. Bataren eta bestearen bitartez, espetxeko zuzendariarekin solastu zen. Honek, egunero bi kotxe garbitu behar zituela eta kanpotik zetozen bisitariei kapazoan zer zekarten begiratzea agindu zion. Besterik ez.


Migel ongi portatzen zela ziurtatuz, tabernara joatearen baimena lortu zuen. “Pienso que no te vas a escapar” esanez.



Ramón Apezetxea, Almandozeko apaizarekin portuges emigrazio kontuaz solastatu nintzen. Migeletaz oroitu nintzen Ramonek zera kontatu zidanean :

“ Pancorbon harrapatu zuten bat. Bera galdu zen hura. Ez zion inork segitu eta deusez. Hutsik zegon. Ekarri behar zitun eta Guardia Civilak ikusi eta pentsatu zuen bere ondotik eldu zirela. Izutu eta... lasterka hasi. Eta bertzeak ere. Harrapatu zuten. Pancorbora joan nintzen hitzegitera...”

Ramoni gizon hau nor zen galdetuz, izenaz ez zela oroitzen erantzun zidan. Migelek apaiz euskaldunaren bisita izan zuen eta toki berdineran Ramón atxilotua izan zen kontrabandista bat bisitatzerako joana izan zen. Ramón eta Migelek elkar ezagutu zuten? Edo bi historia desberdin dira?



*Apezetxea kontu kontari.*

Sei hilabete haietatik, lau ongi pasatu omen ziren. Bi lehenengoak zailenak. Lehenengo mementoan tratu txarrak jaso omen zituen. Baina nolabait justifikatzen ditu:

“Jo nauzten. Ostiko fuertiak eta. Bai, beraiek lasterka lehertu ziren eta geo neri ederrak!”.

Migelek, ordaintzen zituzten gastuetan eltzetzuak ez zituztela sartzen dio. Nire testigantza gehienek hala diote. Kontrabandoa egiterakoan bai. Gehien-gehienak erosiak izaten ziren baina ez portugesak pasatzerakoan. “Elizondoko” lekukoak hala zihoen ere. Etxalarko Santiagok berdin. Honek behin, portugesekin oinez mendiz pasatzen ari zela, eltzetzuak zetozeला ohartuz ezkutatu zen. Guardia Civilek mando batzuk kontrabandistei kenduak omen zizkioten eta haiekin herri alderat joaterakoan, Santiago eta bere portugese taldea nahiz eta ezkutatuak izan, ikusiak omen zituzten. Baina kasurik ez. Ez omen zitzaien portugaldarrak hartu eta tramite burokratiko guztia egitea interesatzen. Lan sobera deustarako. Kontrabandoa harrapatu ez gero prima bazuten, ez ordea portugesekin. Hauekin lana besterik ez.

“Portugesketan” hiru urtez aritu zen. hiru

Urte haiek potenteak izan zirela iduritzen zait. Toki desberdin askotik, portugese asko ekarri zituen. Kartzelan egon zen ere. Dirua egin izanen zuela pentsatzen dut. Galerak ere izan zituen.

Bera bezala beste hamaika arituak zirela dakigu. Sosik egin ote zuten? Hura zen helburua, dirua irabaztea. Baina, hala izan zen?

Batzuk bai, beste askok ez. Askori ez zaie igartzen dirutzarik egin zutenik. Ez baitzuten egin. Beno, egin bai baina abiadura berdinekin, desegin.

Hala dio Migelek ere :

“Batek biaje bat egin eta gero, bueltan joanez bertan gelditu zen dirua gastatu arte.”

“ Igualek 3-4 egun besta egiten zuten.”

“Xuxen aritzen bazinen dirua egiten zen baina hemen ez zen deus egin.”

“Diruakin besta egiten zuten zenbaitzuek. Malamaneran, jan, edan, neskak... dirua erre zen.”

Ciudad Rodrigoko Encarnak “El jabalí” haretaz esandakoak burura datozkit!.

## **URRUÑATIK**

Emakumeak portugesketa ez zirela arituak entzuna nuen. Elizondoko lekukoak hala esan zidan. Ciudad Rodrigoko Encarnak ere. Azken honek gizonen kontuak zirela eta gizonezkoek emakumeak negozio hauetan sartzerik ez zutela nahi, beraiantzat ohoreak nahi zituztela eta... egun eguzkitsu hartan gehitu zizkidan..

Ez zen ohikoa, ez baina salbuespenak badaude. Bat, Urruñako Ernestine da.



Gizonak bezala, portugasetan hasi baino lehen, kontrabandoan aritutakoa zen. Ondorioz, era naturalez, portugesez pasan aritu zen. Bere senarrarekin edo bera bakarrik, bere kabuz, Portugaleko mugetara hurbilduz, kotxez hainbat portugaldar ekarri zuen.

Han, Portugalen, bazuen biltzailea, Lisboako gizon bat. Engajador honek emigratzaile ohiak bildu ondoren, Ernestinek bi modutara jokatzeko zuten: edo portugesez bere kabuz Donostiara, Oiartzunera edo Berara etortzen ziren eta berak muga pasa, La Negresse-k trenean egokituz Pariseraino joateko modua bideratzen zuten, edo Espainia-Portugal mugara kotxez gerturatuz ekartzen zituen.

Azken modu honetan eginez gero (gehienetan hala izan zen), biltzaileak telefonoz Donibane Lohitzuneko Ibarburu izeneko jatetxera abisua pasatzen zuten.

Linea honetan bost aritzen ziren: Ibarburu, bi kotxe gidari: bat senperrarra, bestea ezpeletakoa, Ernestine eta Pio bere senarra.

Ziburuko okindegiko gizonarekin janaria erosi eta portugaldarrentzat janaria egiten laguntzen zuten. Ernestineren baserri ondoan, borda bat bazen

eta han, animaliak eta iratzea alde batean eta bestean gordeleku bat izaten zen. Urrutitik etorritako portugesak noiz trenerat gerturatuko zain hantxe egoten ziren. Bitartean deskantsatu, Ziburuko okinak eta Ernestinek prestaturiko jakiak jan eta ahalik eta lasaien egoten saiatzen ziren.

Garesti erositako Citroën DS batekin aritzen zen. Behin, Salamankatik etortzerakoan, kortozirkuitu baten eraginez, DSa erre zen. Ez segururik, ez ezer, Ernestine DSa ordaintzeko behar zuen dirua irabaz zezan, Hotel Verdunen uda osoan sasoi egiten egon zen .



Askotan, Portugaletik jendea ekartzerakoan, Bera inguruan uzten zituen gero beratarrak muga Urruña bitarte pasa zezaten.

Urruñan, kotxean sartu eta trenerat eramaten zituen. “Otomoila” geltokia baina lehen gordeta utziz, treneko atzeko aldetik pasatzen zen Ernestine bere portugeseekin. Diskretuki erosiak izaten zituen billeteak. Diskrezioz emanak ere bertako, ezaguna zen langileak. Pariseko bidea irekia zen.

Ibarburu nagusiarentzat Badajoz-Caceres-Salamanca linea egiten zuen askotan. Esan bezala, Lisboako gizon bat izaten zen biltzaile. Portugesak, sasi, zuhaitz tartean ezkutatuak egoten omen ziren. Ernestineren kotxean sartzeko keinua ikusi bezain pronto... fite-fite autoan sartu eta... joaten ziren.

Biltzaile, engajador lisboar hau behin Billabonaraino ekarri zuen. Hotel batean lo egin ondoren, Dantxarinera eraman zuen. Norbait ikustera. Negozio kontuak. Misterioak.

Donostiako nagusia ere bazuen. Honentzat portugesak Vila Formosotik ekarriz, linea honen bukaera askotan La Negresse tren geltokian izaten zen.



Batzuetan, bere gizona Pio egun batzuk lehenago Portugaleko mugara hurbildua izaten zen. Han bilketa egin eta Ernestineri joateko deia egiten zion.

Pio bakarrik ari zen batean, 65eko udaberrian, lan ilegal hauetan harrapatua eta kartzelatua izan zen.

45 eko taldea, Piorentzat lanean ari zen irundar txofer batek kamioian Salamancatik zekarren. Kamioiaren aurretik bidean oztoporik zegoen edo gia lanak eginez, Pio. Irundar hari, kafe bat edateko gogoak hartu eta pasatzea debekatuta zegoen bide batetik kamioiarekin sartu zen. Poliziak ikusi eta geldiarazi zuen. Kamioia miatu bezain azkar, gidariari norentzat

ari zen lanean galdetuz Pioren kotxearen matrikula zenbakia ere jakin zuten. Zita non zuten ere.

Altsasu-Donostia-Iruñako bide gurutzean oso izen egokia zuen ostatu bat bazen. Hiru Bide. Hemen portugaldarrak beste kamioi batera pasatzeko tratua egina zuten. Gero muga aldera garraiatuko zituzten. Hala ideia eta plana.



Eltzetzuek guzti hau jakin ondoren, bertaratu ziren. Pio eta Iruñeko gidari bat portugesez kargaturiko kamioien zai zeuden baina honen ordez eltzetzuak etorri zitzaizkien.

Bi hilabete Iruñeko kartzelan eta Madrilekoan azken bat igaro zituen.

Guardia Civilak Altsasu aldean kamioiren bat gelditu eta barnean portugaldarrak ilegalki zetozenez arduradunak espetxeratzea behin baino gehiagotan gertatu zen.

Ernestinek guzti hau desesperazioz kontatu zidan. Ibarburu, kontrabando honetan nagusi zuenak, Ortega Irungo abokatuarekin solasteko gomendatu zion. Hala egin baina Pio bete betean harrapatua izan zela garbi zegoen.

Kontrabandisten beste abokatu bat, Iruñeko Iribarren izaten zen. Portuges pasan harrapatutako zenbait mugalarik berarengana jo zuten. Lehendik kontrabando kontuengatik ezaguna izanik, era naturalez portugez aferaz arazoak izan zituzten batzuk Iribarren jaunarengana joan ziren. Bere semeak, Luis Antoniok, “Cogieron varios camiones llenos de portugueses” baita bere aita kontrabandistaren baten defentsa egin zuela esan zidan. Honi, “ algunos que cogieron algún camión creo recordar muy cerca de Pamplona. Pararon un camión y tenía una trampa y había 10 ó 12 portugueses dentro.” gehitu zuen.

Kontrabandoz, beste kontrabandoz, gustura aritzen den neurrian, ez da portugesketaz aritzen Ernestine. Diru gutxi gatazka askorako omen.





## IRUNDIK

Emakumeekin jarraituz, hona hemen Otiliaren historia. Andre honetaz urtetan gauza asko entzunak nuen. Mitifikatuta nuela badaiteke. Ezagutu nahi nuela... Nola ez. Ikerketa hau egiteko bere testigantza saria zen.

Zaila egin zitzaidan bera aurkitzea. Mitifikazioari aginduz, kontrabandista-pasatzaile desberdinei galdetuz, erantzun desberdinak jasotzen nituen. Batzuk bizirik ote zegoen dudatzen zuten bitartean, besteek zenbait hiri desberdinetan kokatzen zuten.

Hilabeteak pasa ahala Peñiscolan bizi zela jakin nuen, bere telefono zenbakia zein zen ere. Eta hainbeste kostatzen ondoren berekin solasterik nuela jakiterakoan... beldur nintzen. Bere erretxazoaz beldur.

Telefono zenbakia eskuan nuela, igande goiz batean... gertatu behar dena gertatuko da pentsatuz, deitu nuen.

- ¿Quién es? – ahots sendo batez galdetu zidanean, nor nintzen eta zergatik deitzen nuen, aldeztatik aurretik uste baino segurtasun handiagoz esan nion.

Egun hartatik aurrera telefonoz Otiliarekin solasteak on egiten zidan. Baina ez zen nahik. Bera ikusi beharra nuen eta berarekin aurrez-aurre hitz egin.

Peñiscolara joan nintzen. Lan honetan kontaktzen ditudan egun haietako solasaldietako zatiak dira.

- Otilia, ¿qué te gustaría que te llevara de aquí? – galdetu nion.
- Hongos ! del los negros, ya sabes.!
- Bien, bien y, oye Otilia, ¿si nos vemos y te caigo mal? – irriz esan nion.
- ¡Deja por Dios , que no... ! ya verás lo bien que nos arreglamos tu y yo aquí! – serio berak.

Eta hala gertatu zen. Izugarri ongi moldatu ginen. Erraz, argi, gogoz eta inolako arazorik gabe 81 urteko emakume apartak hitz egin zuen.

Peñíscolara joan baino lehen, Pedrok , Otiliarentzat lanean aritutako mugalari irundarrak, esana zidan :

- Ez dakit bainan, lehen bezalakoa bada Otilia ez bada aldatu... ongi kuidatuko zaitu, ez preokupto !

Eta hala izan zen.



Otilia Galiziako herri txiki batean jaio eta hazi zen. Zazpi senideen arteko laugarrena, erdikoa. Txiki- txikitatik nekazaritza lanetan aritutakoa, gogor aritutakoa. Eskolara ez omen zen joan 10bat urte bete arte. Orduan, nonbait etxeko lanetan beste senideak hasi ziren edo, joan zen lehenengo aldiz eskolara. Bertaratzeko, oinez eta mendiz kilometro batzuk egin behar zituen egunero. Eguraldia ez omen zen goxoa izaten garaian. Euriaren eraginez askotan blai eginda iristen omen zen.

Irakaslea, andre bat, guztiz gaiztoa omen zen neskekin. Ez zait arraroa egiten hau entzutea garai hartako irakasle asko halakoak baitziren. Hamaika zigor bai fisiko bai psikologiko jasoak dira gure aitzinakoak.

Ba emakume hau ere horietakoa zen. Irainak eta kolpeak jasotzen zirela amorruez kontatzen du. Egun batean, eskolan hasi eta gutxi gorabehera bigarren hilabete inguruan, irakasleak neska bat jipoitzen hasi omen zen. Neskaren errua, ikasi beharreko zerbait ez jakitea. Zigorra, iletik tiratzen hasi eta jotzea. Eta Otiliaren erantzuna, bere aulkitik zutitu eta irakaslea bera erasotzea!! Gustura gelditu omen zen eta jo ere ongi, amorruez eta indarrez jo omen zuen. Hara, egina zegoen!!! Noski, handik aurrera ez omen zen itzuli kalbariozko eskola hartara.

Beraz, Otiliaren eskolaratze ofiziala bi hilabetetan datza.

Berriro etxeko, nekazaritzako lanetan aritu zen. Koxkorrago izan zenean hura ez zela bizimodua eta La Coruña aldera jo zuen. Bertan mertzeria batean lanean hasi zen. Mandatuak eta egiten batez ere, baita bertako nagusien haurrak zaintzen ere.



*A Coruñan. 1951eko Maiatzean.*

Lan hauetan ari zenean Vigoko pertsona batzuk ezagutu zituen eta portutik kontrabandoa sartzen zenez, zerbait egitea proposatu zioten. Kontrabandoarekin itsasontzi bat iristerakoan berak guardia zibilak despistatu behar zituen. Gaztea eta polita omen zen, sinpatikoa, graziosa, ausarta ere. Kalitate hauekin lana erraza egin zitzaion. Boterea ere sentitu zuela seguru nago. Bere esku zegoen gizon batzuk mareatuz, lan bat aurrera ateratzea. Seguru nago ere, sentazio honek indarra eman ziola, berarenganako konfiantza. Eta kontrabando munduan horrelaxe hasi zen. Besteak beste, kontrabandoa Amerikatik, Argentinatik askotan, Marqués de Comillas eta Magallanes itsasontzietan ekartzen zen. Bertan lan egiten zuten marinelek egiten omen zuten kontrabandoa. Otiliak lan egiten zuen mertzeriako nagusiak ere. Zetazko alkandorak, galtzerdi finak, estratomizina, tabakoa... Guardia zibilak erosten zituzten. Askotan tabakoaren truke besterik ez. Otiliak dioenez guardia zibil dezente

kontrabandistei esker zuten bizitza eroso bat. Garaian irabazten zuten soldatarekin ez zen nahikoa izaten familia baten premiak eroso asetzeko. Berdin gertatzen zen Euskal Herriko mugetan. Guardia zibilak erosten ziren eta kontrabandistek emandako diruari esker duintasunez eta goserik gabe bizi ziren.



1951. Kontrabandoan hasia iada.

Denbora bat iraun zuen kontu honek. Baina mertzeriak eta koketeo istorio honek ez zuen etorkizunik Otiliarengan. Zerbait gehiago nahi zuen.

Taberna bat ireki zuen bertan bi neskame lanean jarritz. Tapadera besterik ez zen. Otilia garai hauetan koketeotik aparte kontrabandoan hasia zen eta dendak, tabernak... kontrabandoa gorde eta harat-hunatak egiteko negozio aproposak izaten ziren. Bi neskame hauek koketeo lanak egiten zituzten itsasontzitik “paqueteria” deskargatu bitartean eta Otilia zen orain bitartekaria.

Lan hauetan asperturik edo auskalo, Mallorcara joan omen zen vedette modura. Baina dirudienez, vedette lanak baino arropak moldatzen eta benetako vedetteak behar zituzten premiak betetzen aritu zen. Gutxi

ordaintzen ziotela dio baina nire ustez beste mundu batean sartuko zelakoan joan zen eta ametsak ez ziren bete.

Itzuli zen Santiagora, amarekin pixkabatean egon, ahizpa izeba batekin josten ikas zezan utzi eta.... Txoria hegatu zen.

Galiziatik Donostiara joandako mutil bat ezagutzen omen zuen eta honen asmoa Venezuela aldera joatea zela jakin ere . Bera ere gustura bertaratuko zela pentsatu eta hala egiteko asmotan Donostiara etorri zen. Baina asmoak-asmo, bizitzaren kapritxoak direla eta ez zen Amerikara joan.

Donostian zegoela, Caja de Ahorrosera joan beharrean suertatu zen. Hantxe ezagutuko zuen bere senarra izanen zen gizona. Kutxako zuzendari ordeak atenditu zuen. Neska gazte, indartsu baten aurrean zegoen gizon heldu esperientziaduna. Elkar begiratu eta honek kafe bat hartu nahi ote zuen berekin galdetu zion. Baietz erantzuna. Eta hantxe hasi zen elkarren arteko erlazioa. Adin alde handia zuten, batek 23 bat urte, besteak 65. Interesak oso desberdinak ere. Lehenengoarenak bera eta bere familia miseriatik ateratzea, bigarrenarena emakume gazte baten zaintza.

Eta ezkondu ziren. Donostiako Obispoak, Izagirrek goizeko seiak zirenean, elizako sakristian eman zuen meza. Andregaiak blusa txuriz eta gona beltzez jantzita , gizongaia traje dotorez.

Otilia ez zegoen maitemindurik, ez dakit senarrak zer sentituko ote zuen, agian kapritxoa betetzea zen bere helburua.

Baina bien asmoak bete ziren. Otiliak inoiz ezagutu ez zituen luxoak ezagutu zituen orain. Kursaal inguruan bizi zen, igogailua zuen pisu batean. 1951. urtea zen. Senarrak urrezko kaiola eskaini zion. Otiliari helburu ekonomikoa bete zenean, itolarria sortu zitzaion.



*Otilia Donostian anaia eta ahizparen tartean.*

Eta kontrabandoarekin berriro ere harremandu zen. Angulak hasi omen zen pasatzen. Horrelakorik egiteak senarra gaixotzen zuen. Normal.

Donostiako famili ospetsu bateko gizon baten emazte gaztea kontrabandoan!! Zergatik ? Zertarako?

Ezin ulertu , edo bai.

Otiliak ez zuen diru premiarik. Bere bizitza osoan izan zuen eskasia betea zegoen. Baina, berak, berez, naturaz beste zerbaiten beharra, egarria zuen.

Eta nonbait, kontrabandoaren mundu ezkutua asetzen zuen eta ez senarrak eskaintzen zion luxuzko segurtasun lasaiak.

Bikote artean tirabira gogorak izan ziren. Garaian Otiliaren ahizparen ezkontza zela eta gaizki-ulertuak gertatu ziren ere. Tentsio desberdinak batuz, Otiliak ihesari eman zion.

60 urte geroago erabaki hau hartzeaz damutzen da. Gizon ona omen zen, miresten du. Bere ondoan gauza asko ikasi zuela esaten du. Ongi bizi zela, berekin inoiz inork eskaini ez zion babesaz ezagutu zuela emozioz azaltzen du . Baina..... gaztegia izateari botatzen dio errua .

Irunen, Mendibil inguruan bizi izan zen aurrerantzean. Portugaldik etorritako anaia eta ezkondu ez zen ahizparekin osatzen zuen familia.

Lanbidea, kontrabandista.

Segurtasun osoa eskaintzen zion bizimoduari uko eginez, Irunen eta inguruak eskaintzen zion lan ezkutuari ekin zion.



*Otiliaren ahizpa Nico eta honen emaztearekin.*

Baionan negozio bat zuen gizona, Nico, ezagutu zuen. Honek atzerritik hainbat produktu Baionara, puerto franco, ekarri eta zergak ordaindu



gabe, kontrabandoz Espainiaratzen zituen. “En transito” ziren produktuak “ de contrabando” bihurtzen ziren. Otilia azken bidai honetako sozioa zen.

Baionaraino askotan itsasontziz errodaminak, burnia, eta ohial-larru asko ekartzen zituzten. Nicok zeukan lokal batean pakete txikiagotan jarri, 50-30 kiloko paketeak egin, eta aduanatik, kotxez Otilia eta bere langile kontrabandistek pasatzen zituzten. Helmuga askotan Madrid eta Bartzelona izaten ziren. Oihalak eta larrua eskatzen zutenak, goi-mailako jostunak izaten ziren.

Burnia eta errodaminak aldiz, Legazpi , Etxeberriarako... gehienbat.

Errodaminak Txingudi badiatik itsasontziz pasatzen ari zirela, polizia atzetik zutela, itsasontzia bera urperatzea erabaki zuten. Hortxe irentsi zituen urak 1.500 kilo errodamendu!

Otiliak frantsesez eta bere taldeaz “ andaban los jefes a la exportación y nosotros al porte” esan zidanean,hitz gutxitan bakoitzaren lana zertan zetzan garbi adierazi zidala iruditu zitzaidan. Noski, perpausa hotzean eta edozeini esanez, edozer uler daiteke!



*Otilia dantzan.*

Kontrabandista laguntzaileak askotan inguruko tasistak izaten ziren. “Trabajé con todos los taxistas de Irún” esan zidan. Aduanatako langileak ere beretzat lan egiten zuten. Beno lana edo ez ikuste lanak hobeto esanda. “Teníamos la aduana comprada” ere esan zidan.

Garai honetaz pozez solastu zidan Otiliak. “Era interesante” . Interesantea agian abentura zirrara zuelako edo interesantea dirutza dezenteren jabe egin zelako? Biengatik seguruen.



*Bruselako Nazioarteko Erakusketan lanean aritu zen. Denetarik!!!*

Jende asko kontrabandoan aritu arren, emakume gutxi zegoen Otiliaren inguruan. Txingudi-Bortziri-Baztanen arituak izan dira hamaika baina Otiliarekin gutxi. Bera hiru neskatilaz oroitzen da: bi frantsesak omen ziren eta beste bat greziarra. Bai Greziako neska bat. Azken hau portugesen pasan ere zertxobait Otiliaren agindupean aritutakoa ere..

Kontrabando munduan 1940 inguruan hasi eta 1970. urte bitarte, jende asko aritu zen. Nire ikerketen arabera, Bortziri-Baztango mutil-gizon ia guztiak ( gutxi batzuk utziko ditut aparte nahiz eta zigor ez egon inoiz-inoiz inolako kontrabandorik ez egina izan ), eta neska-emakume dexente zeharkako lanetan jardunez, aritu ziren.

Txingudi aldean ere bertako jendea ere aritu ziren fuerte. Irunera industriaren eraginez, beste hainbat lekutik lana egitera jendea, familiak gerturatu ziren. Hauek ez ziren kontrabandoan aritu, nahiko lan izaten

zuten lan berrietara, fabriketako lanetara egokitzen eta bizimodu berri bat eraikitzen.

Guardia Civilen kontua, bestelakoa da. Kanpokoak izanik, kontrabando lanetan nolabait lagunduz, hileko soldata handitzen zuten eta bai kontrabandistentzat bai beraientzat ere egoera guztiz positiboa suertatzen zen.

Otilia portuges pasan garaian Jada kontrabandoan aritzen zelako hasi zen. Ez zen bera, Otilia zuzenean lan horretarako eskaini. Behin, Irungo Mendibileko etxera joan zenean, 9 portuges bere zai zeuden. Ikari galanta jaso omen zuen bat-batean 9 gizon zarrapastroso ilunetik atera zitzaizkionean! Hala, Nicolas aipatu zuten eta honek Otiliaren etxea non zegoen esplikatu eta bertaratzeko esan.

Garai honetan Otilia Nicolas eta Patxirekin aritzen zen lanean, beno bi gizon hauek Otiliaren puskak pasatzen zituzten.

Nonbait, gero nor izan zen jakin zuten, portuges hauek abandonaturik muga pasa baino lehen utzi zituzten eta harat-honatean ibiliak ziren. Beste norbaitek Nicolas abisatu eta esan bezala honek Otiliaren etxeko bidea erakutsi. Eta hantxe 9 portugesak Otiliaren zain.

Sartu omen zituen etxe barrura eta lehenbiziko gauza, jatera eman. “Casi me comian a mi del hambre que traian!!”

Portuges hauek, beste guztien modura, Pariseko helbide bat zekarten. Baita beraien argazki erdia ere. Hala Otiliak Parisera eramatea erabaki zuen, eta egin.



Portugesak Pariseko familiekin utzi ondoren, argazkiaren puska hartu eta Portugalera kobratzera joan zen. Dirua argazkiaren beste puskarekin batera, konfiantzazko familia batean geratu zen. Famili honetako pertsona bat emigratu nahi zuten portugesen bilketaz arduratzen zen. Gerora Otiliak pertsona hau ere izanen zuen lan honetan bitartekari.

Gertatutakoaz solasean aritu ziren eta 9 portugese haiek Parisera eraman ez baina kobratzera bai joan zela lotsagabe hura jakin zuen.

Handik aurrera, Otilia arduratuko zen pertsonalki Españako mugara gerturatzen eta kotxez Iruna ekarri, oinez muga pasa eta Frantziako aldean berriro kotxean sartuz Parisera eramaten.





Beribilean 9-10 portugaldar sartzen ziren. Juxtu xamar bai, baina hala zen. Gaez Ciudad Rodrigo ingurutik hasi eta Irun bitarteko bidea egiten zuen. Gehienetan, Irungo kanposantu aldean utzi, Nicolas edo Patxi eta beranduago Pedro bila etorri, askotan Nicolasen etxean ezkutatu, eguna bertan pasa, gaez mendiz eta gero Bidasoa gurutzatu, Biriatu atzean utzi eta bertzaldera Otilia bere kotxearekin gerturatu ondoren Parisa eramango zituen.

Behin Parisa ilundu ondoren iritsi omen zen. Otiliaren ahizpa, ezkondu ez zen hura, neskame bertako etxe batean aritzen zen. Etxe hauek, pisuak izanik, bazuten neskameentzat gela bereziak. Gela hauek edo goiko pisuan izaten ziren ed behe-behean. Neskame bakoitzak berea. Hala, non gordeko zituen pentsatuz, ahizparengana hurbiltzea erabaki zuen eta honi bere gelan sartuko ote zituen galdetu. Beno, etxebizitzako atezainari dirua eskaini eta isilpean sartzea lortu zuten. Otilia eta bere portugesak gelara. Ahizpa beste neskame lagun batengana.

Denak hantxe loari heldu nahian. Otiliaren oroipena hango anka usain, hango kiratsa besterik ez da.



Portugaleko emigratzaile ohiak biltzen zituen beste pertsona bat emakume bat zen.

Tratua, emakumeen artean egiten zen. Gerora, negozioa handituz joan zen heinean, beste kontaktu batzuk izan zituen. Baina hasiera hartan emakumeen arteko afera zen.

Aldea do Obispoko Olina zuen bitartekaria Otikiak. Lagunak egin ziren. Baditu Otiliak pasarte graziosoak lanetik aparte gertaturikoak!! Neska gazteen kontuak. Lan arriskutsuetan aritzen zireneko neska gazteen kontuak.

Negozioa handitzen joan zen. Kotxe bat ez, bi ere joaten ziren. Egindako bideak desberdinak ere izan ziren: Salamancatik (Oporto-Viseu-Salamanca), Lisboa-Elvastik, Sabugal-Ciudad Rodrigotik, Coimbrako tartaketik, Puebla de Sanabriatik, Salvatierra de Miño ingurutik, Verinetik, Andaluziatik ere...

Eta negozioak handituz jarraitu zuen. Autobusez ere ekartzen zituen. Orense-Lugo ingurutik 20-30 portugaldar baldin baziren, bidea autobusez egiten zuen. Askotan Otilia bertaratzen zen eta autobusa baino kilometro batzuk aurretik bidea libre ote zegoen begiraturaz, joaten zen.



*Pariseraino eramango zituen bi gaztetxo hauek.*

Galiziako Marinen omen zeuden hainbat marinela itsasontzi holandarretan lan egiten zutenak. Hauek Holandara gerturatu behar ziren eta Otiliaren proposamena berak eramatea izan zen. Hala, autobusean marinelen artean portugaldarrak ere joaten ziren. Azken hauek Frantzian gelditzen ziren eta bertzeak Holandaraino jarraitu. “Era buen negozio” esan zidan. Noski!

Portugaldarren helmuga askotan Paris izanik, beste batzuetan Luxenburgo, Belgica eta Alemaniako muga izaten zen. Otiliak eramaten zituen baina alde zuzenetik billetea S.N.C.F. n ateraz taldea trenez igortzen zuen.





Behin batean, billeteak Bordelen erosten ari zela, jendarmeak harrapatu eta kartzelatu zuten. Portugaldarrak libre eta jendarmeen laguntzaz bideratu ziren baina Otilia, pasatzailea, espetxeratu zuten. Nahiz eta kontrabandista karrera honetan, sei aldiz egona izan barruan, Bordeleko esperientzia guztien artetik gogorrena izan zela dio.

Nondik, zein tokitatik ekartzen zituen Otiliak portugesak esan dugu. Mugaren pasatzea a salto egiten zutela ere. Baina, nondik eta nola pasatzen zuten Euskal Herriko muga? Nola a salto ere, pasaporterik ez bazuten Portugaleko muga pasatzeko, ez zuten ere Euskal Herrikoa gainditzeko ere. Eta nondik, ba Otiliak batez ere bi muga kontrolatzen zituen: Irungo Nazioarteko muga eta Dantxarineakoa.

Lehenengoa gainditzeko Irun eta Hendaiako tasisten bidez egiten zuen. Bigarrena aldiz, gehienetan oinez nahiz eta muga baino lehen eta muga gainditu eta gero kotxeez baliatu.

## IRUNGO NAZIOARTEKO ZUBIA ETA DANTXARIA

Otiliak garaiko pasaporteen azalak erabiliz portugesak pasatzen zituela entzuna nuen. 1960. hamarkada hartan, Irundik hainbat langilek muga zeharkaturik egunero bestaldeko lantokietara inguratzen ziren. Hauen artean, portugaldarrak pasaportearen azala mugan urrundik erakutsirik pasatzen ziren ere. Eta niri esan zidatenez, horrela egiten zuen Otiliak ere. Metodoa ez zegoela gaizki iruditzen zitzaidan, bururatzea ere!!! Baina honetaz Otiliari galdetzerakoan manera hura txapuza zela esanez haserrea gertu zen.

Ah, si? Nik esan eta noski, hura nolabait portugaldarrak muga pasatzeko abandonatzea zela ere esplikatu zidan. Nola izan zitekeen pertsona batzuk Frantzian uztearen truke dirua ordaintzea eta juxtu muga pasatzeko pasatzaileek horrela, beraien kontu uztea !!! “Unos chapuzas y los habia, vaya si los habia! “

Bueno ba, ba bai baina modu hau erabili zen. Christian Rudel kazetariak hala idatzi zuen :

“On trouve en Espagne, des protège-passeports en plastique, reproduisant exactement la couverture du passeport espagnol. Ça vaut une dizaine de pesetas, à la portée de tout le monde.

Il souffira donc de se munir de ce protège-passeport, de la bourrer de papiers quelconques jusqu'à lui donner consistance normale, et de la blandir d'un mouvement plein d'assurance audessus de sa tête, en passant

au poste frontière, mêlé à la foule matinale des ouvriers frontaliers qui vont travailler dans les entreprises françaises. Le tour est joué!


Certains suspectent le policiers espagnol d'être, en fermant les yeux, le dernier maillon de la chaîne des passeurs.”

Otiliaren egiteko manera inguruko tasiak erabiliz eta bera ere bere kotxearen medioz muga pasa eta portugaldarrak helmugaraino edo trenez s edo beraiek eramatea zen. Honetarako Nazioarteko zubiko aduana eresia izaten zuen. Lehendik, kontrabando garaitik ezaguna zen Otilia. Bertako guardia guztiak ezaguna zuten, erosiak baitzituen. Arazoa berriren bat etortzen bazen gertatu ohi zen. Orduan, Otilia erosten saiatzen zen. Hartarako aitzakia batekin tontamentian afaltzera gonbidatu eta egoera azaltzen zion. Normalean gustura sartzen omen ziren tratuan baina kapitainaren batekin arazoak izana zen. Honek Otiliak beste zerbait nahi zuela pentsaturik afarian sexu harremanetarako proposamena egin zion. Eta Otilia ez zegoen istorio haietarako, Otiliak negozioak aurrera eramateko gonbidatu zuen.



Baina, muga hain agerian pasatzea oso arriskutsua zen eta gutxitan erabilia. Normalean, Irundik pasatzen bazituzten, San Marcial mendiaren inguruetara kotxez gerturatu ondoren, Otiliarentzat aritzen ziren pasatzaileek Bidasoa zeharkatuz, Portugaldarrak Biriatu bertzaldean utzi ondoren, mugaz bestalde, Otiliak edo beste txofer batek kotxez Paris edo

behar zen hirira eramaten zituzten. Pasatzaile hauetako bat Patxi zen.  
Bestea Pedro.



*Bar Patxin..... Patxi.*



*Otilia eta Patxi.*

Eta Dantxarinearako mugatik? Ba berdintsu. Zugarramurdi inguruko mutil gazteak aritzen ziren Otiliarentzat lanean. “Todos los chicos de los de allí estaban trabajando para mi. No habia nadie que se negara a pasar. Se ganaba mucho dinero .”

Belate ingurutik gerturatzen ziren muga aldera eta Zugarramurdi, Ainhoa, Dantxaria eremuak oinez pasa bertako, gehien bat Zugarramurdiko mutilen laguntzaz. Laputsaigaraia baserrira eramaten zituzten eta hemendik aurrera edo Ezpeleta aldera edo Saratik barrena. Saratar gazte batzuk ere Otiliarentzat aritutakoa zirela esan zidan.

Belateko eremuetan San Blas bentakoak Otiliarekin harremanetan egoten ziren. Oso puntu ona zen San Blas. Ostatua izanik, jendea egotea ez zen zertaz susmagarria izan behar. Bestalde, Belate oso menditsua da eta han... mendi tartean benta honen ezagutzea betidanik izan da. Auskalo zenbat kontrabandoaren testigu izan diren bertako paretak!

## TXURI-BELTZAK

Bai. Txuri-beltzak pasatutakoa da Otilia.

Ez Otilia bakarrik baina baita ere bera. Hala ere, ez du penatan edo sufrimenduz kontaktzen. Ez. “Era así.”

Eta dirua irabazi zuen, hori zen helburua. Ez omen zuen bere amaren miseria ezagutu nahi. Ez omen zuen zahartzaro penagarri bat bizitu nahi. Aukerari heldu zion.

- **Galduta.**

Behin, Olinak Aldea do Obispon portugés koadrila bat antolatu zion. Mendiz ibili behar ziren lehenbizi eta gero kotxeetan Irun aldera ekarri. Gau iluna zen. Ilargi beltza. Hotza.

Hala, oinez hasi omen ziren eta jakin gabe nola, berriro Olinaren etxera bueltatu ziren. Berriro ere irten eta oinez ordu pare bat ibili ondoren berriro ere txakur berak zaunkaka eta Olinaren etxea bistan.

Desesperazioak harturik baita gaueko ormak ere, oinez zihoazelarik borda bat ikusi eta bertan sartu ziren. Argitu ondoren Aldea do Obispoko borda bat zela ohartu ziren!

Goizez erreka pasa eta binaka errepidera inguratu ziren. Otiliarekin batera aritzen zen tasista bat etorri zen eta honek 15-20 minutuz Villar Formosora eramán zituen. Kafe bero-beroa gustura edan omen zuten.!

Horrelakoetan ari zirela, Guardia Civil bat gerturatu zitzaien. Portugesak urduri, Otilia batez. Gizon honen semea Otiliarentzat lan egiten zuen. Tasistaren nolabaiteko ordezkoa zen. Batzuetan tasia portugesez beteta Iruneraino , berak ekartzen zuen. Eta bere aitak, Guardia Civilak, hori bazekien.

- ¿Sabes quien soy yo? – galdetu zion
- Claro , si. – errezeloz erantzun.
- Oye, pero tu no te tienes que esconder de mí. Ya sé que mi hijo trabaja para ti.

Hala! Lasai geratu zen Otilia. Gerturatu zitzaionean ez zekien nolako jarrera azalduko zuen baina topaketa honen ondoren bakoitzak bazekien bere eremua zein zen.

“Si repartias los dineros con los tasistas, los guardiñas, la Guardia Civil... te dejaban libre! Tela para todos! Y para mi, seguridad.”

Hortxe zegoen gakoa. Dagoenean bonbon eta ez dagoenean... hor konpon!

Esku zabala izateak abantaila zekarren.

Pasadizoa bukatzeko, zera esan zidan Otiliak :

“El hijo era muy guapo, más que el padre. Y el padre buena persona.”

Hara, 81 urteko emakumearen oroipenak!

- **Miño ibaia gurutzatzen.**

Otilia noizean behin Portugalera dirua kobratzera espresuki joaten zen.

Muga ingurura beretzat lana egiten zuen tasistak hurbiltzen zuen eta gero, oinez edo Miño ibaia igeri gurutzatzen zuen. Dirua kobratu ondoren ibilbide berdina, modu berdinez, egiten zuen. Neguan ez, batelaz bertzaldera pasarazten zutela dio. Beno, gure Bidasoatik ere antzekoak egin izan dira.

Uda omen zen eta mutiko batek mugaraino ekarri zuen. Portugalera joan, dirua kobratu eta plastikoz inguratu ondoren bainujantziaren barruko aldean itsatsi zuen. “En verano siempre llevaba el traje de baño puesto, por lo que podría pasar.”

Miño zeharkatzen hasi zen. Españako aldean bere langilea zai. Bertaratzeko nahiko gutxi falta zitzaionean, hara non azaltzen den Guardia Civil taldea! Zer egin? Ezin buelta eman! Eta bai langileari baita Otiliari ere elkar arteko haserrealdia antzerkia egitea bururatu zitzaien:

- ¿Qué? Llegas tarde! – mutilak esan
- ¿Tarde? Y tu ¿qué sabrás?
- Oye, que si sigues así te vas por donde has venido! – txulo xamar
- ¿Qué? Pero, ¿tu qué te has pensado, español de mierda? Sabes que te digo, que me vuelvo, que no quiero saber nada contigo!!!! – uretik Otiliak.

Media buelta eman eta Portugalera berriro.

Hantxe gelditu omen zen Espñaako aldean mutila Guardia Civilekin emakume txoroaren kontra hau eta hura esaten!

Portugal aldetik oinez ibaia jarraituz kilometro mordoa egin eta berriro igeriz ibaia zeharkatu zuen. Oraingo honetan arazorik gabe.!



*Miño ibaia*

- **Emakumea**



Behin , Portugaldik kobratzetik ere zetorrela, pinudi batean Guardia Civilak alto bota eta nondik zetorren galdetu zioten.

Ba, (azkar pentsatu beharra zegoen!), emakume ezkondua zela baina “ya sabes, vengo de... en fin... un portugues que me gusta... pero por Dios! No quisiera que ... esto... ya sabes, si se entera mi marido...”

Eta hala, Guardia Civilak emakume haren sexu harremanak irribarretsu imajinatu bitartean, Otilia ederki bere echarpeak bizkarra inguratzen ziola, aurrera jarraitu zuen.

- Utilizáste muchas veces eso que llaman armas de mujer, ¿no Otilia? – galdetu nion.
- Bueno... ya lo creo! Es que los hombres creían que porque una mujer anduviera por sitios donde no había nadie y de noche era, ya sabes, pues una fresca ! y mira en que andaba yo!  
Pero luego ya sabían a que me dedicaba y hacían como que me creían.  
Engañarlos era fácil y claro, me he servido de ser mujer para engañar.

Beste behin, Lugo inguruan Otilia portugesez beterik zetorren kamioi baten zai zegoen.

Kotxez ea kamioia agertzen zen ikustera zihoala, Lugo – Orense bidegurutzean, Trafikoko Guardia Civilak agertu zitzaizkion. Alto! Eta ea zertan ari zen horrelako emakume polita inguru haietan, galdetu.

Berriro ere asunto berdina : ezkondua zegoela baina mediku batekin harremanetan hasia ere, bere klinikan egina zutela hitzordua baina ez zekiela ba non zegoen , eta Jaungoikoaren izenean... ez lukeela senarrak jakitea nahi... eta...

Guardia Civilak bazekiten klinika santua non zegoen eta haraino, ongi pasatzeko eta bizitza motza zela eta horrelako hausnarketa sakonak eginez lagundu zuten!

Otiliak arazorik gabe ederki saihestu zuen agintea eta ederki ere jakin zuen nondik-nora zebilen gaueko turnoa. Kamioia eta bere kotxea kontrola ez zegoen bidetik lasai askoan pasa ziren.



*Gure eskubidean Otilia, ondoan bere*

*ahizpa.*

- **Otsoen beldur.**

Otiliak, berari gertatutako pasadizo honetan benetako beldur beltza sentitu zuela aitortu zuen.

Guardatik Villar Formosoruntz kotxez 6 portugeseekin zetorren. Bere aurretik beste kotxe bat gia lanak eginez, hutsik. Aurrerago kontrol bat zegoela esan zioten. Bidea moztua zegoenez, 6 portugesak atzera eramatea erabaki zuten.

Otiliak kotxea gorde zuen eta 10 bat kilometro atzera besteen kotxean joan zen. Mutil batzuk mendiz pasa behar zuten eta haien zain, bakarrik gelditu zen. Euria ari omen zuen, hotz izugarria ere!

Arazoak gertatu ziren : kontrol bat baino gehiago jarriak, etorri behar ziren portugesak eguraldi txar harekin erdi galduak ibiliak... eta Otilia harri arrobi baten inguruan zai.

Otsoak sumatzen zituen : “Ya sabes que por Galicia había muchos”.

Eta , zer egin? Ba, harri haundi batean eseri omen zen eta bere burua harriz inguratu igloo baten antzera ! “Pero los pies se me quedaban helados!”

Hala, eternoa egin zitzaion gaua amaitu zen. Otsoren batek jango zuela pentsatu omen zuen behin baino gehiagotan!

“! El frío y el miedo que pasé!”.

#### - **Laputsagaraia.**

Horrela izena du Sara aldean baina Zugarramurditik oso gertu dagoen baserriak. Bertara Otiliak eta berarentzat lanean aritzen ziren zugarramurdiarrak, portugaldarrak eramaten zituzten. Masterrak omen ziren bertan bizi zirenak eta hauen betebeharra askotan hotzez eta beti nekaturik iristen ziren pertsona haiei janaria, edaria eta deskantsatzeko toki lasaia eskaintzea zen.

Behin, Otilia eta ekartzen zituen portugaldarrak hotzez, gosez, egarriz, nekez... hala-nola Laputsaira iritsi ziren. Bertako ukuiluaren txoko batean

eseri eta norbait azalduko zenaren zain egon eta egon eta inor agertzen ez. Hotza izugarria nabaritzen omen zuten, dardarka guztiak. Noizbait bertako mutila etorri omen zitzaien eta Guardia Civila bertan zegoela esan. Otiliak, haserre biziz bere burua aurkeztu zuen :

- Oye, yo soy la jefa aquí. La jefa tuya y de éstos también! Haz el favor de traer comida y mantas enseguida!

Pero ... es que estan kokuas ! – mutilak erantzun.



*Madriren, Foto Amadeok 1965eko Martxoaren 25ean ateratako argazkia.*

Beranduxeago, mutila ez baina nagusi egiten zuena etorri, su galanta piztu eta behar ziren janari-edariak eskeeni omen zituen.

Orduan ere hiltzeko zorian ez ote zen egon galdetzen dio Otiliak bere buruari.

Beste behin, Otilia 9 portugaldarrekin mendiz zetorrela, Laputsaira iritsi zen baina ... Guardia Civila bertan zegoenez, ezin baserri barrura sartu! Han, inguruan, usoak ehizatzeke altura batean, postu bat omen zegoen eta Otiliari bertan sartu behar zirela bururatu zitzaion. Egin ere! Han, goian , gaua 9 gizon eta emakume hark pasatu zuten.

- **Espetxean.**

Bordelen, SNCF tren geltokian harrapatu eta kartzelatu zutela esan dugu. Ez zen aldi bakarra izan. Denetara, Otilia 6 aldiz izana da espetxean. Hala dio berak. Pasarte batzuk ez ditu oso argi gogoratzen, beste batzuk atzoko kontuak izango balira bezain argi.

Behin, Irungo kanposantu ondoan gertatu zen.

Bertan portugaldarrak “deskargatu” (horrela esaten dute pasatzaileek) eta bertan, bakarrik, utzi zituen pasatzaileak Otilia iritsi bitartean. Bakarrik utzi zituen eta tratua ez zen hura izan. Agian bazuen Guardia Civilak etorriko ziren susmoa eta...

Eta bai, eltzetzuak agertu ziren. Portugaldarrei nork ekarri zituen galdetu, eta buru emakume bat zela esan. “Automático... era yo”. Beregana jo zuten eta espetxeratu.

Beste behin, Santiagotik autobusez 12 portuges zetozen. Hendaian harrapatu zituzten baina atzera igorri baino lehen, nork eramanak izan ziren galdetu eta... “nos trajo una mujer... María “. Eta María , Otiliaren izengoitia zen. “A la cárcel”.

Hau Tuytik Pontevedrara, Vigoko tasistarekin zetorrela gertatu zitzaion

Guardia Civilaren beldurrez edo, tasistak zekarren portugaldarrak herri txiki batean abandonatu zituen. Berrero ere, Otilia nagusi zenez, berarengana jo zuten eta Santiagoko espetxean hilabete bat pasarazi zioten.

“Los que trabajaban conmigo querían asaltar la cárcel de Santiago para que saliera. La celda mia daba a un callejón y por la parte de atrás me comunicaba con ellos. Mi hermana venía con ellos y ... que iban a asaltar la cárcel! Venga ya!!”

Orenseko espetxean ere egona da . Hemen ez da oroitzen ondo nola , zergatik..

Eta azkenik, Iruñeko kartzela ere ezaguna du. Sei hilabete bertan egona da. Portugesen aferan beti ere. Altsasu aldean autobusez zetoze portugaldar talde bat pasatzailerik gabe utzi zuten. Norbaitek Guardia Civilari parte eman eta bertaratu ondoren, norik eramanak izan ziren galdetu zieten... Otiliaren izena aho – hortzetik. Berarengana jo eta espetxeratu zuten.

Eta denetara , bai, sei espetxealdi azaltzen dira.

Ez nion batere insistitu zehatz-mehatz istorio hauek konta zitzaizkidan . Berak naturalki esaten zituen esan beharrekoak baina, ez zitzaizkidan iruditu egokia zenik 81 urteko emakumeari egoera tristeetan sakontzea eskatzea.

Nik neuk ere kontaturiko pasadizo xelege haiek gogoratzea nahiago izan dut.



*San Vicente de Pauleko monjekin Iruñako espetxean . 1964eko Uztailaren 19an.*



*Ezkerretik hasirik : Sor Carmen, Otilia, M. Garustige eta M. Maria.*



*Otilia bere alabatxoarekin Peñiscolan.*

*Ume hau Otiliaren ostatura joandako neska portugaldar baten alaba da. Frantzia aldera pasa nahi zuten portugaldar batzuk gaua pasatzeko asmotan Irungo Patxi ostatuan gela hartu zuten. Haien artean neska gazte bat. Otiliak haurdun zegoenik ez zekien. Gau hartan erditu zen eta hurrengo egunean joan ziren haurra bertan utzirik. Otiliak hazi eta hezi zuen. Gaur egun lau umeren amaxia da Otilia*

Otilia 2011. urteko Uztailean hil zen. Nigan sentimendu gozoa utzi zuen .  
Ezin ahaztu, nahi ere ez.

Berarekin igarotako egun haiekin sarritan oroitzen naiz.

Pedrok “ ez dakit bainan, lehen bezalakoa bada Otilia, ez bada aldatu...  
ongi kuidatuko zaitu, ez preokupto” esan zidan. Eta hala izan zen.

Hitz hauek eta nire sentimenduak berari iritsiko ote zaizkio? Hala bedi.





## **EUSKAL HERRIKO MUGA O SALTO**

.....

**Ezinbestea berekin dauka betitik herri pobreak,  
Hango jendea tirriatzen du bizi modu hobek;  
haren ondotik zabiltzalarik, hil dira dohakabeak...  
Ai! Ezpeleta´n aurten nolako primaderako loreak!**

.....

**Xalbador.**

### ***EUSKAL HERRIKO MUGA***

Euskaldunen Herria, kulturak, hizkuntzak, sentimenduak, anaitasunak... lotzen duten lurralde ttipi bat dugu. Ttipia izanik, geografikoki guztiz estrategikoa izan dugu lurralde handiago batzuentzat. Administratiboki, politikoki, batzuen edo besteen probetxuan lurralde desberdinetan sarritan banatu izan dute .

Hala, erromatar inperioaren garaian , erromatarren aginduz, Euskal Herria administratiboki bi eremutan banatu zuten.

Erdi Aroan, 1194. urtean Baiona eta Iruñeko Apezpikutegiak guztiz interesatuak agertzen dira beraien lurraldeen mugak nondik-norainokoak diren ongi jakiten eta mugak finkatuko dituzte : alde batetik Urumea bailara , bestetik Belate ingurua.

1200. urtean Gipuzkoa Gaztelako eremua bihurtzen da. Euskaldunen lurraldeak mugaturik agertzen dira.

Fronterak, mugak agintarien baitan daude. Jauntxoek eta erregeek aginduz, hauen interesen baitan zeuden mugen aldaketak.

Historiaren zehar beste salto bat egingo dugu. Frantziako Luis XIV.a zen erregea eta Maria Teresa infanta espainola ezkondu ziren honela bi nazio arteko bakea 1659. urtean Pirinioetako agirian zinatuz.

Bertan , besteak-beste, Espainia-Frantzia arteko muga geografikoa ezarri nahi zen behingoan-behin, lurraldeen eremuak nondik norakoak ziren garbi utzirik. Baina, denbora pasa zen eta 200 urte beranduago, 1856. urtean, bi nazioetako jakintsu talde bat osatu zen mugarren bidez mugari “marra” artifizial antzekoa jar ziezaioten.

Prozesuari hasiera emateko, Baionako hitzarmena 1858. urtean zinatzen zen.

Lehenengo mugarria Txapitelako Harrian Endaltsako zubitik eskubideko aldean kokatu zuten eta 272. a Insolo edo Leskun izeneko lepoan. Hemendik aurrera Pirinio mendikateak mugatzen du Frantziako Pyrénées Atlantiques eta Nafarroa.

Hiru Erregeen Mahaia dugu salbuespen. Eremu hau Frantzia, Nafarroa eta Aragoikoa da.

Frantziako aldetik 1-8 mugarriak Biriaturun ditugu.


9.etik 23 bitarte Urruñan.

24.a Larruneko mendigainean kokaturik dago.

24-65 arte Saran.

66tik-72ra Senpereko eremuetan

72. Dantzariko zubian



*Peña gainean lehenengo mugarría.*

Espainiako aldetik :

Lehengotik hasi eta 39. bitarte Berako inguruetan.

39.etik 56ra Etxalarren.

57 – 70 arte Baztanen eta 70 – 71 – 72ak Urdazubin.



Ofizialki jarritako mugek ez zuen kontrabandoa oztopatu, alderantziz baizik. Garaian behar zen edozein produktu, animalia edo pertsonak pasatzen ziren.

1856. urtean jarritako mugak alde bateko eta bestaldeko merkataritza “legala”erlazioak zailtasunez betetzen ditu baina ez ditu oztopatzen, Kontrabandoari esker ager daitezkeen trabak gaindituko dira.

Bi Estatuak hesi politiko bat ezarri zuten . Kontrabandistek bertako bide, bidexka, baso, ibai... ongi ezaguturik hesia gaindituko dute.

Estatuak kontrolatzaile funtzionarioen bitartez eremu artifiziala kontrolatzen saiatuko dira eta kontrabandistek , lurraldearen ezagupenari esker, kontrola hau gainditzen .

Kontrabandoa, mugak eta muga esanahiaren muinak eskaintzen duen errekurtsio bat da.

Pirinioak eta Bidasoa bere azken zatian izan ziren agintariak jarritako Frantzia-Espainia arteko muga. Bertako biztanleen aurkako ideia seguru aski. Egoera honek abantaila ekonomikoa ekarri zuen kontrabandoaren medioz eta inoiz ez kontzientzi arazorik kontrabandoa egiteagatik. Agintariak bortxaz jarritako marrari probetxua aterata lanbide bat bazegoen Pirineotan zehar, gau lana.



*Bidasoa ibaia. Alde batetik Irungo eremuak , bestaldetik Biriatukoak.*

Estatuek ezarritako muga hauek inposatuak izan dira. Momentuko agintariak inposatutako marra artifizialak. Bertako biztanleek errespetatzen dituzte, bai, baina bertakoentzat moralki ez dute baliorik. Horregatik ez zegoen kontrabandoa egiterakoan kontzientzi arazorik.

Kontrabandoa egiterakoan, “paketeak” pasatzerakoan ez, baina pertsonak eta armak pasatzea... hainbat kontrabandistek ez zuten ontzat jotzen. Nire aitxatxi hauen artean. Bere semea kontrabandista zen nire aitari “ mutikua, ez zakela ez armarik ez pertsonik pasa. Lehenengoak jendia hiltzen ditelarik eta bigarrenak solasten.” erran ziola askotan entzuna izan dut.

Gaur egun drogak pasatzearen antzera. Drogak alde batetik bestera pasatzeak gaztedia ondatzea duela pentsatzen da , eta hori kontrabandista izandakoek, zaharrek, ez dute onartzen. Horrelakoak pasatzea, kontrabandoa ez dela esaten dute. “Hori bertze zerbait da” aunitzetan aipatzen dute. “Pakete” hauek , moralki arazorik sortzen ez duen kontrabandotik kanpo gelditzen dira.

Dena den eta mugetara itzuliz, euskaldunen artean badago mugarik,ez pentsa, mugarren eta urkien bitartez markatzen direnak hain zuzen ere.

Lurraldeen historiaren garapena dela eta ,1996. urtean, Espainia eta Frantzia artean zegoen muga desagertu zen Europa Batasuneko Estatuko partaidea bihurtu bai zen Espainia lurraldea. Europar Batasuneko lurralde desberdinetako pertsonak eta legezko produktuak libreki pasatzerik zuten. Mugaren balio administratiboa desagertu zen eta honekin batera kontrabandisten errekurtsua.

XX. mendeko kontrabandista gehienak umezurtz gelditu ziren.

## **PORTUGALDARRAK MUGAZ GAIN**

Euskal Herriko mugetatik pertsonen, animalien, produktu desberdinen kontrabandoa egiteko, kontrabandistek ongi ezagutzen zituzten bideak, bidexkak, errekak... erabiltzen ziren. Betidanik, aspaldidanik.

Janaria, luxuzko produktuak, industria martxan jartzeko behar ziren tresneriak, politika zela eta ihes zihoazenak, langile emigratzaile ohiak ... denetarik pasa izan da guretzat errekurtsio ekonomikoa bertzerik izan ez den marra, mugatik.

Portugaldarrak euskaldun pasatzaileekin toki, bide askotik pasatzen ahal ziren. Kontrabandistek oso ezagunak zituzten bideetatik, bestaldera Frantziako eremuetara eramaten zituzten. Lan honetan aipatzen diren bideak baino gehiago, askoz gehiago erabili zituztela badakigu baina hauek ere, eskuratzen dizkizuedanak ere portugesek muga gaindi zezaten erabiliak izan ziren.





Pertsona hauek Portugaletik Euskal Herriko mugara garraio desberdinez hurbiltzen saiatzen ziren. Batzuetan hurbilketa hurbila izaten zen, besteetan ez. Lehenengo kasuan oinez ibili beharra ez zen gehiegizkoa izaten, bigarrenean aldiz.... beldurgarria.

Hala, esaterako Irun alderaino ekarriz, nahiko bide motza egin behar zuten mendiz eta Bidasoa gurutzatuz Biriatu aldera pasatzeko. Edo Irundik Hendaiara joanez SNCF tren-geltokira iristeko .

Oso bestekoa izaten zuten Almandozera ailegatu eta Alduderaino mendiz, oinez joaten zirenak! Bide zaila, luzea, neketsua erabat.

Lehenengo bidea egin ez gero portugaldarren sufrimendua txikiagoa izaten zen bigarrena egiten zutenenekin konparatuz. Portugaldarrek ez zuten alde aurretik jakiten egin beharreko bidearen iraupena, kondizioak... edo jakin ez gero askotan egiak ez zirenak esanak izaten ziren : bi orduko bidea, hotelean lo egingo zutela... Azken informazio hauek bide penagarriak egindako portugesek esandakoak dira.

Bestalde portugaldarrak ez zuten mendian, gure mendi antzekoetan ibiltzeko ohiturik. Gu oso mendizaleak bagara. Oraindik ere mendietan ibiltzeko grina nahiko zabaldua dugula uste dut. Ez aldiz garaiko portugaldarrak. Geografikoki ere emigrante hauen eremuak ez dira gureak bezain malkartsuak. Inolako prestaketa fisikorik ez zuten haientzako bide xtrem zirenak egiteko. Egin behar zituzten ibilbideak askotan gaurko GREN antzekoak ziren.

Pasatzaileak aldiz, kontrabandoa zela eta sekulako bideak oinez egiten ohituta zeuden. Baztan-Malerreka-Bortziri-Txingudiko kontrabandistek nolako bideak ez zituzten egiten paketeak alde batetik bestera eramanez ?

Portugaldarrentzat aldiz, amestutako Frantziara iristea gogorra zen.

## **TXINGUDI**

Hondarribiko Fernando itsasoratu behar zen egun batean, itsasontzian, amarrian, kateekin nahastuta pakete bat zegoela konturatu zen. Bertaratu eta arropak ziren. Harantzago , barru aldeko kubiertan gizon bat bustirik ikusi zuen . Izkutaturik zegoen portugesa zen.

Ez zen ohikoa itsasoz portugesak mugaz bestaldera pasatzea baina zenbaitzuk itsasontzietan gorderik saiutzen ziren. Fernandok antzeman zuen portugaldarra Hondarribian dagoen komandantziara eraman zuten.

Hainbat portugaldar Frantziara pasa nahian, Bidasoa zeharkatzen bere kabuz hasi eta Fernandoren hitzetan “Asko ito ziren igerika hasita” . Ez dakit “ asko “ zenbat izan daiteken. Egia da nahikoa dela bat itotzea, asko izateko. Noski. Baina guk “asko” erabiltzen dugunean badirudi zientoka izan daitezkeela eta imajinazioa urrutiegi joan daiteke.

Gehiegizko imajinazioa edo kazetariaren profesionaltasun urriaren eraginez 1973. urteko ABC egunkariaren ale batean irakur dezakegu artikulu batek zioena. Bertan 1972. urtean 80 portugaldar Bidasoa zeharkatzen itota suertatu zirela dio. Harritzekoa. Urte horretan, 1972, Espāñako eta Frantziako gobernuek ez zuten inolako trabarik jartzen portugaldarrak muga arruntetik oinez pasatzeko. Ez zegoen debekaturik. Beraz, zergatik

Bidasoatik pasa? Gutxi batzuk izan ziren horrelako beharrik gabeko arriskua hartu zutenak.

Hondarribiako Erregistroan miatuz 1955-1975 urte bitartean kanpotarren hil agiriak azterturik, portugaldarrak izan zitezkeen zazpi aurkitu ditut. Lehenengoari dokumentazioa aurkitu zioten eta portugaldarra zela dakigu . Besteak ez zuten inolako agiririk beraz nor ziren ez dakigunez, portugaldarrak zirenaren zalantza gelditzen zaigu :

- Antonio Maria Lopes . Portugaldarra. 1933ko Maiatzaren 23an Miranda de Douro-Bragançan jaioa. Ezkondua. “Asfixia por inmersión” . Aeroportuko maldan aurkitua. Hil agiria 1964. urteko Otsailaren 26an zinatua.
- Dokumentazio gabeko 40 urte inguruko gizona. Faroko itsas bazterrean aurkitu zuten itorik. 1966ko Maiatzaren 16an agiria zinatua.
- “Sin identificar”. Hondarribiako Puntalen aurkitu zuten hamar egun itorik zegoela . 1966eko Abenduaren 13a.
- “Desconocido”. Higer lurmuturrean aurkitutako 25 bat urteko gizon beltza. Agian Portugaleko kolonietakoa izan zitekeen. Edo ez.
- Izenik gabekoa. Bidasoa ibaian azaldu zen itota, “ asfixia por sumersión”. 1969. urteko Otsailaren 17an zinatuturik.

- “Un varón sin identificar”. “Ribera de San Pablo de la Ria Jaizubia” n aurkitu zuten. Hau ere itota “asfixia por sumersión” . Atzerago irakur daitekenez “de data de treinta dias”. 1974. urteko Martxoaren 20an zinatuta.
- Azkena 1975. urtean gertatutakoa. Agiria Apirilak 12an zinatu zen. Itsasoan itorik aurkitu zuten.

Hondarribiako Amute aldetik portugaldar asko pasatzen ziren. Ba omen zegoen bertako gizon bat lan honetan , portugues pasan, aritzen zena.

Jaizkibel aldean portugaldar taldeak norabiderik gabe aurkituak izan ziren : “ 3.000 pezta edo hartu eta kanaletik barrena Jaizkibel alderat eraman , esto es Francia ... siga para adelante... esan eta Jaizkibelen igual 15 portugues nahasirik “ ibiltzen zirela dio hondarribiarra den Fermin Larrartek.

Horrelakoak entzuten dira. Maiz entzun ere. Gertatu , gertatu ziren.

Ferminek Irungo Punttan gertatukoa kontatu zidan ere . Portugaldar famili bat etorri zen eta kontrabandista-mugalari zen gizon batekin bestaldera pasatzeko modua adostu zuen . Irungo jaiak ziren. Pasatzaileak San Pedro egunean eltzeturik ez zela egongo pentsatu eta gau hartan pasatzea erabaki zuen. Bidasoa zakar zetorren . Hara-honaka eta pasatzerik ez. Goizaldea gertu , mugalariak kobratua zuen... eta ... “ eso es Francia “ esan eta bertan utzi zituen Francia ez zen tokian. Guardia Civilak betiko pasatzea egin zutenean harrapatu zituen eta Behobiako kuartelera eraman zituzten. Hurrengo eguna San Marcial, alarde eguna zen . Behobiako konpainia osatu zen eta auzotik buelta eman. Kuartel ondotik pasatzerakoan, famili kideek begira ari zirela , familiako semeak, abandonaturik utzi zituen

Punttako pasatzailea ezagutu eta nor zen Guardia Civilei esan zien. Hauek Behobiako konpainia geldi araziz oraingoan kuartelera pasatzailea eraman omen zuten.

Irundik portugaldar asko pasatzen zen. Irunek duen eremu guztietatik.

Fermin igeltsero lanetan aritzen zen. Irungo Landetxan, Kontxitaenea baserri inguruan dagoen adreilu fabrikara buztina eramaten zuen. Edozein egunean ondoko tren bidetik 12 inguruko portugaldar taldea lerroan gaitzinean zutela San Narciso aldera joaten zirela esan zidan .

1970. urteko Irailak 14ko Sud-Ouest egunkarian 40 urtetako Antonio O-B pasatzailea Behobiako jendarmeez gelditu zutela irakur daiteke. Irunen bizi zen Antoniok hiru portugaldar gaueko 9'30 etan Bidasoa zeharkaturik Biriaturantz zihoala, gardak atxilotu zuten. Angolako hiru “portugaldar?” ziren pasatutakoak . 29-34 eta 41 urtetakoak . Badirudi, alde zaurretik bertzaldera pasatu nahian ibili zirela baina helburua lortu ez zutenez, Antoniorekin bigarren aldiz pasatzen saiatu ziren . Oraingoan ere ez. Pasatzailea Baionako gendarmetegira eraman zuten eta angolarrak Espainiaratu.

Portugaldarrak Iruna modu askotan iristen ziren : trenez, kotxez, autobusez ... Garai haietan, Iruna Espainiako hainbat zonaldeetatik emigrante asko etorri zen. Batzuk Irungo lantegietan lana egiten zuten , beste asko bestaldera pasaz Ipar Euskal Herriko bigarren sektoreko hainbat gunetan aritzen ziren. Azken hauek goizero bere janaria poltsatxo batean sarturik etxetik hartu , Nazioarteko Zubia pasaportea esku batez gora egin eta erakutsiz igarotzen

zuten. Hauen artean Irungo dendetan erosten ziren pasaportearen azalak goratuz, portugesak pasatzen ziren. Plastikoaren barruan ez zegoen pasaporterik.

Pasatzailearen lana, plastikoak banatu eta nondik eta zer eginez joan behar zuten esatea zen.

Trenez Iruna iristen ziren. Asko aldez aurretik jakindako toki edo pertsona zehatz batekin harremanetan jartzen ziren. Pertsona hauek ez ziren “profesionalak”, ez ziren lehendik kontrabandoan aritutakoak, egoera erabat momentukoa zela esan zidaten “benetako” kontrabandistek.

Modu hau Otiliak ez zuen batere gustuko. Bere ustez, pasaporte itxurako haiek eman eta portugaldarrak bere kabuz muga pasatzea ez zen bidezkoa. Portugaldarrak inolako babesik gabe uztea zen.

Baina bazeuden horrela egiten zutenak. Eta hauen artean portugesak ziren pasatzaile batzuk baziren. Portugesak portugez pasan.

Lekuko batek baino gehiagok , portugez pasatzaileak pistola eramaten zutela diote. Hala zihoen mugalaria zen Plaxido saratarrak adibidez.

Dena den, 1968. urteko Martxoak 2ko Basque Eclair egunkarian Irungo poliziak portugaldar pasatzaile talde bat atxilotu zelaren berri kaleratzen du . Hauen artean ,portugaldar bat “porteur d’un revolver et qui était plus spécialement chargé de procurer de faux passeports aux candidats à l’émigration clandestine.”

Portugaldar pasatzaileak pistola zeramatzan eta bere metodoa gezurretako pasaportea erabiltzea zen. Otiliari gustatzen ez zitzaion metodoa.

Emakume honek, aurrez esan dugunez, beste modu batera egiten zuen. Bere aginduetara mugalari lanetan aritzen zen gazte bat Pedro dugu.

Kontrabandoan “denetarik pixka bat” pasatzen gaztea zelarik hasi zen .  
Bidasoa hurbilean bizi zenez, erreka kapritxoak ongi ezagutzen zituen.  
“Bidasoa postura guzitan guruzatu dut baina ez dakit igerin “ esan zidanean, harrituta utzi ninduen. Erreka handitua bazen, Biriaturko Joakin Arizagak 6. edo 8. mugarriko paretik zeharkatzen zutela Bidasoa esplikatu zidan. Portugaldarrak beraien kabuz Bidasoa gurutzatzen hasi eta ito zirela dio. Honetaz aurretik aritu gara . Eta pasatzaileran bat ere ito zela dio Pedrok. Badaiteke. Pedroz gain ez dut entzun portugesak pasatzean mugalaririk itota hilik suertatu denik, bai aldiz kontrabando kontuekin Berako bi gazte esaterako . Baina hori beste historia da. Bukaera gogorra duen historia ere.

Pedro Otiliarentzat aritzen zenean, askotan Irungo kanposantu aldean zitatzen ziren. Pedroren gidaritzapean portugaldarrak oinez mendiz lehenbizi eta gero Bidasoa zeharkatu ondoren, edo Biriaturun uzten zituen edo Hendaiara eraman edo errepide nazionalaren inguruan gordez itxoiten zuten. Otilia edo honen langile bat kotxez Portugal aldera hurbilduz, portugaldarrak beribilean sartu eta idatzirik zeramatzen helbideraino eramango zituzten. Hendaiako tren geltokia portugaldarrak helmugara

*Marcel Mirambeau solasean.*



iristeko asko erabiltzen zen. Pasatzaileek Irundik edo inguruetatik Hendaiako garat eramanez, hantxe bidai txartelak erosi eta portugaldarrak gehienetan Parisat bidaltzen zituzten. Hango tren estaziora jada Parisen zeuden familiakoek bila joaten ziren.

Beste batzuetan Hendaiako geltokian zai egoten ziren familiako nor etorriko beraien bila.

Garaian Hendaiako tren geltokian, tren txartelak saltzen Marcel Mirambeau egoten zen. 1930ean jaio eta 62an Hendaiara joan zen.

M. Mirambeauk oso panorama beltza azaldu zidan.

Garai haietan portugaldar emigrazio ezkutuan, bi zati garbi nabarmentzen ditu : alde batetik portugaldar gizajoak eta bestetik pasatzaile nazkagarriak. Beste lerro zenbaitetan esan dudanez, nire ustez egoerak ez dira beltz edo txuri, baina M. Mirambeauren esperientzia gai honetan beste bat da.

Bera iritsi zenean, Hendaiako tren geltokian ez zegoen inolako gela bereizirik jendea zai egon zedin. Portugaldarrak billeteak saltzen ziren tokian pilatzen ziren.

Marcelen esanetan, askotan bi eta hiru egunez beraiak eramango zituen norbaiten zai egoten ziren. Andreak beraien senarren esperoan egunak botatzen omen zituzten, askotan haur txikiekin. Hauek gosez, negarrez hasten omen ziren eta amek dirurik ezean ezin gehiegi egin. Diru kartera hutsik zutela erakusten zuten dirurik ez zutela adierazteko.

M. Mirambeauk behin baino gehiagotan frankoren bat eman eta parez pare zegoen dendara joan eta jateko zerbait erosteko esaten zien.

Hura “l'exode” zela esan zidan. Behin baino gehiagotan portugaldarrak estazioan zeuden egoerak “inhumains”.



Berak deskribatzen zituen momentuak danteskoak zirela iduritzen zitzaidan. Penagarria.

Zenbait emakume oinutsik etortzen omen ziren. Arropa txiroak, haurrak halanola tapaturik, gizonak ikaraturik, ilunak... miserableak, ihesik zetozenak baina itxaropenez hori bai.

Francis Cornu kazetariak Hendaiako tren geltokiaz idatzitako kronikan M. Mirambeauk antzera, egoera tristeak, ilunak ere deskribatzen ditu :

“ Hendaye. Huit heures trente. La voix métallique des haut-parleurs résonne brusquement sous les verrières poussiéreuses de la gare d’Hendaye. On annonce successivement en français, espagnol et portugais l’arrivée du train de Lisbonne.

...

On se précipite, on se bouscule pour retrouver son bien. Des femmes hissent sur leur tête de grands baluchons de toile. Les familles, un instant séparées, se rassemblent. Des groupes se forment. Un enfant perdu pleure. Puis toute la foule s’entasse à l’entrée de l’unique passage souterrain. Dans l’ombre du sous-sol, derrière les grilles qui marquent encore la frontière, un interminable défilé de regards vagues, inquiets, marqués par la fatigue, s’étire lentement vers la salle des douanes. Les haut-parleurs annoncent déjà le départ d’un prochain train pour Bordeaux et Paris....”

M. Mirambeauk pasatzaileez gorrotoz hitzegin zidan: “des bandits, sans aucun scrupule ni moral”.

Lanean hasi eta egun gutxi barru, gizon zarapastroso bat etorri omen zitzaion billeteak saltzen zituen tokira eta 45 txartel eskatu! Harriduraz eman zizkion baita ordainduko ez zituelako beldurrez. Zenbat zen esan eta pasatzaileak poltsikotik diru fardo mostrongo bat ateri eta ordaindu omen zion.

Gizon haren itxura deskribatuz, zikina, arropa zaharrak, egunetan kendu gabeko bizarra, desairosoa zela esaten du Marcelek.

Mirambeauren ustetan, pasatzaile hura portugaldarrei diru guztiak kendu eta billeteak erostera etortzen omen zen.

Geltokira hiru-lau pasatzaile astean hirutan gutxienez etortzen zirela dio. Beti 20 baino txartel gehiago erosten zuten.

Mirambeauk ezaguturiko pasatzaile guztiak talde berdinean sartzen ditu: fisikoki nazkagarriak, moralki ere.

Bukatzeko, Hendaiako tasistei buruz solastatu zen. Asko portugesek pasan aritzen zirela dio eta ez bakarrik inguruan, bazeuden izan ere, Portugal alderat joanez, Hendaiaraino ekartzen zituztenak. Bati buruz zehazterakoan, Villar Formoso aldean tiroz hil zutela zihoen. Marcelen ustetan kontuak ez ziren garbi izaten askotan.

Portugaldarren emigrazioa erabat deskontrolpean zegoela oharturik eta Hendaiako tren geltokian egoera latzak bizitzen zirenez, Frantzia aldean zerbait egin behar zela guzti hura bideratzeko pentsatzen hasi ziren.

1967. urtean Secours Catholique-k Euskal Herrira begirale bat igorri zuen, Anne Girardon. Honek egoeraren azterketa egin ondoren, helburu bat zuen txosten bat idatzi : “... dans l’espoir de trouver une solution pour stopper les conditions scandaleuses d’exploitation dont sont victimes les Portugais clandestins....”

Idatzian, portugaldarren bidai klandestinoaren gora-beheren salaketa egin zuen: ordaintzen zuten gehiegizko dirua, garraioak, eskainitako janaria, jasandako hainbat tratu txar, hildakoak ...

Salaketa egin ondoren ongi egiten ari diren gauzez ere idatziko ere. Garbi uzten du “ ces misères et de ces scandales...” España eta Hego Euskal Herrian gertatzen zirela, aldiz “ des réalisations, modestes souvent par rapport à l’immensité du problème...” Hego Euskal Herrian, hau da Frantziako administrazioan. Oso partidista dirudi. Egoera beltza Espainiako aldean, zuria ez baina nahiko argia Frantziakoan. Scandale Hego Euskal Herrian gertatzen zena, réalisations aldiz Ipar Euskal Herrikoak. Gaiztoak mugaren alde batean, ez hain gaiztoak edo nahiko onak aldiz bestaldean. Alde batekoak maltzurak, bestekoak salbatzaileak! Berrero ere beltz eta txuri. Errazegia arazoaren esplikazioa !

“Réalisations modestes” hauen barruan, Centre d’Accueil de la Gare d’Hendaye aipatzen du.

Gela hau Hendaiako tren geltokiaren barruan zegoen. Egongela bat zen. Pilatuta egon gabe, portugaldarrak erosoago egon zitezten gela. “Aide aux mères”, amei laguntzeko gune bat ere bazegoen. Han besteak beste umeei biberioak preparatzen zizkieten.

Gurutze Gorriak arropa eta sendagai zenbait bertaratzen zituzten .

Donibane Lohitzuneko tren geltokian antzeko aretoa ere martxan jarri zen.

Aurrerapen txikiak ziren. Girardon andereak “réalisations modestes” zirela esaterakoan, arrazoia zuen. Guztiz “modestes” iruditzen zaizkit niri ere.

Frantziak langileak behar zituen, portugaldarrak prest zeuden lanerako... zergatik ez lortu konponbide duin bat bi gobernuen artean? Egia da lan akordioak eta sinatu zituztela baina paperean gelditzen ziren. Errealitatea, Frantziara iristeko modu bakarra o salto zela zen. O salto metodoak zekarren gehiegikeriak , arriskuak .... salatu zirenez, Frantziako gobernuak

egoera nolakoa zen bazekien. Zergatik ez ziren gobernu arteko akordioak aurrera eraman?

Errazegia da pasatzaileen gehiegikeriak salatzea eta horretan gelditzea. Egizak ba egin beharrekoak!!!

Dena den, eta zenbait pasatzaileen gehiegikeriak salatu ondoren, pasatzaile askori esker Salazarren gobernuak moldatzen ez zuen arazo arazo ekonomikoak bultzaturik, milaka portugaldarrek Frantziara joan eta lanari esker bizimodu duin bat lortu zutela ezin ahaztu.

Bidasoa gurutzatzea ez zen erraza izaten portugaldarrentzat. Gaztainalde baserria zegoen paretik nahiko nekez pasatzen ziren. Portugaldar asko omen ziren igerian ez zekitenak. Pedrok ere ez hortaz! Bidasoako uretan izutzen omen ziren, ez ordea Pedro.

Behin beste kontrabandista batzuk mandoak kontrabandoz Bidasoa gurutzatuz beste aldera eraman behar zituztenez, Pedrok bere portugesak tartean eramatea erabaki zuen. Bi lagun omen ziren 60 portugesez pasatzeko eta 7 kontrabandista aldiz 30 mando uraren bestaldera eramateko. Denak batera pasatu ziren. Lokarri bat Bidasoako alde batetik bestera jarriz, txalupa txiki baten medioz pasa zituzten. Portugesen ondoan mandoak.



*Bidasoa ibaia.*

Bidasoarekin loturik badu Pedrok pasadizo bitxi bat. Askotan, urak gurutzatzeko galtzak kendu eta galtzontzilotan egiten omen zuen. Halakoetan zebilela Guardia Civilak azaldu eta tiroka hasi omen zitzaizkion. Bai eta Pedro korrika galtzontzilo hutsetan! Etxeberri baserrira iritsi zenean bertan zeukan furgonetan sartu eta Hendaia aldera joan zen!

Galtzontzilotan noski!

Beraz, Pedro portuges pasan Bidasoa ibaia inguruetan aritzen zen baina askotan Irun aldera Oiartzun-Arkale-Erlaitzetik kotxez edo oinez ekartzen zituen gero Biriatur utzi eta beste norbaitek edo kotxez edo trenez igortzeko.

Oiartzunera portugaldarren bila joaten zenean, mina zuloetan ezkuturik aurkitzen zituen .

Noizbait Pedrok Bidasoa gurutzatuz Biriatur aldera portugaldarrak eramane eta borda batean utziz, atzera berriro ibaia zeharkatu, Citroen Pato berebila hartu, bordara joan, portugaldarrak kotxean sartu eta Pariseraino eramatea

suertatu zitzaion. Pariseko helbidea guztiek zuten, bertaratu zituen. Buelta etxerat. Larunbatetik Astelehenerainoko lana izan zen.

Soldaduska egiten ari zela portuges pasan aritu zen. Militar furgonetarekin lau bat aldiz Oiartzungo Arkalen portugesak kargatu eta Bidasoa ondoan dauden Lastaola-Lamiarri baserritaraino eramane zituen. Han furgonetatik aterarazi baino lehen, Guardia Civila pareja inguruan ez zegoela baieztatu eta erreka gurutzatu zuten.

Horrelakoetan harrapatuz gero, Pedro espetxera eta portugaldarrak Portugalera. Edo... tiroketa ere gerta zitekeen. Hala behin Endarlatsa inguruan gertatu ere.

Biriatuko Joakinen esanetan, pasatzaile bat Guardia Civilak tirokatu eta eskapatzea lortu zuen. Dirudienez, gizon honi jarraipen zuzena egin zioten zeren eta tiroketa gertatu eta gutxira, mugalaria Elizondoko ferietan zegoela Guardia Civilak bertan atxilotu zuen.

Otiliarentzat aritua zen modura, Pedro Biriatuko Dominiquerekin aritua zen ere. Biriatuko Joakinek baietz, Dominique ezagutzen zuela eta portugesketan ibiltzen zela ziurtatu zidan.

Irundik "filière" baten medioz etortzen zirela bazekien. Dakigunez, filière bat, Otiliarena zen.

Joakinen esanetan, Biriatuko mugalari batzuek filièrrak izaten omen zituzten. Hau da, zuzenean Portugaleraino joanez portugaldarrak ekartzen zituzten.

Joakinen esanetan beti ere, Biriatun 5-6 pasatzaile ba omen zeuden, Urruñan beste hainbeste. Hauek Bidasoa pasatzen ere aritzen ziren. Hegoaldekoak ur iskinera eramane eta Biriatukoak edo Urruñakoak bere eremuetara pasa. Han bordetan, baserrietan... edukitzen zituzten gero kotxez, autobusez edo trenez Frantzia barrenera gerturatzeko.

Autobusa aipatzerakoan, nola egiten zuten Joakinek esplikatu zidan. Adierazpenak entzuterakoan Saratar batek kontatu zidanaren antzekoak zirela burura etorri zitzaidan.

Autobusa Biriatura etortzen zen eta bertan zihoazen pertsona legalen artean portugaldar ilegalak joaten ziren.

Sarako gaztetxoak Donibaneko ikastetxera eramaten zituen autobusak portugaldarrak ere garraiatzen zituen. Hauek bide bazterrean gordeta egoten ziren. Autobusa portugaldarrak bertan sartzeko gelditu behar zen jakiteko pasatzaileak errepidean makilen bat edo adostutako beste zerbait jartzen zuen. Aldez aurretik pasatzaileak eta autobus gidariak solastatutako sistema erabiltzen zuten.

Portugaldarrak tren geltokira ikasleen artean joaten ziren. Gazte hauek aldez aurretik ez zekitenez herrikoak bakarrik edo atzerritarren konpainiaz joango ziren, sorpresak izaten zituzten.

Saratik portugaldarrak autobusez eramateko beste modu bat bazen. Behin batean Etxalarko Santiagok portugaldarrak muga pasatu eta Sarako Jatetxe bateraino eraman zituen. Hara Sud-Ouest egunkariak banatzeko erabiltzen zen kamioneta bat joan eta portugaldarrak erdian, tranpa bat zuen tokian sarturik, ezkutaturik eraman zituzten. Furgoneta aurrean eta atzean egunkariak edo Sud-Ouesteko beste zerbait eramateko tartea zegoen baina erdian gelatxo bat, portugaldarrek erabiliko zutena alegia. Lyon, Clermont-Ferrand, Paris eta Grenobleraino eramaten zituztela dio Santiagok.

Muga pasatu ondoren, bordetan edo baserritan zai egoten ziren. Askotan hurrek, pasatzailea zen aitak edo osabak edo anaiak ... agindurik, janaria

eta edaria bertaratzen zieten. Biriatuko kontrabandista izandako Juan Marik hala esan zidan:

“Portugesak pasatzen ikusi dut. Ni ez naiz horretan aritua, pasatzen erran nahi dut bainan ogia, patia, zardin latak... zeuden bordarat eramana bai.”

Garai honetan Juan Mari oso gaztea, haurra apenas zen.

Atzera eginez eta gogora ekarriz, Biriatuko Joakinek bertakoa ere zen Dominique ezagutzen zuen eta hau Irungo Pedrokekin portugesketan aritzen zen.

Badu Pedrok Dominiquekin gertaturiko pasarte bat. Behin Citröen Tiburon DS batean Arkalen portugaldarrak sartu zituzten. Egun horretan, Pedrok gia lanak egin zituen: kotxearen aurretik bere Vespan joanez, bidea eltzetzuz libre ote zegoen aztertu. DSan Dominique eta portugaldarrak.

Pedrok bazter guztiak ongi ikusten zituen. Sobera ongi. Giro lasaiegia, bere ustetan. DSa atzetik zetorren. Lamiarri baserriaren inguruan gelditu omen zen eta portugaldarrak ateratzerakoan.... Guardia Civila nonbaitetik atera ere eta tirokatzen hasi !!!!! hura ikara !!!!! Denak korrika alde guztietara. Sakabanatutako portugaldarrak biltzea kosta omen zen !!!.

Pasarteak kontatzea gustukoa du Pedrok. Hartan jarraitu zuen.

Beste gau batez, mendian oinez zebiltzala, portugaldar bati atake batek jo zion. Karraxika hasi omen zen eta ezin geldiarazi. Gauez, “baita Pariseraino entzuten zen!” la zion Pedrok.

Pedro harrituta eta urduri zer egin ez zekiela. Une batean itoko zela gizon hura pentsatu omen zuen eta orobat ez zitzaiola batere inporta horrelakoa



gertatuz gero! “igual hobe!” Portugaldar hura isiltzea besterik ez omen zuen desio.

Beste gau batean horrelakoren bat errepikatu zela dio. “Hiriondo baserri gainko aldean gertatu zitzaion beste bati. Mendian ginen. Baina banuen esperientzia. Hantxe ordu erdi bat egon ginen lasaitu arte eta yasta.”

Portugaldarrentzat presio gehiegi, urduritasun gehiegi, ez jakintasun gehiegi.... Pasatzaileen menpe, besteek zer agindu hura egin behar, noiz bukatuko zen amets gaizto hura ezin jakin..., engainatuko ote zituzten beldur... Buf!

Pertsona bakoitza pasatzeagatik zenbat kobratzen zuten galdetzerakoan

“Bakoitzeko diru bat. Ez zen asko” esan zidan.

Kobratu gabe, motoz eramanak izan zituela ere erantsi zuen. Arriskuan eta bakarrik zeudela jakinik, behin baino gehiagotan sosik kobratu gabe bestaldera pasatuak dituela, portugaldarrak laguntzea “merezi du egitea” emozioz esan zidan.

“Lehenbizian sosagatik egiten nuen, gero sentimendua ere bada” .

Bidasoaren bestaldera pasa eta Frantzian zeudela esaten baitzitzaien, besarkadaka hasten omen ziren.

Pasatzaile batzuk portugaldarrei edozein erreka pasa eta Frantzian zeudela gezurra esanez abandonatzen zituztela aipatzerakoan,

“ hoiek mafiosoak ziren. Bai, batzuk Lesakako zubia pasa eta bestaldea Frantzia zela esaten zuten. Gezurra! Bat, horrela desesperatua, Lesakako ermita ondoan ahorkatu zen.” haserre bota zuen.

Beste lekuko batzuek Donostian berdintsu gertatzen zela esan zidaten. Pasatzaile zitalek portugaldarrei Maria Cristina zubia erakutsi eta beste aldeko zatia Frantzia zela esanez bertan uzten zituztela entzuna dut.

Portugaldarrak laguntzeak merezi zuela Irungo jende askok pentsatuz laguntza eskaini zieten. Muga dagoen beste toki askotan horrelakoak gertatu ziren. Bertako biztanleak hainbat portugaldar norabidean aurkitzen zirela ikusirik, janaria, arropak, egoteko tokiak eskaintzen zizkioten.

Irungo “humanidadea” egunkari frantses bateko hitz batzuetan islatu zen:

“ Dès hier des Irunais ont intercepté des travailleurs portugais , les ont rassuré, documenté et leur ont fait délivrer des papiers leur permettant de franchir la Bidassoa, par les postes frontaliers.”

Ez dakit idazleak nola eta nondik lortu zuen hau jakitea. Zenbait datu nahiko bitxiak eta nire ustez ez guztiz egiazkoak dira.

Irungo biztanleek ezin zuten muga pasatzeko agiririk eskaini. Españan barrena portugaldarrak hilabete bat igarotzeko, 1966. urtetik aurrera legala zen agiri bat gobernamenduko langileek banatzen zuten, ez biztanleek. Beraz, idatzi honen bidez, Irungo biztanleek portugaldar langileak lasaitu zituztela pentsatu behar dugu, baina ez “documenté”. Ez bazituzten behintzat ilegalki “documenté”, hau da pasaporteak inguratzen zituen plastiko hartaz ornitu. Memento ederrak ziren Franco garai haiek, muga pasatzeko behar ziren paperak lortzeko !

Carlos Jimenez garai haietan Lesakako irakaslea, maestroa , Pedrok Lesakan gertatutako maltzurkeriaren lekuko izan zen :

“... otras veces les decian en Lesaka donde había un puente “ correr a todo correr porque al otro lado teneis la frontera...” “

Euria ari zuen arratsalde batean, Carlos bere ikasleekin eskolan zegoela Lantx arotzak bidalitako gazte bat korrika, garrasiz gerturatu zen:

- Don Carlos, Don Carlos!!! – hatsa handituta.
- ¿Que pasa? – irakasleak galdetu.
- Que hay un portuges allí y... Usted estuvo en Lisboa, ¿no? – Portugaleko hiriburuan egona izateagatik bertako hizkuntza jakingo zuela pentsatuz.

Es que no hace más que llorar y besar una foto donde esta una mujer y unos niños pequeños. Y dice... mis pequeninos, mis pequeninos...- erabat larrituta mutilak.

Biak joan ziren baina alferrik. Gizon hark bere buruaz beste egina zuen. Carlosen esanetan kamioi bat zetorreanean haren kontra bota zuen bere burua.

Pedro baino lehen, beste lekuko batek Lesakako ermitan bere burua zintzilikatu zuen portugaldar batetaz hitzegina zidan. Bi kasu desberdin? Pertsona berdina eta jendeak kontatutakoa desberdina?

“Aquel pobre hombre no pudo aguantar la presión. Todo era miedo. Estaba sufriendo terriblemente.”

Gizon hura lurperatzeko, bere buruaz beste egin zuenez, arazoak izan ziren. Hilerri zibilaren eskin batean azken agurra eskaini zioten. Toki hau bataiatu gabekoa zen.

“Tenía una verja que le apartaba del terreno de las buenas gentes y él estaba con los malos. Suicidas generalmente.”

Lurperatu eta hurrengo egunean, Lesakako zenbait pertsonak meza bat atera behar zitzaiola erabaki eta hala egin zuten. Hauen artean, Donostiako Errealaren futbol taldearen jarraitzaile amorratua zen emakume bat hildakoarentzat lore sorta zeramala bertaratu zen .

Udaletxeko norbaitek portugaldarraren agiriak harturik nongoa zen jakin eta familiari gertatutakoa esplikatzeko eskutitz bat bidali zion. Hildakoaren anaia batek idatziriko erantzuna jaso zuten Lesakan.

Lesakako erregistroan miaturik, Viara de Castelo-n, Manuel Pinto Ventura 1929ko Apirilaren 19an jaiotako gizonaren hileta agiria badago. Lesakan 1967. urteko Otsailaren 27an arratsaldeko hiruretan “Hemorragia interna traumática” ren eraginez hil zen.

Kamioiaren kontra joz hil zen gizon hark barruko odol isurtzea izango zuen baina inolaz ere ezin dut ziurtatu erregistroan aurkitutakoa eta Lesakako Carlos maestroak kontaturikoa bat datorren.

## **MALERREKA-BERTIZARANA**

Portugaldarrak, Altsasu-Irurtzun inguruetatik Lekunberri aldera ekartzen zituzten.

Sanabriako Gelak, Gorritiko Peperekin harremana zuela oroitarazten dizuet. Bada, Peperen antzera, linea betetzen zuten askok portugaldarrak inguru hauetara hurbiltzen zituzten..

Malerreka eta Bertizarana eremuak pasatu behar ziren mugara hurbildu eta bestaldera, Frantziara, iristeko. Zenbat eta muga ondorago garraio bidez

(kamioiez, kotxez...) joan, orduan eta portugaldarrentzat neke gutxiago. Hauentzat abantaila handia zen mendiz bide motza eginez gero. Azken txanpa besterik ez zitzairen gelditzen mugaz bestaldean egoteko.

Baina zoritxarrez beraientzat, ez zen beti horrela izaten. Oinez bide luzeak, malkartsuak egiten zituzten.

Aldez aurretik inork ez zien esaten nolakoa eta zenbat denborakoa izango zen bete beharreko bidea. Gertatuko zenaren menpe zeuden. Ezin zuten inolako aurreikuspenik egin.

Bidaiaren xehetasunez galdetuz gero, erantzuna 2-3 ordu ibiliz muga pasatuko zutela esaten zieten. Gezurra.

Pasatzaile batzuei gezurra zergatik esaten zieten galdetzerakoan, egia esaten bazieten helburua ez zutela beteko erantzun zidaten. Eta arrazoi falta ez zuten.

Beramendi-Belate-Legasa-Bertiz-Etxalar-Sara, bidea egin behar zutela eta alde aurretik horrek zer suposatzen zuen jakinez gero... seguruen atzera egingo zuten edo etsipenak joko zituen.

Pasatzaileek gezurra esanez, portugaldarrek amets gaizto hura noizbait bukatuko zen itxaropena eduki zezaketen eta horrek pausoak aurrera egiten lagunduko ziela pentsatzen edo pentsatu nahi dut.

Leiza-Aresotik dexente gerturatzen zituzten.

Saldiasko Joxek portugaldarrak Basaburuko Beramendira Don Claudio Iraola apezak eta bere iloba zen Ezpondak ekartzen zituztela esan zidan. Beste lekuko batek apaizaren parte hartzea zalantzan jartzen du.

Dena den, Joxek, osaba-ilobarentzat “bijilantzia“ lanak egin zituela dio.

Iloba Iruñekoa zen eta apaiza osaba Arraizeko bentakoa.

Hauek Areso, Leitza eta Beramendi aldera portugaldar asko Mercedes kamioi baten medioz garraiatzen omen zituzten. Ekarrirako talde handia talde txikitan banaturik, pasatzaile desberdinen gidaritzapean bideari ekingo zioten.



*Leitzatik Saldias aldera .*

Erasungo gazte bat, pasatzaile modura aritu zen. 23 urte arte “paketeetan” eta gero “portugesetan”. Kontrabandoan.

Gehienetan kotxez (Peugeot 403 edo 404 aipatzen ditu) edo kamioiez Eratsun ingurura gerturatzen zizkioten eta gero Frantziaraino oinez joaten zirela dio. Bide luzea egiteko, zatika izaten zen. Zati desberdinak,

pasatzaile desberdinekin. Gehienetan hala izan arren, beti ere ez zen betetzen.

Eratsungo honek gehienetan, Saldias-Donamaria etapa egiten zuen. Gero arraiotzarrak Arraioz aldera eramanez Frantziaratzen zituzten.

Borda batera eramaten zizkioten. Goiz argia izaten zuten askotan iritsi orduko. Han jan, edan, eta eguna deskantsatzeko aprobetxatzen zuten. Arratsean pasatzailea beraien bila joaten zen eta bideari ekin.



*Borda honetan portugaldarrak pasatzailea noiz etorriko zen zai egoten ziren.*

Horrela 5-6 urtez aritu zen.

Gazte pasatzaile honi Portugaldarrak garraiatzen zizkionak ordaintzen zion.

Iparraldera iristeko bidaia zatitan eginez gero, zati bakoitza egin zuen pasatzaileari kotxez-kamioiez... ekarri zuen hark ordaintzen zion. Hau da, askotan linearen buruak, nagusiak.

Janaria bordara eramatea eta hau ordaintzea pasatzailearen kontu izaten zen.

Astean 2-3 gauaz aritzen omen zen. Ez ziren beti portugaldar kopuru berdinez arduratzen. Kamioiez etortzen zirenean, 20-30 portugaldar eramaten zituzten. 50-60 ere bai.

Behin, 102 pertsonako taldea eraman zuten. Aurrerago aipatuko dudanez, Berako Ramonek, 102 portugaldar Sararaino eraman zituela esan zidan.

Eratsungo gizonari hau aipatu nionean, beraien eskutik pasatutakoak izan zitezkeela zioen. Ramon eta biak adin bera dute, eta Eratsungoak

Donamariaren hurbilera eraman eta gero beste batzuen esku, askotan Bera-Sunbilla edo Etxalarkoen esku gelditzen zirela esaterakoan, 102 haiek nirekin solastutako bi lekuko hauen medioz Frantziaratu izan balira, historia txiki honi lotura ematen diola iruditzen zait.

Eratsungo lekuko honek beste bide batzuk ere egiten zirela esplikatu zidan.

Bat Eratsungo mendien barrena, Zubieta-Ituren-Sunbila arte joanez, azken txanpa Etxalar aldetik Sararat izaten zen. Eramaileak sunbildar edo etxalartar pasatzaileak.

Beste bat, bide luzea, luzeegia, aurrez aipaturikoa: Beramenditik Belaten barrena, Legasara iristea zen. Gero Bertiz mendiz zeharkatuz Etxalar aldetik Sararaino joan behar zen. Azken zati hau askotan etxalartarrak egindakoa.

Eratsungoak “bide luzia. Ederra sufritzen zuten! Egunez gaizki eta gauez...! Ilunpean txarra da ibiltzea! Gizagixoak, ez zuten ezer esaten!”



esanez bukatu zen elkarrekin egindako ibilbidea.

Portugaldarrentzat Euskal Herriko bideak ezezagunak ziren. Ez zuten distantzia eta zailtasunen berri. Beraien prestaketa fisiko ezari, hainbeste orduz mendiz ibiltzeko arropa eta oinetako desegokiak gehitu behar zaio. Lekuko askok, emakumeak takoia zuten zapata xumez etortzen zirela diote. Pentsa! ez zuten askoz gehiago izanen haien herrietan baina oinetako horiekin nekez betetzerik zuten mendiko bide zailak. Arropak ere xumeak zituzten. Xumeak eta exkaxak. Ez zuten besterik.

Legasako Migel Portugaleraino joaten hasi baino lehen, pasatzaile lanetan aritu zen. Honek, portugaldarrak Olaguen hartu eta mendiz mendi Arraiozera eramaten zituen. Hemendik muga aldera beste batzuen esku gelditzen zen.

Otsondotik Ainhoa aldera ere.

Egindako beste bide bat, Ultzamatik Legasa bitarte izaten zen.

Berak Portugaldik ekartzen zituenean, Ultzaman uzten zituen. Gero, kotxez edo kamioiz Berruetara edo Aniza eramanez, bordetan uzten zituzten. Eguna deskantsatzen pasatzen zuten. Janaria eta edaria bertaratzen zieten. Gauez , mendiz muga zeharkatzeko Ainhoa aldera joaten ziren.

Ultzamatik beste bide bat hartzerik zegoen. Lehen esan dudanez, luzea eta oso neketsua: Bertiz aldetik Ipar Euskal Herriraino. Migelek bide hau egiten bazuten “ lehertuak etorri behar ziren” esaten du. Esaldi hau kontrabandista batek luzatzeak esanahi berezia hartzen du. Euskaldun kontrabandistak mendietatik ibilbide luzeak egiten oso ohituta zeuden. Horregatik Migelek portugaldarrak bidaia hau egiterakoan guztiz nekatuta

bukatuko zutela esandakoan , azken muturrerainoko nekea sentituko zutela gizajo haiek ziarra dezakegu.

Migelek, Legasa inguru haietan portugaldar batek pasatzailea labankadaz erasotu zuela dio. Nonbait portugaldarra bidaian gaizki tratatua izan zen eta mendekua hartu zuen. Pasadizo hau toki desberdinetan, lekuko dezenteri esaten aditua dut, beti ere Bertizaranako eremuetan kokaturik.

Lekukoen artean apaiza bati. “Legasa aldiaren bazen gizon bat portugesak pasatzen zituenak, gaixtua bera. Gaizki tratatzen zitun, joka eta... portugesak bat hasertu eta labankadak ere sartu. Ez zen hil bainan bertzia nazkatu izanen zuen eta...”

Berroetako den beste lekukoak “ Legasan, pasatzaile bateri nabala sartu zioten...”

Legasa inguruetan ere emakumeren portugaldar bat bortxatu zutela diote testigantza desberdinek. Etxalarko batek “Legasako batzuk neska bat edo gehio biolatu zutela hagitik fuertea erraten zen.”

Berroetakoak : “ aditu dut bai, biolatuak ere izan zirela. Ikusi ez baina aditu bai.”

Nik hitz egindako lekukoek gehiegikeriak salatuz gain zitalkerietan aritutako pasatzaileen kontra gogor hitzegiten dute eta bertzalde portugaldarrak miresten dituzte.

Migelek, beste hainbat mugalarien pareko, portugesak gorai patzen ditu: “Portugesa fuertia da. Konforme erraxak. Gu bezelakoak pakete denboran aritzen ginenian: gasna eta ardo pixka bat eman eta bixkortzen ziren. Fuertiak ziren. Fiderrak.”

## **BORTZIRIAK**

Bortziriak Lesaka-Arantza-Igantzi-Bera eta Etxalar herriek osatzen duten paraje zoragarria dugu. Bestaldean Sara kokatzen da, portugaldarrek amestutako Frantzia aldea.

Portugaldarrak Bortzirira iritsiz bestaldera pasatzeko ez zuten bide luzea jorratu beharrik. Beno, aurrez egindakoarekin konparatuz, ez zen asko falta!

### ***ETXALARTIK SARARAT***

Etxalartik eta Beratik milaka portugaldar o salto Sara alderat pasatu ziren. Horretarako, mugalariak behar beharrezkoak ziren. Hauetako bat, Santiago dugu.

Malerreka edo Bertizaranako kontrabandistek portugaldarrak Bertiz inguruan uzten zituzten. Hemendik aurrera beste mugalariak hartzen zituzten, Santiagok esaterako. Honek Bertizko “paretazarta” (pareta zaharretan) izeneko puntuan taldea jasotzen zuen eta Mononborda baserriraino eramane.

“Batzutan Sunbilakuak guri utzi eta guk Mononbordan. Ipartarrak gero. Bertze eskua etortzen zen. Espetzen genuen bertze eskua etorri arte”.

Beste bide bat, Etxalarko Lizarieta pasa eta meategietako bidean dagoen “kablezartara” (kable zaharretara) eramatea izaten zen .

Santiago portugaldarren bila bere baserritik Bertizera oinez joaten zen. Portugaldarrak utzi behar zituen tokira oinez ere, buelta etxera oinez. Beretzako nahiko ibiltzea zen baina ohitua zegoen. Kontrabandoa eginez, praktika ederra bazuen. “Fisikua izugarria nuen. Kostunbre izugarria eta 24 urte.”

Bertizeraino Ultzama, Leitza, Elgorriaga, Doneztebe... aldetik eramanak zirela dio.

Aurreko lekukoek esandakoaren berdina esan zidan Santiagok. Berdin esango dute beste testigantzek: bide guztia oinez egin ez gero luzea bezain neketsua. Baina askotan bidearen zenbait zati kotxez egiten zutenez, hobe ailegatzen ziren.

Hala, batzuetan Etxalarko bidegurutzeraino edo Gibelego errekaraino, kotxez edo kamioiez ekartzen zizkioten eta gero azpitik goiti oinez kablezartaraino edo Sararaino abiatzen ziren .

Kotxez garraiatuz gero, 6-9 portugaldar izaten ziren. Baina kamioiez askoz ere gehiago biltzen ziren:

“12-40-45-60. Segun. Mendi hegala eta hego azpira gauez, eskandalo izugarria egiten da... errelduan 40 pertsona aunitz da.”

“Ailetu gara 200 eta gehiago pasatzen” esan zidanean harriturik utzi ninduen. Eratsu eta Berako pasatzaileak 102ko taldea pasatu zutela entzun nuenean asko iruditu zitzaidan, orain 200 pasatu zutela entzuterakoan... pentsa nolako harridura azalduko nuen!

200 portugaldar eraman zuen gau hartan, 5 mugalari omen ziren. Etxalar eta Sunbila artean Lau Harri deritzan tokitik taldea hartu eta Mononbordan entrega egin zuten.

Beste behin aldiz, bat bakarra Baionako tren geltokiraino eraman zuen. Gauaz muga pasatu zuten eta baserri batean utzi.

Gero, Saran autobus zerbitzua zegoenez, bi bidaiarien bidaia ordaindu eta Baionara iritsi ziren. Hango tren geltokian txartela erosi eta Parisa igorri zuten.

200 portugaldar haiek muga pasatu eta Mononbordan utzi zituela esan dugu. Asko dira 200 baserri batean egoteko! Lekuko desberdinek Mononbordan sekulako portugaldar pila egoten zirela esan izan didate. Hagitz anitz diotenez. Hainbertze non Santiagoren erranetan

“aldi batez 500 eta gehiago juntatu omen ziren. Aunitz lekutik bildu ziren. Portugaleko toki difentetik etorriak ziren. Solasian hasi eta kriston salsa armatu zen. Jaleo izugarria.!” Bai?

Nire aitak aditua zuen, behin Mononbordan portuges aunitz juntatuak izan zirela eta iskanbila sortzen zutela. Eltzetzuen beldurrez, norbait, pasatzailea edo baserriko nagusia edo... , aitak ez zekien, kanpora eskopetarekin atera eta lau haizetara tiroa bota omen zuen. Portugaldarrak derrepente isildu omen ziren. Akabo jaleua!

Egia ote? Esamesak?

Santiagok Mononbordan portugaldarrak utzi eta gero ipartarrak, saratarrak hartzen zituztela esan zuen. Beste lekuko batzuk berdin diote. Hauetako

saratar bat Plaxido dugu. 86 urtetako gizona. Portugaldarrak beti Mononbordan jasotzen zituela dio. Handik Sara aldera eramanez, askotan bordaren batean gordetzen zituzten.

Plaxidok bi helmuga zuen, edo Senperera edo Getarira. Hona eraman ez gero bost orduko bideari ekiten zioten. Getariko harrobiraino eramanez, gero kamioietan sartu eta Paris alderat eramaten zituzten. Plaxidok etxeratzea “otomoilez” egiten zuela esan zidan .

Plaxidok Senpere aipatu duenez, Secours Catholique du Pays Basque-k Senperen 1967. urteko Urtarrilak 29an gizon bat hilik aurkitu zela eta, albistearen kopiak banatu zituztenaz oroitu naiz . Defuntuaren argazkiak erakutsirik, salaketa gogorra egin zuten.

Ikerketen hasieran jende pasan kontrabandista askorik ez zela aritu uste nuen baina usteak ustel. Nik pentsatzen nuen baino gehiago, asko zere gehiago arituak dira.

Plaxidok Saran pasatzaile anitz bazirela dio. “Edozein ibiltzen zen.”

Edozein hitza erabiliz, portugaldarrak beste aldera eramaten jende asko aritzen zela ziurtatzen du. Edozein , kasu honetan ez da bat ala bestea baizik eta bat eta bestea eta asko. Baserritar asko.

Edozein hauen barruan, Pascal H. saratarra. 1968. urteko Otsaila eta Martxoaren bitartean, Pascalek epaitegiekin arazoak izan zituen. Guztia Basque Eclair egunkarian azaldu zen.

21 urteko Pascal portuges pasan ari zela, Marc Calteau jendarmak tiro bota eta mutila zauritu zuen. Saratarrak portuges pasan ez baina zaldia ikuiluan sartzen ari zela esaten zuen bitartean, jendarmak 25 portugaldar zeramatzala eta “Halte à la douane!” entzun baina kasurik ez eginez bideari jarraitzen ziola ikusiz, tirokatu zuela esan zuen.

Portugaldar batzuk harrapatu zituzten eta hauei galdeturik nola pasatu ziren , bidaiaren berri eman zuten eta nor izan zen pasatzailea ere :

“ils ont expliqué qu’ils avaient été conduits par deux passeurs espagnols qui les avaient ensuite confiés à des passeurs français... de plus, deux des portugais en question ont formellement reconnu Pascal H. à la clinique où il était en traitement.”

Pascal harrapatuta zegoen. “ a été déclaré coupable du délit d’aide à étrangers en situation irrégulière et condamné de ce chef à 3 mois de prison avec sursis et 2.000 francs d’amende pour opposition à fonction d’agent à 1.500 francs d’amende.”

Hau lehenengo zigorra izan zen baina Paueko auzitegiak kasua berrikusirik, hilabeteko kartzelatzea eta 500 franko ordaintzera behartu zuen.

Plaxidok dioenez, nagusiak Donibanekoak edo saratarrak ere omen ziren. Hauek anitz irabazten zutela eta ez bere moduko pasatzaile arruntak serioski erran zidan. Dena den, ez da ordainketaz kexatzen. “Nagusiak xuxen pagatzen zuten.”

Nagusiak euskaldunak izan arren, batzuetan portuges nagusia emigratzaileekin etortzen zen. Eta azken hau Plaxidori ez zitzaion gustatzen, gizon hartaz mesfidatzen zen . Horregatik portuges nagusi harentzat ez zuela lanik egingo esan eta planto egin zuen. Gizon hark Portugalen “komanda” egiten zuela ,honuntza portugaldarrak ekarri eta muga pasatzaile euskaldunarekin batera pasa nahi izaten zuela dio. Baita bazter guztiak nahasi . Plaxidok susmo txarrak zituenez, portuges nagusi harekin edo harentzat ez zuen lanik egin. Susmo txarren artean pistola eramaten zuenarena. Ez da lehenengo aldia portugaldar nagusia etorri ez

gero , honek pistola eramaten zuela entzuna izana. Eta pistolarekin aurkitu, portugaldar pasatzaile bat aurkitu zuten. Hala dio Basque Eclair egunkariak 1968ko Martxoaren 2an.

Portugesak portuges pasan aritu zirela badakigu. Ez asko baina.

1970. urteko Azaroak 14ean Sud-Ouest egunkarian, 26 urteko Antonio F. portugaldarra Hendaiako Nazioarteko Zubia gaindituz hiru gazte pasatu nahian zebilela harrapatu zuten. Antonio Frantziako Seine-et-Marnen bizi zen eta ez zuen lanbide ezagunik. Agian, pasatzaile lanbidez bizi zen. Pertsona bakoitza pasatzeagatik 100 franko eskatzen zuten.

Baionako Villa Chagrin-era atxilotuta eraman zuten.

Plaxido berreskuratuz, behin Mononbordatik zetozela, Berrueta Bentta ondoan jendarmeak agertu zirela dio. Taldeko guztiak alde batera eta bestera korrika ihes egin zuten. Gaua zen baina hala ere, portugaldarrek Mononbordara bueltan iristea lortu zuten. Oraindik ere Plaxido ingurua ezagutzen ez zuten haiek nola demontre Mononbordaraino joan ziren, harritzen da. Portugaldarrek ez baina pasatzaileek harrapatu nahi zituztela dio. Portugaldarrak atxilotzen bazituzten, pasatzailea nor zen jakiteko izaten zen. Hala, behin portugaldarrak Saratik autobusez zeramatzatela, jendarmak gelditu eta nork eramana izan ziren galdetuz, “batto ttikixko konkorr bat zela eta bestea handixko bat” esan zuten. Plaxidok humorez “ttiki konkorra ni nintzen!” esan eta parrari ekin zion.





*Plaxido.*

Pasatzaileek portugaldarrei Mononborda Sarako eremuetan zegoenik ez zieten esaten. “Hala izitzen ziren.” Hau da, portugaldarrek jakin balute Frantziako aldean zeudela, zailago egingo zitzaaien pasatzaileei kontrolpean edukitzea eta helmugaraino normaltasunez eramatea. Bidaia eta arriskua ez zela bukatu pentsaeraz, pasatzaileen lana errazten zen.

Plaxidok portugaldarrez “ umil egoten ziren. Batzuk ez ongi tratatuak etortzen ziren. Fierrak ziren!!!”

Azken hitz hauekin beste pasatzaileen antzera, Plaxidok portugaldarrekiko miresmena azaltzen du.

Lekukoek behin eta berriro Mononborda aipatzen didate.

Garai haietan Kontxitak 10-12 urte zuen. Añatarbeko, Mononbordako , maizterrak ziren gurasoak. Kontxita gurasoekin han, Mononbordan, bizi zen. Eta bai. Bere esanetan “ itxia dena portuges betia” izaten zuten. Milaka handik pasatu ziren. Zenbait egunetan , 200 eta gehiago ere. Santiagok 500 arte bildu zirela zioen. Asko iruditzen zait.

Mononborda Sarako eremuetan egon arren, isilik, txintxo egoteko portugaldarrei Espainiako aldean zeudela esaten zieten. Aurrez aipatu denez, Plaxidok ere hala esan zidan. Taldea izupean edukirik errazago zen kontrola ez galtzea.

Frantziako aldean zeudela jakin izan balute, ez zituztela erraz kontrolatuko beldur ziren pasatzaileak.



*Sarako eremuak.*

Kontxitak, pasatzaileak eta portugaldarrak beti Etxalartik etortzen zirela dio.

Askotan aitari Frantziara iristeko zenbat falta zitzaien galdetzen omen zieten. Jakingo balute Espainian ez zeudela!

Kontxitak portugaldarrekin loturik dituen haurtako oroipenak oso ilunak dira: “bustiak ibiltzen ziren. Oinetakuak denak xehetuak! Ez zuten besterik. Ez zuten deus. Nola hasi behar zuten bere bizia? “

Anttonen Bentara sardina latak eroatera joaten ziren. Sardinak eta ogia portugaldarrei eman eta hauek “beraien artian janariaren partiziua egiten zuten. Dena partitzen zuten. Beren tartin kuidatzen ziren.” dio Kontxitak.

Kontxitak dioen azken honekin loturik portugaldarren arteko elkartasuna eta elkar laguntza askotan entzuna dut. Denak gosez egon arren, banaketa egiten zutela esan ohi didate. Ez omen ziren harrapariak. Lekuko askok diote beti prest egoten zirela elkarri laguntzeko.

Etxalarko Xantik elkarrizketan parte hartuz, Kontxitaren ama eta ahizpa zaharrenak kafea etengabe eginez, bai portugaldarrei baita pasatzailei eskeintzen zietela dio. Ongi eskertzen omen zuten, bero-beroa!



*Añatarbe-Mononbordan bizitutako Kontxita.*

Emakume baino gizon gehiago, askoz gehiago, etortzen zirela dio Kontxitek baina “ batzutan ez ziren etortzen (pasatzaileak) segidan bila. Igual biharamuneko etorriko ziren eta jan eta edan behar zuten .”

Hala behin, emakume bat Mononbordan zegoela, inongo pasatzailek eramaten ez zuenez, aitak zer gertatzen zen galdetu zuen. Pasatzaile batek, bere taldekoa ez zela, besteak berea ere ez, besteak berdin... eta aitari andre haren mantenua inork ordaintzen ez. Azkenean norbaitek eraman omen zuen. Pentsa emakume harentzat ere nolako nahigabea. Egun pare bat hantxe, inork eramaten ez zuela, bertan egon zen.

Kontxidak pasatzaileek portugaldarrei ebasten zietela salatu zuen: “handik eldu ziren miseria zeukatelako eta handik etorri eta denak kentzen zizkioten. Attak “ez dute permis horrelakorik egiteko” erraten zuen. Deus gabe uzten zituzten. “

Egoera hitzez salatzeaz gain, nik honetaz idatzi behar nuela seriooki esan zidan.

Sara aldean portugaldarrak gordetzen zituzten beste baserri batzuk izaten ziren. Hauetako bateko etxekoandrearekin solastatu nintzen. Bere ikuspegia Kontxitarena baino positiboagoa dela uste dut.

Gaur egun 79 urte ditu. “La valise en carton” liburua Portugaletik Frantziarantz joan zen emakume batek idatzi zuela esan zidan. Emigratu eta Frantzian abeslari ospetsua bihurtu zen emakume baten historia da. Interesgarria.

Bada, andre honek esan zidanez, portugaldarrak baserrira ekartzen zituen pasatzailea eta gero berriro hartzen zituena ez zen pertsona berdina izaten. Berriro ere, seguruen beratar edo etxalartar batek eraman eta gero saratarrak hurrengo txanpa egingo zuen .

Portugaldar gutxi ekartzen zituztenean elkarrekin jostatzen, brometan aritzen omen ziren. Hala, behin portugaldar magoa joan zitzaien. Taldeko batek 50 eskudoko billetea eman omen zion, magoak sobre batean sartu, itxi sobrea eta su emanaz, erre. Nola-hala sakela igurtzi zuen eta...TATXAN! ... barruan sobrea, dirua eta guzti!!!. Halakoetan gustura, ongi, goxo egoten ziren.

Neguan, gutxi zirenean beti ere, etxeakoak eta kanpokoak sukaldeko sutondoan egoten ziren. Asko baziren, baserriaren ganbaran belarrarekin koltxoiak, “kamainak” eginez lo egiten zuten.

Emakume honek beti janari berdina egiten zien: bakalao-garbantzu-piper-patata eta arraultze egosia zuen gisatu bat. Ardoa edateko.

Etxekoandrea, lan hauetan, kasualitatez hasi zen. Behin portugaldar bat negarrez, etsia hartuta andre honen senarrak Sarako eremuetan aurkitu zuen. Ez zekien non zegoen. Orientabidea galdurik erabat. Baserrira eraman zuen. Pasatzailea portugaldar bat falta zitzaiola oharturik, jakin zuen nongo baserrian aurkitzen zen. Hala, baserritarrak pasatzailearekin tratua egin zuten. Honek baserritarrei ongi zetorkien “diru pixkat” ordaintzen zieten..

Portugaldarrak gehienetan egun osoa baserrian pasatzen zuten. Baserrikoek eta portugaldarrak elkar ulertzera iristen ziren. Portugalen utzitako familiaren erretratuak begiratzeko denbora pasatzen omen zuten. Baita etxeakoandreaki erakutsi ere. Portugaldar baten alabaren erretratua ikusi eta Maria Regina izena zuela esan zion. Ongi oroitzen da etxeokoandrea honetaz!

Batzuetan portugaldarrak ilunabarrean iristen ziren. Orduan atsedean pihatu eginez, salda beroa ardoarekin edan eta bideari jarraitzen zioten.



*Sara. Bertzaldean, Etxalar.*

Baserrikoek portugaldarrak ekarri zituen pasatzailea zein izan zen, portugaldarrek jasotako tratuaren arabera jakiten zuten. Portugaldarren esanekin, nor izan zen pasatzailea erraz jakiterik omen zegoen.

Andre honek ahalik eta hoberen zaintzen zituela dio. Hala, behin anaia, aita eta senarra Parisen zituen emakume portugaldarra bere hilabeteko haurra zekarrela baserrira iritsi zen. Ama honi Portugaldik Parisera iristeko bi egun behar zirela esana zioten eta jada zortzi pasatuak zituen. Umea egoera penagarrian iritsi zen. Arropak hondatuak, “pikoak”, garaiko eskuz garbitu behar ziren “dodotisak”, deseginak... Umea ur epelean bainatu, ipurdia gorri-gorri omen zuen!, goxatu... Baserriko neska-mutilak koxkorrak zirenez, etxekoandre hark haur txikiendako arropa guztiak emakume hari

eman omen zizkion. “Iguar beste haur bat izanen nuen... baina... tant-pis!!!” pentsatuz .

Hurrengo egunean, haurra “arropa politez” jantzirik, amaren bizkarrean lotu eta Pariserantz abiatu ziren biak.

Baserrietan portugaldarrak edukitzeak arriskua ere bazuen. Hala, 1967. urteko Apirilaren 20an Sud-Ouest egunkarian Baionako “Tribunal de grande instance” delakoak, Manuel G.ri zortzi eguneko kartzela zigorra ezartzen diola idazten da. “Passeur espagnol” batek hiru portugaldar mugamugan dagoen bere baserrian utzi eta Manuelek onartu zuelakotz zigortzen dute.

Etxalarko Santiagorekin bueltatuz, Sara aldera pasatzen zuen portugaldar bakoitzeko kobratzen zuen. Janaria bere kontu. “Ogia eta txorizua aunitzetan. Gero hasi ginen txokoltia ematen. Ardua hasieran, gero ez.”

Bordetan utzirik, herrira joaten zen. Santiagok okindegian zenbat ogi behar zuen aldeztatik esaten zuen. Okinak bazekien (ondorengo lekukotasunean esango da berriro ere), zertarako zen. Pasatzaileak eguna argitu baino lehen ogia jasotzera joaten ziren. Herriko dendatik, Ekitatibatik berriz txorizoa eta txokolatea erosten zuten.

Aldeztatik, portugaldarrek nolako oinetako desegokiak zeramatzen aipatu izan dut. Honekin loturik, behin portugaldar batzuk oinetakoak erabat puskaturik zituztela Etxalarreraino ekarri omen zituen Santiagok. Ekitatibako Kristinak aspaldiko zapatilak, espartzinak ere prezio onean saldu zizkion horrela portugaldarrek bidea kondizio hobean egin zezaten.





*Santiago. "Goxpal"*

Ordainketak zirela eta... badu Santiagok kobratu gabeko bidaiak eginik.

“Oiartzungo batek ere ematen zidan lana” Honek Santiagori pasatzen zizkion portugaldarrak Pariserat, Lyonerat edo Grenobleraino bidali behar ziren: muga zeharkatu, tren billetea erosi , janaria eman... Lana egitez gain Santiagok dirua aurreratu behar zuen. Bada, dirudienez, garai haietako 24.500 pezeta kobratu gabe gelditu zen.

Esperientzi txar hau hortxe zuela, soldaduska egiten ari zenean portuges pasan Legasako batentzat aritu zen. Honek ez omen zion ordaintzen.

Legasakoa Etxalarrera motoz joan zen aldi batean, Santiagok moto eder hura hartu zion “ ebatsi nion. Bueno, ez ! retenitu nion!!!”.

Santiagok Legasakoari motoa itzul ziezaion, zorrak ordaindu behar zituela esan zion. Horretan saiatuz, 1000 pezeta izan ezik beste guztia ordaindu zion. Santiagok motoa bueltatu ere.

Berriro ere, aurrez esandako informazio bat aipatzen du Santiagok. Eltzetzuak portugaldarrak atxilotzea ez omen zuten nahi izaten. Pasatzaileak harrapatu bai.

“Segur naiz eltzetzuak ikusi gaituztela portugeseekin pasatzen eta ez zutela kasorik egin. Ez zitzaieten interesatzen detentzia. Pasatzaileak bai. Vagos y Maleantes bezala fitxatzen zituzten. Hilaute bat edo bida ... kartzelin kontu...”

Esandakoa frogatzeko pasarte hau kontatu zidan :

“Orizki aldean, Olako bordan ginen. Gaua hasiera zen. Norbait eldu zelakoaren soinduak baziren. Bidetik ateri, bazterto eta gorde ginen. Gu portugeseekin Frantzi alderat eta besteak , eltzetzuak, Olako bordatik beiti. Eltzetzuak ziren. Kontrabandistaren bati zaldiak kendu eta Etxalar alderat bazuzin. Ikusi gintuzten, seguru baina ez zen deus pasatu. Seguru naiz, sudurren aintzintik pasatuta ere ez zigutela kasorik eginen.”

Eltzetzuk portugesak harrapatuz gero, lan gehiago izaten zuten. Ezeren truke, lan gehiago egin behar. Administrazio paperak bete, janaria eman... eta beraientzat ez zegoen inolako abantaila ekonomikorik. Kontrabandoarekin, aldiz, bai. Harrapatzen zutenaren hainbesteko bat “prima” modura jasotzen zuten.

Dena den, batzuetan eltzetzuek edo frantses gardak, portugaldarrak harrapatu eta atzera bidaltzen zituzten. Baina hauek bueltatzen ziren. Froga bat pasadizo honetan dugu.

Behin, Santiagoren anaiak Bertiz aldetik portugaldarrak zeraman. Santiago janaria eramanez joan zitzaion eta “sonbreruakin” zetorren portugaldar batez ohartu zen. Talde hura anaiak Mononbordan utzi zuen baina beranduago gardekin arazoak izan zituztela jakin zuen.

Egun batzuen buruan, Santiago berriro janariarekin anaiarengana joan zen eta honek zekarren portugaldararengana hurbilduz, “ harrituta begira. Ez nuen sinesten gertatzen zena. Anaia bere portugesekin ari zen hurbiltzen eta igandeko fotografia ber-bera ari nintzen ikusten! Berriz sonbreruakin zen hura eta anaia ondotik. Igande arratsin guk utzi, frantsesak hartu eta abudo guardak hartu zituzten. Sonbrerukua eta bertze bat. Bertziak ez. Gibelera bidali zituzten baina beraiek bueltato.”

Etxalarko Xantik noizbait “suertatu zen Frantziako aldian gendarmak ateri, lasterka hasi, nahastu inguruan, Etxalarko alderat berriz pasatu eta gero bertze grupuarekin, egun batzuk geroago pasatzia” esana zidan. Hauxe izan zen sonbrerudunaren kaso.



*Xanti brometan Lizarietako inguruan.*

1959. urtean hasi zen Santiago portuges pasan eta 1964ean Ameriketara, bera emigrante joatea erabaki zuen.

Bidairako biletea, mediku frogak..., Ameriketara joateko prest zegoen aurreko astean portuges pasan ari zela, eltetzuek ia harrapatu zuten. Ihesari eman zion. Hurrengo egunean, herrian zegoela, oraingo honetan portugesik gabe berriro ere “eltzetzuak gu konturatu gabe... gainera! Tiro egin zuten. Berriz ere 100 metros lisos lasterka. Bi egun jarraian ihesari emana. Orduan kruz y raya egin nuen. No hay dos sin tres pentsatu ere. Bi

egunetan segido eta Amerikara joan behar!!! Paisaia ez nuen galdu nahi!!!  
Gaur arte.”

Beste lekuko askoren antzera, Santiagok beste herrialdeetan gertatzen den isilpeko emigrazioarekin konparatu zuen portugaldarrena. Ameriketara joan zenez, mexikarrak Estatu Batuetan sartzeko saioak kontatu zizkidan. Dirudienez, Santiagok “mojau” k ezagutu zituen. Haiekin lan egin ere.

“Tijuanatik la misma historia zen. Mojaukin aritua naiz lanian. Erreka pasatu behar dute Tijuanatik Kaliforniara joateko eta...”

Euskal Herrian portugaldarrak mexikarren antzera Bidasoa gurutzatzen ederki busti ziren.!!!

Etxalarren okin lanak egiten zituenak, portugaldar pasan aritu zen.

Honek, soldaduska egiten zegoela Berruetako lagun bat egin zuen. Berruetarrak Etxalarko lagun berria kontrabandoan aritutakoa zela jakinik, portugesak mugaz bestaldera pasatzeko proposamena luzatu zion.

Berruetatik Portugalera portugesen bila joaten zen, linea zuen. Gero, portugaldarrak Berruetatik muga aldera gerturatuz mugalariaren lanak beteko zituenaren postua etxalartar lagunari proposatu zion.

Pasatzaileek, aurrez aipatutako Santiagok esaterako, okindegian portugaldarrei jatera emateko ogiak enkargatzen zituzten. Horregatik ongi daki lekuko honek zenbat eta nor ziren Etxalarko pasatzaileak. Bere esanetan gutxi gora behera, 30 gizon aritzen ziren portugesez pasan. 10 lineak eginez, hau da Portugaleraino joanez eta beste 20 mugalari lanetan, Etxalartik mugaz bestaldera eramanez. Asko iruditu zitzaizkidan. Baina esan dudanez, lekuko hau okina zenez, ongi aski badaki nor ziren. Kontuak

ateratzerakoak isilpean izenak esan eta zenbatu zituen. Gogora etorri zitzaidan Sarako Plaxidok esandakoa “edozein aritzen zen”. Asko zenbatu baitzituen isilpean.

Lekuko hau 20 urterekin hasi zen baina 45 urteko gizonak ere aritzen zirela dio.

“Ez zen besterik izaten. Bestenaz baserriz-baserri segarekin.”

Zenbat portugaldar pasatu ote ziren Etxalartik galdetuz, denbora behar izan zuen kalkulatzeko baina bere kontaktak eginez, eta hau harrigarria da, linea bakoitzak agian 200 portugaldar astean ekartzen zuen, hamar linea izanik, 2000 astero. Hilabetean 8000. Demagun 10 hilabetez aritzen zirela, 80.000. Gutxienez bost urtez aritu ziren..... kontuak 400.000 portugaldar Etxalarko mugatik ezkutuan pasatu zirela pentsa dezakegu. Bai? Ez? Kalkulatzen zaila da baina muga gehiagotik pasatu zirela dakigunez, Etxalarko zenbaki hauek ziurtatuko balira.... Denetara zenbat portugaldar pasa ziren isilpean Euskal Herriko mugatik? Victor Pereira ikerlariaren esanez, 800 bat mila. Eta aurrez egindako kontuak kontuan harturik posible dela garbi dago.

Lekuko hau Santiagok esandakoekin bat dator :

- “Asko etortzen ziren... 100daka portugaldar.” “Igantziko benta aldi jaleo kozkorra izaten zen. Ilunabarretan joan eta jendia bide bazterretik basurdi bezala ateitzen ziren” gehitu zuen.
- “ Mugairen deskargatuz, Bertiz oinez zeharkatzen zuten Etxalarrera iritxi baino lehen... “
- “Eltzetzuak ez ziren portugesen gibeletik ibiltzen”
- “Kristonak ikusten zituzten. Denbor txarrakin eta... emakumik takoiko zapatekin etortzen ziren. Igual ez zuten bertzerik.”

Gizon honek ez zuen denbora handia izaten portuges pasan aritzeko. Hau da, bere lana, ofiziala eta legala, gauez egiten zuenez, gauari denbora gutxi kentzen ahal zion portugesak pasatzeko. Horregatik mugalaria mugatua dugu. Muga justu pasatzen zuen horietakoa.

Portugaldarrak Etxalarko Ainegiraino bi kotxez ekartzen zizkiotela eta hemendik Giltzurdinko Harri alderat joanez, Lizaietatik, bi-hiru kilometrotara errekaraino sartzen den errebuelta handi bateraino eramaten zituela dio. Saratarren esku gelditzen ziren. Hauek gero, herria pasa eta berriro kamioietan edo kotxeetan edo autobusetan sarturik, aurrerantz eramaten zituzten. Honetaz arituak gara aurretik.

Portugaldarrak gaueko 9tan edo 10etan ekartzen bazizkioten, ezin zuen bide guztia egin, bere lanera joan behar baitzuen. Bere lanean, ofizialean, gaueko 12etarako iritsi behar zuen. Orduan, Ainegin portugaldarrak hartu eta Apeztiko arropordan uzten zituen hurrengo eguna arte, berak lan ofiziala bukatu arte.

Gosez etortzen omen ziren. Lekukoaren amak tortilla bokadiloak askotan egin eta berak gero eramaten zien.

Esan dugunez, gaueko 12etarako okindegian egon behar zuen. Behin presaka eta korrika Antxurneko bordatik behera herrirantz zihoala, Alto la Guardia Civil! aditu zuen baina ezin geldituz edo auskalo, bi eltzetzuen artetik korrika jarraituz pasa zen. Hirurak ikaratu omen ziren!

Apeztiko bordan portugaldarren matxinada antzekoa gertatu zitzaiola esan zidan.

Portugaldarren emigrazio ezkutua garaia zen, baita ETArene ere. 1964 urtea zen, ETArene inguruan, zerbait gertatua zela dio lekukoak. Ondorioz mugak erabat zainduak zeuden. Ezin pasa. Portugaldarrak Apeztiko bordan egun bat pasa ordeztu, hiru egon ziren. Lehenengo eguna ongi igaro omen zen, bigarren egunean aldiz zer gertatzen zen galdetuta, ez zuten mugalariak emandako erantzuna sinetsi. Pasatzaileak engainatzen ari zituela uste zuten. Urduritzen hasi ziren. Egun osoa borda baten barruan zeudenez, eztabaidan aritzeko denbora bazuten.

Hirugarren egunean, mugalaria janariarekin bordara hurbildu zenean, portugaldarrak inguratu, labana atera eta pasatzailea mehatxatu zuten. Nola-hala, handik ihes egin zuen.

Muga inguruak nola zeuden begiratu... oraindik ezin pasatu. Ez zegoen mugaz bestaldera joaterik. Ere osoa eltzetzuz estalia zegoen.

Apeztiko bordara joanez, egoeraren berri eman zuen. Portugaldarrek ez zioten sinesten eta eraman behar zituela esan. Bale, bada. Abiatu ziren eta mugara iritsi baino lehen Guardia Civilak aurrez-aurre topatu zituzten. Alde batera eta bestera guztiz izuturik korrikari eman zioten. Elkarrengandik sakabanatu ziren, batzuk muga iada pasa zutela jakin gabe Sara aldera, besteak Etxalar aldera...

Pasatzaileak denak berriro elkarganatzeko zailtasunak izan zituen. Pasatzaileak egia esaten ziela frogatuz gero bai, mugalariak esandako momentuan eta portugaldarrak txintik esan gabe, pasa ziren.

Behin, Mugairen portugesak kamioitik jaisten ari zirela, batek hanka bihurritu omen zuen. Ezin ibili. Mugalariak Iruñean soldaduska egiten ari zela Etxalarrera motoz etortzeko asmoa zuen. Bide batez portugaldarra



motoan eramango zuela proposatuz, mugara gerturatu zuen. Motoa gorde eta maingu zen portugaldarra pasatzaile honek bizkarrez mugaz bestaldera Lizaieta beherako erreka hartara eraman zuen. Saratarrak Citroën 2 caballos batean sartuz aurrera joan ziren.

Haurdun zegoen neska gazte batek Etxalarko etxe batean egunak pasatu zituela ere esan zidan. Nekatuegi zegoenez, ezin izan zen bere senarrarekin joan. Kotxez muga pasatzeko inolako bigilantziarik ez zegoela ziurtatu behar zen. Eta hau gertatu arte, neska hura Etxalarren egon zen. Zein familiatan egon zen esaterakoan ongi zaindua izan zela ziur nago.

Mugalari honek, beste lekukoen antzera, portugaldar bakoitzeko kobratzen zuela dio. Urteak joan ahala gutxiago ordaintzen zioten:

“Nik hartu nuenean lana, lehenbiziko biajetan 63-65ian, 40 duro, 200 pesetas. Gero hondar aldera, 65-67an 125 pezetara jeitxi zen. Eta bertze batzuk 100 pezetagatik ere erauten zuten. Nik utzi nuen. Azkenean nik egiten nuen bidia, 5 durotan egiten zutenak baziren.” Bere esanetan bada, azken aldera irabaziak zenbatekoak ziren kontuan harturik, ez zuen merezi hainbesteko arriskurik eta bere lanera joateko hainbesteko presarik.

Portugaldarrak, zenbait mugalarien antzera, erdaraz askorik ez zekiten, baina Frantziara iristeko zenbat falta zen beti galdetzen omen zuten.

Ez jakin arren, amets gaiztoak atzean utziak zituzten.

Helburua lortzeko gutxi falta zitzairen.



*Saratik.*

Azkeneko lekukoak egindako kalkuluen arabera, 400.000 portugaldar Etxalartik pasatuko ote ziren susmoa dugu. Anitz dira. Gehiegi agian. Agian, kalkuluak goregi bota zituen. Agian ez.

Dena den, anitz pasatu zirela garbi dago. Hainbesteren artean ezbeharrak suertatu zirela esan dugu. Sufrimendu galantak irentsi zituztela ere. Baina gehienak, gehiengoak amestutako helburua lortu zuten. Batzuk zoritxarrez, ez.

Etxalarko erretore den Peio Apezetxearekin solastatuz, behin Ursua aldeko baserri batera zihoala, bidean 35-40 portugaldarrek osatzen zuten ilara ikusi omen zuen. Pasatzailea ere. Mugaruntz zihoazen. Peio erabat inpresionaturik gelditu omen zen. Oroitu Santagok esaten zuena:

“Mendi hegalaria eta hego argira gauez, eskandalo izugarria egiten da... erreldua 40 pertsona... aunitz da.”

Apezetxeak ikusi zuen taldean, emakumeak bazeudela dio.

Ezbeharren artean zerak :

Apaizak Etxalar-Zugarramurdi alderat mugatik hurbil portugaldar bat zuhaitz batetik zintzilik aurkitu zutela esaterakoan, bere buruaz beste eginik suposatzen dut nik, inpresionaturik oraingoan ni gelditu nintzen.

Bere esanetan, portugaldarra ongi jantzita zen. Etxalarren meza atera zioten. Ongi oroitzen da Peio baina elizako defuntu liburua begiratuz, ez da bertan agertzen.

Bagoleko tuneleko hasieran portugés bat ere hilik aurkitu zuten. Askotan aditua izan dut. Nola, zergatik...gizon hau hil zeneko bertsio dezente entzun dut.

Etxalarko erregistroan azaltzen den Acta de defunción delakoan, gizon hura 1940ko Apirilaren 5ean jaiotako Armando Dos Santos Olaio zen. Portugaleko Santa Francisca de Pombal herrikoa. Nekazaria eta ezkongabea zen. 1964. urteko Maiatzean hil zenez, 24 urte bete berri zituen. Gazteegia bizia amaitzeko.

Agirian “falleció en Echalar, proximidad del caserío Bagolea, el día a primeros de Mayo aproximadamente... a consecuencia de fractura de cráneo por caída al canal de Saltos del Bidasoa según resulta del informe de la autopsia “ irakur daiteke.

Herriko bertsio bat eraila izan zela da. Oso gogorra iruditzen zait baina auskalo. Lekuko batek horrela esan zidan :

“kanalian arrauto zuten hila, ez dakit... itua. Seguru aski ez zen urakin itua izanen zergatik eskapatzen ahal zen. Bertze gisarat zerbaitere pasatu zitzaion, edo zerbait egin zioten edo... nik zerbait badakit baino ezin dut erran dakitena. Hura kanalin, Bertizko aldian agertu zen.”

Baztango Fernandorekin solasturik beste ikuspegi bat azaldu zidan. Bere esanetan, gorpua azaldu zen tokia portuges pasua zen. Bertizkotik behera etorritz, handik pasatzen ziren. Eta istripua gertatzea ez zaio arraro egiten. Ardiak ere kanalera erortzen omen dira eta urak aurrera eramanez, tuneleko bukaeran azaldu. Urez betetako kanalaren bukaeran, ireki eta ixten den konporta bat dago. Armando portugaldarraren gorpua hemen azaldu zen. Fernandok eremuak deskribatzen ditu :

“Ez da harritzekoa. Han azpitik goiti sekulako malda bada. Baztango aldetik, kanal mehar bat dago. Estu-estua. Azpiko aldera berriz, 30 metrotako erorka.”

Beraz, Fernandok gazte hura istripuz ur kanalera eroria izana ez du baztertzen, alderantziz, lekua arriskutsua denez, hala gertatzearen posibilitate handiak daudela dio. “Gertatzen ahal zen. Aise. Ez da estraño.”

Hain gazte zen Armando portugaldarra bizi modu hobea lortzearren ametsean zihoala , gure Herrian hila izanak penatzen nau. Hala izan zenez, gizon hari gertatu zitzaiona Fernandoren bertsioa izan zedila nahiago nuke.

Baztanek beste portugaldar baten heriotzaz esan zidan. Bere aita artzaingoan ari zela, Ezpeleta eta Ainhoako mugan, bidegurutze bateko zelaietan, portugaldar bat hila aurkitu zuen.

Aitak jendarmeei parte eman, hauek gizona hilda zegoen tokira joan, arropak miatu eta kartera aurkitu zuten. Egunak omen zeramatzan hilik.

Fernandoren aita “beltzak” pasatzen ibili zen. Otilia ere. Azken honek linea osoa egiten jarraitu zuen, Fernandoren aitak muga pasatzen.

“Otsondoko karreterara kotxez ekartzen zituzten. Ezpeleta eta Ainhoako mugan nido bat eta arratsa han pasatzen zuten. Otsondotik behera, ia Urdazubiraino kotxez. Gero mendi zeramatzen ziren. Ez zuten nidoetan sartu nahi izaten. Nahiago zuten kanpoko aldian egon. Txokoltia, zardin latak, ogia, ura ... izaten zuten. Ez omen zuten behin ere eskua ematen. Erortzen baziren eta aitak lagundu nahian eskua eskaini, beraiek eskumuturra. Zergatik ote zen ?“

Fernandok “dio beltzek” mendiz ibiltzeko jantziak eta oinetakoak desegokiak zituztela. Portugaldarren antzera hauek ere.

“Ez ziren prestatuak. Galtzak ipurdikua beiti zutela, arraroak, ekartzen zuten. Maleta koskor batzuekin etortzen ziren. Zapata haiekin mendia ezin zela pasatu erraten zuen aitak.”

Portugaldarren antzera. Gure mugetan zehar isilpeko emigrazioak jarraitu zuen.

.....

**Etziren gure arrazakoak mendian galdu direnak,  
Jainko Jaunaren bixtan ordea anaiak girade denak;  
Kolorez beltzak izana gatik, heiek ere ama banak,  
bertzek bezala sofriturikan, mundu huntarat emanak.**

**Afrikatikan hunat zatozin, eginik bide luzea;  
Ezin jasana zuketan nunbait herriko ezin bertzea;  
beren bizia hobetu nahiz, gosez ta hotzez hiltzea;  
bas'ihiziek gorenaz dute holako heriotzea!**

.....

**Xalbador.**

### ***BERATIK SARARAT.***

Portugaldarrak Etxalartik mugaz bestaldera pasatzen aritu ziren antzera,  
Beratik egin zen ere.

Mugalari bat, Balkezeneko Ramon dugu. 73 urte betetako gizona.  
26 urterekin lan hauetan hasi zen. 1965. urtea zen. Hiru urtez aritu eta lan  
hura arriskutsuegia bihurtu zela pentsatuz, mugalari izateari utzi zion.

1964 urtean, pasatzen zuen portugaldar bakoitzeko "hirutono" duro (300  
pezeta. Euro bat eta laurogei zentimo) ordaintzen zioten.

Gero, 350 pezetara igo omen zen.

Duroak, pezetak, euroak, frankoak... beste egoerekin ez badugu konparatzen ezin da jakin irabazten zena gutxi edo asko zen. Diru kontuak parekatzeko Ramonen esanetan, portugaldar bat mugaz bestalde pasatzeagatik 350 pezeta kobratzen zelarik, Berako Savera lantegian, hilabetean 5.000 pezeta ordaintzen zen. Fundiciones de Beran berriz, 3.000. Hau da, 10 portugaldar pasaz, Fundicionesen hilabete batean irabazten zena baino gehiago jasotzen zuten mugalariak. Eta 10 portugaldar edozein gauetan pasatzea arrunta zen.



*Ibardindik*

Ramon, portugaldar pasan, asteen 2-3 eta batzuetan 4 gauetan aritzen zen. Nagusi bat baino gehiago aipatzen ditu. Denak saratarrak. Saratarren esku ziren Ramon aritzen zen lineak.

Hauek Berako Euskalduna ostatura deituz, bertako nagusiari “tengo 25 caballos” erran eta 25 portugaldar pasa behar zirela bazekiten.

Pasatu beharreko “caballos”en kopurua desberdina izaten zen : 10-8-20... Segun .

Pasa izan duen talderik handiena 102koa izan zen. Eta aurrez idatzi nuena, berriro ere. Eratsungo pasatzaile hark, 102ko taldea aipatu zuen. Esan nuena berreskuratuz, Ramon eta Eratsungoa adinak dira. Eratsun-Etxalar bidea egiten zenez, bi lekuko hauek talde bera gidatua izana likena da.

Aipatutako 102ko taldea Beratik Sarara hiru mugalari artean eraman zuten: Ramon, anaia eta koinatua. Familia kontua : “ Bat aintzinian, bertzia erdian eta bertzia gibelean.”

Eratsunez gain, saratar nagusiak portugaldarrak askotan Oiartzundik ekartzen zituztela dio Ramonek. Hemendik Tiburon zeritzan kotxeetan edo kamioiez, Bera aldera.

Beran, kotxetatik nahiko nahasiak, norabidea galdurik, oinez ibiltzeko nekez ateratzen omen ziren. Berdin esan zidan Leok. Ordu anitz pasatzen zuten barrualdean, maleteroan askotan eta gero, oinez hasi behar zirenean... zaila egiten zitzaien.

Ramon eta bertze mugalariak, portugaldarrak Lesakako zubitik Uzkaitzera doan bide inguruan hartzen zituzten. Baita, Berako harrobi aldean ere.

Toki batean edo bestean taldea harturik, Sarako eremuak hasten ziren inguruetaraino eramaten zituzten. Gero saratarren esku. “Eskutik eskura izaten zen”. Etxalarko Santiagok beste lekukoen antzera, berdin esaten zuen.



Ohiz kanpoko gertaerak kontatzerakoan, Irungo Pedrok bi alditan portugaldarraren bat karraxika eta erabat deskontrolatu zitzaizola gogoratuz, berdintsu dio Ramonek.

“Behin 20 edo 25 pasatzen ari ginela, bat erotu zen. Oihuka hasi eta eskauto zen. Gero busti-bustia Balkezenerat etorri zen. Gau bat bertan kontu genuen. Anttoniori non gordetzen zuen dirua eta paperak erakutsi zion: galtza barreneko aldetik boltsiko gisako bat egina zioten eta hantxe. Anttonioren jipoa eman genion. Azkenean hainbeste eman zion bere buruari, ez zela Frantziara joan. Bueltatu zen.”

Eta elkarrizketa aurrera joan ahala, ezbeharrak azaldu ziren.

Ramonek, beste lekukoek esandakoa errepikatu zidan :

“Kantidadea deseginak etortzen ziren. Zapata txar batzukin! Gaiztuak! Hurbiletik eldu zirenak ongi baina bertze batzuk, bide luzea egina zutenak, ezin segito ibiltzen ziren.”

Berriro ere atsekabetzen nauten ezbehar latzak entzun nituen.

Ramonen hitzetan :

“Behin portuges bat diruarekin etorri zen bestaldera pasatzeko. Beste portuges batek pasatuko zuela erran zion, bai eta pasatu behar zuen hari ebasteko hil zuen ! hiltzailea Frantzi aldian lanean ari zen baina harrautu zuten. Hilik zegon hura Isidorok harrautu zuen.”

Beste portugaldar bat 8. mugarrin hilik aurkitu zuela esan zidan. Eta bai, Berako erregistroan, Portugaleko Leirian, 1920. urteko Uztailaren 4ean jaio zen Joaquin Antunes, Berako “paraje muga nº 8, causa colapso cardiaco

circulatorio-anemia ,hemorragia y frio” ren ondorioz hil zelaren berri beltza aurkitu nuen. 44 urteko Joaquin ezkontuta zegoen. 1965eko Urtarrilaren ogehian gertaturikoak ditugu. Urte honetan Ramon portuges pasan ari zenez, ongi asko oroitzen da.



*Larrun gibealeko aldean.*

Urte berean, 1965ean, aurretik aipatutako Carlos Jimenez Lesakako irakaslea, Berara Lesakako futbol taldearekin partidua jokatzera joan zen. Alzateko plazan bere aitagarreba medikuarekin ikusi zuen. Aitaerrua Berako Bake Epailea zen. Gerturatu zen Carlos gertatzen zena jakiteko eta portugaldar bat hilik Berako Fundicionesetan aurkitu zutela esan zion. “Hay un portuges que le han matado.”

Carlosen esanetan badirudi gizon hau erail zutela galtzerdietan sarturik zeramatzan dirua kentzeko. “En Bera puedo decir que habia pasadores que les robaban, les asustaban y otros los mataban.” “A este le mataron.”

Badirudi ere, jendeak , herriko jendeak gertatutakoaz zekiela. Carlosen esanetan “Habia una especie de conocimiento de lo que habia pasado allí.”

Hitz hauekin herriko jendeak egia jakinik eta egia gogorregia, zitalegia izanik, inork ez zuela ezer argitu nahi izan pentsa daiteke.

Berako erregistroan miaturik 1965. urteko Otsailaren 20an, “parrilla del canal de Fundiciones de Vera” n burua xehaturik zuela (“fractura de craneo”), Antonio Augusto Flor hilik aurkitu zuten. 1924. urteko Martxoaren 28an Portugaleko Vila Nova de Foz-en jaioa zen .

“Estaba casado con Julia Guerra de cuyo matrimonio existen dos hijas llamadas Lourdes de Conçação y Maria da Graça.”

Aurrekoa gertatu baino bi urte lehenago, 1963. urteko Maiatzaren 25ean, Frantziako Le Monde egunkarian salaketa gogorra egin zen:

“ Mais comme il n’y a pas de trafic sans rivalité, donc sans lutte, et comme le passage des Portugais clandestins n’est qu’une des multiples formes de la contrebande existant entre l’Espagne et la France, l’affaire peut tourner plus mal encore. Récemment trois cadavres ont été découverts en territoire Espagnol, près de la frontière : deux étaient Portugais, dont l’un , trouvé **près de Vera** , avait les yeux arrachés et était atrocement mutilé; le troisième, un Espagnol, gisait près d’Oarzun, la gorge tranchée. Clandestins ou passeurs? Peut-être simples contrebandiers? Le silence absolue que l’on sait garder dans la région n’autorise que des soupçons.”

Beran aurkitutako hilaren berri zerbait jakiteko asmotan hasi nintzen eta 1963. urteko Apirilaren 19an portugaldar baten hil agiria Berako Bake Epaitegian aukitu nuen. Maiatzean Le Monden berria atera zenez eta salatzen diren gertaerak “récement” gertatu zirela diotenez, nire ustez

Beran hilik aurkitu zuten portugaldarra eta egunkarian dioena pertsona berdina izan daiteke.

Agirian azaltzen denez, Jose de Magedo Freitas, Adao-Guimeraesen 1930. urteko Azaroaren 13an sortutako gizona, “estrangulacion a mano” eraginez hil zuten. “Estrangulación a mano” erailketa da.

Gizon honen deskribapena eransten dute. Bestalde, pasatzaileek portugaldarren deskribapena egin izan digute.

Hitzez hitz Joserren deskribapena idaztea interesantea iruditzen zait :

“ vestia zamarra o pelliza marron, marca casa Pexoto Filhe, tlf. 17. Penafiel, chaqueta negra, pantalones grises, camisa una blanca marca “Tricot” y otra de cuadros, corbata colore verda con pintas rojas y azules, botas cerradas, con gomas elasticas a la entrada color amarillas, jersey verde oscuro.

Llevava rosario, y adherida una pequeña medalla de la Virgen de Lourdes, una pequeñita imagen de la misma en un tubito de plástico.

Cicatriz región maxilar inferior derecha, le faltan tres incisivos superiores dos molares del lado izquierdo y uno del derecho.”

Garai haietan Beran erretore lanak betetzen zituen apezarekin solastatuz, berak bost portuges Berako kanposantuan lurperatu izanaz oroitzen zela esan zidan.

“Nik bost meza eman izan ditut”.

Eta bai, Berako Bake epaitegian bertze bi portugaldarren heriotzaren berri badago. Biak 1966. urtean gertaturikoak :

- Fernando Peixeiro. Valverden 39 urte lehenago jaioa. Martxoaren 6an hildakoa. Gorpua Cia auzoan, “canal molino Illecuenta” parajearen aurkitu zuten. “Colapso cardiocirculatorio”. Ezkonduta zegoen.
- Ilidio Tavares de Souza. 18 urte berriki beteak zituen. 1948ko Urriaren 28an Valverde-Almeidan jaio zen. Eta hil 1966ko Azaroak 24ean Iruña-Irun doan 79.800 kilometroan. “Hallado muerto al borde de la carretera.”

“heridas producidas por arma de fuego” izan zela 18 urteko mutil gazte baten heriotzaren zergatia irakurtzerakoan.... Nahigabetzen naiz.

Adina kontuan harturik, 18 urte, agian soldaduska Angolako gudan ez egiteagatik Frantziara ihesik joateko asmoa zuen. Gazte honek, Nortasun agiria bazuen “ n° 4061354, expedido en Coimbra (Portugal con fecha 18 de Abril de 1966).

Behin eta berriro portugaldar asko, milaka, pasatu zirela esan dugu. Berako apezak “nik parrokia ondotik eta etxe ondotik pasatzen ikusten nitun. Isil-isilik, errelduan joaten ziren. Egunez ere.” zioen.

Milaka hauen artean zoritxarrak eta salatu beharreko egoerak gertatu ziren frogak baditugu.

Baina ongi egindakoak ezin ahaztu ere. Herriko jendeen artean bazeuden portugaldarrei laguntza eskaini zietenak. Berako apezaren esanetan:

“Bat Bidasoa inguruan arroparik gabe harrautu zuten. Bere taldetik nahastu eta Bidasoa pasa behar zuen. Arropak kendu eta zaku batian sartu zituen ez bustitzeko. Total, urak haundituak ziren, neguko hotz egun hoietako bat zen, eta pausua gaizki eman eta han joaki zaizkio arropak,

bera deus gabe geldituz! Zaku pare bat harrautu zitun eta bat gainetik eta bertzia azpitik paratu. Berako gizon batek harrautu zuen horrela, erdi ormatu. Etxerat eramin, arropa zenbait eman eta su onduan jartzeko erran. Sobera onduan ere ez, aditua bait zuen hurbilegi paratzia txarra zela. Zerbait jan eta berpiztu zen gizona.”

Portugaldarrak galdurik, nahasirik aurkitu eta bertako biztanleria laguntzeko prest egoten zela toki desberdinetako jende dezentek esan izan dit. Honetaz askotan idatzi izan dut.

Azken honekin ez dut inolaz ere aurretik salatutako maltzurkeriak zuritu nahi baina ... bi aldeak kontutan hartu behar direla uste dut.

## **BAZTAN**

Euskaldunek zituzten lineak Portugal-Espainia arteko mugatik portugaldarrak ekarriz, hainbat bidetan zehar joanez amestutako helburura , Frantziara iristea lortzen zuten.

Askotan Ultzaman uzten zituzten , gero Etxebertzeko Borda aldetik, Sarara oinez eramateko.

Beste bide bat, Elizondo-Dantxaria-Izpegi edo Errazu bideak jorratuz izaten zen .

Eta beste bat, Ziga-Arraioz-Etxalar-Senpere.

Portugaldarrak Ultzaman utzirik, beste bide bat Aniz aldetik, Egozkuen barrena Mugairera iritsiz Bertiz ingurutik Sararaino joatea zen. Oso bide luzea eta gogorra azken hau.

Beste modu bat, portugaldar taldea Arraioz aldera hurbildu eta gero Aldudera eramatea izaten zen.

Aldudera joanez, “ez zen gauza onik izaten” dio lekuko batek. Honek ez du bide hau egin dutenenaz oso iritsi positiborik. “Portugesak Aldudetik pasatzeko eramainleak ez ziren jende onak. Hor bazen bat, Attabala tasista. Atta-semiak ziren. hek onak ziren baina bazterkuak, ez. “ Auskalo.

Horrelako bidea egin zuen portugaldar bat, Antonio izan zen. Foios herrikoa . 16 urte zituela, 1956. urtean, Coriatik Iruñera kotxez eraman zuten. Iruña aldean, baserri batean egon zirela pentsatzen dut:

“estuvimos en una huerta que había una casita. Estaba un hombre bastante viejo y nos metió en la casita. Llegamos de madrugada. Cuando fue de dia, nos fue a buscar para comer y beber y han venido unos señores bien preparados.”

“Señores bien preparados” haiek, pasatzaileak ziren. Kotxez karretera bazter bateraino eraman zituzten eta han beste pasatzaile baten ardurapean geratu ziren.

Antoniorentzat gizon haiek profesionalak ziren, “bien preparados”. Eta hala izaten ziren. Ere muak ongi ezagutzen zituzten eta mendiz oinez ibiltzen oso ohituta zeuden gau lanetako profesionalak .

Azken pasatzaile honekin Antonio eta kideak mendiz ordu batez oinez ibili ziren. Gero arratsaldeko 5ak-6ak inguru zirenean beste bi gizon bata aurrean bestea atzean jarririk, bideari oinez jarraitu zioten. 12 orduz mendiz-mendi ibili zirela dio Antoniok:

“Desde las 6 de la tarde hasta las 6 de la mañana, siempre andando. Pero nos han puesto en territorio francés. En una casa de campo. Había un matrimonio, había más gente. Había vacas y caballos. No nos dejaban salir. Hasta que vino la orden que venían a buscarnos y el señor del caserío nos llevó hasta el primer pueblo, Aldudes, Urepel y allí nos ha montado en cohe y fuimos a Brive.”

12 orduz ibiltzen pasa ondoren, Antonio portugaldarra ez da kexatzen. Alde batetik asko ibili zirela baina “nos han puesto en territorio francés” dio eta bestetik “pero para nosotros no fue difícil pero hubo quienes han experimentado 2 y 3 veces y los cogían y hasta que pasaban” esan zidan. Hau da, portugaldarrentzat, helburu nagusia eta bakarra Frantziara iristea zen. Helburua lortzeko bitartekoak goxo balira hobe baina hala gertatzen ez bazen... segi aurrera.

Baztango beste herrien antzera Berroetan pasatzaileak baziren. Bik portugaldarrak pasatzeko haien aurrean bere egiazko izenak ez zituztela esango adostu zuten. Badaezpada ere. Portugaldarrek beraien benetako izenak entzun ondoren Guardia Zibilek atxilotzen bazituzten, pasatzaileen izenak zein ziren jakin zezaketen eta salatu. Beraz, izenaz aldatzea zen hoberena.



Lan honetan aritzeko Karlos eta Patxiku izanen zirela erabaki zuten. Eta horrela deituko ditut.



*Berroeta*

Berroetako Karlos, portugaldarrak mugaz bestaldera eramaten behin aritu zen. Esperientzia bakarra du. Bakarra eta oraindik kobratu gabea.

“Biaje handia zen. Eta ze desgrazie, guaindikan kobratzekua daukagu. Egin gintun pertsonako 1.000 pezeta, 1958ko urtian.”

12 gizon eta 3 emakume ziren pasatu beharrekoak. 15.000 pezeta bi mugalarien artean banatzeko. Baina azkeneko, ez zatiketa ez ezer. Dirurik ez.

Karlosen bidai bakarra honela gertatu zen:

Portugaldarrak ekartzen zituen “nagusiak” Berroetako ostatuko Zesariokin solas egitea omen zuen. Ultzamakoa zen nagusi hark, mendiko lanak egiten zituenez kamioi bat zuen. Hartan, aitzinean zurak jartzen zituela, portugaldarrak ekartzen zituen.

Taldea mugaz bestaldera pasatzeko, bi mutiko behar zituen. Eta Zesariori ea norbait ezagutzen zuen galdetu. Honek Karlos eta Patxikuri lana eskainiz baiezkoa jaso zuen.

“Nagusiak” portugaldarrei ogitarteko bana emana zien. Karlos eta Patxikuk beraiek prestatutakoa zeramaten.

Portugaldarrekin batera Ostegun goiz batean atera ziren eta Ostiral gauean bestaldeko Esnasoz herrian utzi zituzten. Bi eguneko bidea. Oinez guztia.

Elkarrekin jan , elkarrekin “peña zoko batian lo egin”.

Bidaia Ultzamako Iraizoztik hasi, Saioako Okolo barrena segi eta Esnasozen bukatu zen. Oinez, oinez eta oinez.

“Bai, handie, handie biajia”

Hiru zatitan egitea hobe izango litzatekeela dio baina nonbait “nagusiak” beste pasatzailerik ez zuenez, Karlos eta Patxikuk egunez ere gutxi geldituz, osoa egin zuten.

Bidaiaren amaiera ez zen ona izan ez pasatzaileentzat, kobratu gabe gelditu bai ziren, ez eta portugaldarrentzat. Nonbait, portugaldarrak Esnasozen utzi eta beranduago, jendarmeak harrapatu eta atzera bidaliak izan zirela jakin zuten.

Karlos eta Patxikuk portugaldarrak Esnasozera kotxez eraman ondoren, iparraldeko gidariak etortzeko ziren. Jendarmak kotxeak baino lehen iritsi eta portugaldarrak hantxe harrapatu zituzten.

“Eta horregatik gelditu ginen gu kobratu gabe, edo...” esan zidan Karlosek.

“Edo” esanez, ez kobratzearen esplikazioa aurkitu nahian dabil Karlos.

Pasatzaileek bere lana egina zuten baina, helburua lortu ez zenez, agian portugaldarrek ez zuten diru guztia ordaindu... Auskalo.

Dena den, Karlos eta Patxikuk bere lana bete zuten. Hala ere, ez zuten dirurik eskuratu.

Karlosek gertatu zenaren susmo bat badu. Bere ustez, nagusiak beste norbaitekin “kontu afera” bazuen eta salatua izan zen. “Kontrarioak salatu”.

Karlosek ez zuen bidaia gehiagorik egin baina beste pasatzaile batzuk Ultzamatik Almandozera ekartzen zituztela ziurtatzen dit. Almandoztarrak Iruritaraino, gero Iruritakoek Gartzainera edo Arraiozera eta hemengoak mugaz bestalderainoko bidea egiten zutela dio.

Beste batzuk Aniz eta Ziga arteko bidetik Arraioz aldera joaten ziren.

Irakur daitekeenez, bide asko zeuden Euskal iparralderaino iristeko. Lehendik kontrabandoarekin, paketeak garraiatzen erabilitako bideak ziren.

Bide hauek askotan, gehienetan gauez egiten zituzten. Egunez, bordetan gordeta egoten ziren. Karlosen andreak, behin Gloria izeneko neskatxa bat familiarena zen borda aldera joan eta hurbiltzerakoan ate barrualdetik “beltx-beltxa” zen norbaitek begiratzen zuela oharturik, garrasi bizian hasi omen zen. Portugaldarrak bordatik atera eta isiltzeko keinua egiten hasi zitzaizkion. Bai Gloria baita portugaldarrak izaturik!

Bordak irekiak egoten ziren. Nagusiei portugaldarrak bertan egoteko ez zitzaien baimenik eskatzen. Animaliak egoteko ere ez. Betidanik horrela izan da. Animaliak gordetzen ziren antzera, portugaldarrak izkutuan edukitzen ziren.

Borda hauetako bat Aniz aurrera joan eta zoko batean dagoena zen. Hara kotxe bat joanez, portugaldarrez kargatu eta joaten ziren. Kotxez joan ez gero hobe. Pasatzaileek beti ere eltzetzuak kontrolatuak izan behar zituzten. Haiek ziren etsairik handienak eta.

Guardia Zibilak bazkaltzera joanak zirenean edo hauek txanda aldatzerakoan, bordatik atera eta kotxez-oinez joateko aukera aprobetxatzen zuten.

Portugaldarrak pasatzeko ez ziren Guardia Zibilak erosten. Beste kontrabando motak pasatzeko bai. Askok hala esan didate . Baita Karlosek ere:

“Guardia Zibilak kontrabandoakin erosten ziren baina portugeseekin ez. Ez dut aditu erosten zirela. Paketekin, behor eta hoiekin bai, baina ez dut aditu behin ere portugeseekin. Ez.”

Eta beste lekukoekin gertatu zitzaidan antzera, ezbeharren kronika entzun nuen oraingoan ere. Hala, Karlos eta Patxikuk egin zuten aipatutako bidaian Saioako lepoan zeudela, lagunak Karlosi esan omen zion:

“Eh! Hementxe emakume bat hile harrapatu zuten. Almandozko gizon batzuk hortxe hile harrapatu zuten. Bai, Sagardiko lepoan. Almandoza ekarri zuten, Almandozko kanposantura.”

Herri honetan apeza izandakoarekin portugaldarren izkutupeko emigrazioaz solastatu nintzen baina gertaeraz ez zidan ezer esan. Beste hainbat gauzetan aritu ginen. Esaterako, Ultzama-Almandoz-Irurita bideak eginez, gero bestaldera pasatzen zituztela egiaztatu zidan. Baita, portugaldar asko, “talde haundiak” Bertiz ingurutik bestaldera eramane zituztela.

Zenbait portugaldar abandonatu zituztela ere bai. Baina apaizak pasatzaileek hau egiteko, nolabaiteko esplikazioa eskuratu zidan:

“Denak (portugaldarrak) ezin ziren ibili. Batzuk bazuten kapazidadea baina bestek ez eta galdu eta egiten ziren. Utzi ere bai. Horkonpon! Eta tira. Situazio haietan, tentsio haietan eta... pixkat konprenitzen duzu. Ongi egin ez baina... 50 (portugaldar) eta 2k ezin eta... situazio hoietan, jakin bigilatua, kontrolatua zeudela (pasatzailea) eta...!”

Mugalariendako enpatia azaltzen zuen. “Ongi egin ez” dio baina zergatik ez den ongi egin ulertzen du.

Apezak pasatzaile ezagun haiei eskatzen ziena, portugaldarrak ongi tratatuak izatea zen. Gizakiak bere parekoei ongi egin ez gero, dirua ordainduz portugaldarrak mugaz gain eramatea ontzat jotzen du.

“Ezagutzen nitun hortan aritzen ziren batzuk eta esaten nien . gutxienez ongi tratatu, pertsonak dira, jatera eman...”

“Pertsona hoiek handik hartu eta behar den bezala eraman... ba yasta, ez?”

“Batzuk haien (portugaldarren) beharretaz aprobetxatzen zirela esten zen. Arrixkua ere handia zen (pasatzailearena). Harrapatu ez gero kartzela, gutxien 6 ilabete. Eta langile batentzat 6 ilabete galtzea... ez zena egin behar, hemen Frantzian zaude eta gezurra erran. Engainatzea zen gaizki.”

Espetxeratutako langile (pasatzaile) hauetako bat Legasako Migel izan zela gogoratzen dizuet. Pankorbon harrapatu zuten. Kartzelan zegoela apez euskalduna joan zitzaion . Almandozeko erretora?

Eliza kristau erakundea den neurrian, milaka portugaldar isilpean pasatzen zela eta hainbat ezbehar latz gertatzen zela jakinearen gainean izanik, zerbeit egin ote zuen galdetu nion eta:

“Ez zen komentatu. Gure artean bai. Baina inork ez zuen parte hartu deusetan. Bat, bi , hiru... hilik agertu ziren eta hoiek agertu ziranen, ordun bai, mintzatu ginen. Batez ere tratuei begira... esaten nien pertsonak dira, ez dira puntalak. Lan hori egiterakoan kobratu baina, klaro!, abusatu ez. Komentariok eta kritikak hilak agertu ziranen egin genitun. Ez da harritzeko. Esaten zen... kanalean agertu zela eta hil zela edo bota zutela...”

gero erituak zirenak... nork eraman klinikara? Han deklaratu behar zen eta..." ( pasatzaileak ez zeuden hortarako! )

"Hor arazoa NOLA zen".

Apezak zioenez, portugaldarrak miseriatik ihes egiteko edo gerrara ez joateko edo biengatik Frantziara joaten ziren. Bertan lana, bakea eta askatasuna zuten. Portugaldarren gobernuak pasaporteak eskuratzeko mila traba jartzen zuenez, Frantziara aldegitiko modu bakarra izkutupean joatea zen.

Euskaldun pasatzaileak kontrabandistak zirenez, bere lanari jarraituko zioten ere oraingoan.

Lanbide bat zen. Almandozko apezarentzat guztiz onargarria. Baina, eta hau azpimarratzen du behin eta berriz, portugaldarrak ongi tratatu behar ziren.

Zenbait kasu salatzen ditu. Baina portugaldarrak mendiz ibiltzen ez zekitela, ez zutela inolako ohiturarik dio. Askotan entzun dugun hura berriro esango digu : "ez zeuden prestatuta."

"Bat, bi , hiru... hilik" izan zirela dio. Elkarrizketan ez nion entzun "hil asko, ito asko" esaten. Ez eta "abandonatu aunitz". Alderantziz. Bere esanetan " batzuk izan ziren bidean abandonatuak. Ez anitz, eh! Baina tarteka. Desorientatzen ziren..."

Berak 5eko taldea galduta zebiltzanak , aurkitu zituen eta behar zen tokira eraman.

Solasaldia bukatzeko, pasatzaile-mugalari artean kontzientzi arazorik ote dagoen galdetuz zera dio:

“Kontzientzi problemarik ez dago. Bizitzeko, batzuk hortik (kontrabando-mugalari) defenditu behar ziren. Lanik gabe eta... hau zen enpresa.

Portuges pasan aritu zirenen kontzientzi arazorik ere baterez. Honbre! Negoziatzea pertsonekin... baina zer esan nahi du horrek? Behar den dirua kobratu, ez gehio. Behar den kondiziotan eraman, tratatu...

Nik ezagutu dittudanak, gehienak, garbi aritu dira. Bai.”

Nik Portugalen ez det izandu  
bear bezela bizitzerik:  
lanikan ez ta irabazi ez,  
ez de gañera itxerik;  
zu kontrabandon zabilta eta  
ez dezu gaur laguntzarik  
modu horretan ni utzitzeko  
bai al da kontzientzirik?

Portugaletik ni oñez nator  
areoplanorik enuan,  
kontrabandisten esperantzakin  
segurantzarik enuan;  
lan egiteko idearekin  
zugana osasun sanuan,  
bertan lepua kenduko zendun  
iges egiñ ezpanuan.

Ori agintzen al digu bada  
Jainkuan borondatiak?  
Faborez galde nik egin nizun  
Frantzi aldera juatiak;  
kontrabandista askok dauzkate  
poltsak dirutan betiak,  
geiago ere nik jakindu det:  
ttuzte putzura botiak.

Madariaga.  
1967ko bertsolari txapelketa



## **BIBLIOGRAFIA**

Zabala A. (1968). Paulo Yanci ta bere lagunen bertsoak. Ed. Auspoa.

Arrozarena C. (2003). El roble y la Ceiba. Ed. Txalaparta.

Douglass W., Bilbao J. (1975) . Amerikanuak. Los vascos en el nuevo mundo. Ed. Ellacuria.

Arburua R. (2005) . 1940-1960. Bortzirietako gaztiak. Ed. Alberdania.

Ródenas Calatayud, C. (1994). Emigración y Economía en España (1960-1990).  
Universidad de Alicante. Ed. Civitas, S.A.

Martín, P.L., Miller, M. (1980). Guestworkers; Lessons from Wester Europe. Industrial  
and labourd Relations Review.

Gabaccia, Donna R. (1992). Seeking common ground : multidisciplinary studies of  
immigrant women in the Unitet States. Ed. Donna Gabaccia.

Fernandez, A. (1978). Historia Contemporánea. Ed. Vicens Vives

García, J.L. (2.000), Portugal Migrante, Oeiras, Celta Editora.

Caballero, J.M. (2.008) Geografía eta Historia, Santillana

Assouline, D. et autres (1996). Un siècle d'immigrations en France. Ed. Syros 1996

Pereira, V. (2005). El poder de la impotencia. Policías y migración clandestina entre Portugal y Francia (1957-1974). Política y Sociedad . Vol. 42. Nº 3.

Pereira, V. (2010). Ni hères ni escrocs : les passeurs portugais (1957-1974). Plein droit . 84.

Baganha, M.I. (1994). As correntes emigratórias portuguesas no século XX e o seu impacto na economia nacional. Análise Social. Vol. XXIX (128)

Azpiazu, J.A. Esclavos y traficantes. Historias ocultas del País Vasco. Tartalo.

Green, T. (1969). El mundo del contrabando. Ed. Noguer S.A

Aldalur, M. (2010). Clandestinos. ¿Qué hay detrás de la inmigración ilegal?. Ed. B. Barcelona

Rekalde, A. (1998) .Mugalaris. Memoria del Bidasoa.Txalaparta.

Navas, E. (1977). Irún en el siglo XX. (1900-1936). Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones S.A. C.A.M. de San Sebastian .